

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-05-12
ASTELEHENA
452. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



"Ekoherrian, norbera eta talde gisa hazten gara, senidetasuna erabilia"

Luis Bernardo de Carrera | Arkitektoa

Emakumezkoek korrika hartu zituzten Arrasateko kaleak | 14



Aloña Mendiko eskubaloiko neskak Euskal Ligara | 26



Magiak mila aurpegi erakutsi ditu Elgetan asteburuan | 30

Glamour eta estiloz

Bergarako San Martin plaza moda-pasarela bilakatuta desfile arrakastatsua egin zuten zapatuan; 700 ikusle baino gehiago izan ziren



Manu Elizburu eta Michel Rocafort, elegante asko, zapatuko desfilean.

IMANOL SORIANO

Gutxituek aukera berriak dituzte ohiko enpresetan lanean integratzeko

Dagoeneko lau urte daroa martxan Pauso Berriak programak, Foru Aldundiaren, Lanbideren, Gureak enpresaren eta Atzegiren eskutik. Helburua da adimen urritasuna dutenak ohiko lan inguruneetan ikusgai egitea. Hala, Helburua da pertsona horiek lanean integratzea. | 2

SINADURAK

	XABIER MUGARZA 9
	9 JULEN IRIONDO
	HORAZIO ARGARATE 16
	17 ASIER ELORZA
	MAIALEN ARRAZOLA 18
	19 OIER ARANTZABAL
	IMANOL GALLEGRO 37
	40 XABIER ZUBIZARRETA

R.E.S. Nº 148/10/L.G.

AURRERATU UDA GARAIARI

Ray-Ban, arnette, VOQUE, OAKLEY eta askoz gehiago...

%30 deskontua eguzkitako betaurreko guztietan **BILDUMA BERRIAK!**

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR
ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

* Promozio hau indarrean egongo da apirilaren 1etik ekainaren 15era. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

Gutxituek aukera berriak dituzte ohiko enpresetan lan egiteko

- ▶ Gureak eta Atzegik bultzatutako Pauso Berriak programak lau urte ditu
- ▶ Praktikak egin eta lan-kontratupean jarduteko aukera dute gutxituek
- ▶ Gureak-eko hainbat debagoiendar dabilta ibarrean ere programa horretan

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Dagoeneko lau urte daroa mar-tan Pauso Berriak programak, Foru Aldundiaren, Lanbideren, Gureaken eta Atzegiren eskutik. Helburua da adimen urritasuna dutenak ohiko lan inguruneetan ikusgai egitea. Azken helburua da adimen urritasuna dutenak lan-ingurune arruntetan integratzea, beste edozein langile bezala.

Dagoeneko 155 lagunek eta 129 erakunde eta enpresak parte hartu dute Gipuzkoan, eta Debagoienan ere bai: bi erakundetan (Mizpirualde egoitzan eta San Juan de Dios ospitalean) langile bana dago, beste seik bukatu dituzte praktikak (Uliazpi Bergaran, Miguel Altuna Institutuan, Arizmendi ikastolan, Ibarra kiroldegian, Bergarako musika eskolan eta Oñatiko Udalean) eta beste bost zerbitzu okupazionalen dabilta (Arrasateko Udalean, Aretxabaletako GSRn, Oñatiko Txantxiku ikastolan eta Elgetako Udalean). Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz laguntzen du programa. Hala, Gureaken 960 plaza finantzatzeko dituzte urtean, biek sinatuta duten hitzarmenaren bitartez. Plaza horiek 6.313.048 euroko kostua dute, eta horien artean daude Pauso Berriak programakoak.

Bakoitzarendako 'jantzia'

Pauso Berriak programak formazioa eta praktikak egiteko aukera eskaintzen die adimen urritasuna dutenei, enpresa pribatu edo erakunde publikoetan. Prozesua banakako arretan dago oinarrituta eta parte-hartzaile bakoitzak berari laguntzeko sare egokitua dauka. Atzegik eta Gureak-ek prozesu osoan laguntzen diote langileari, familiari eta enpresei; bakoitzari egokitutako lanpostua eta zereginak definitzen eta bilatzen dituzte.

DATUA

155

LAGUN

Gipuzkoa osoko 155 lagunek eta 129 erakunde eta enpresak hartu dute parte Pauso Berriak programan.

NiZu =

Umeak eta desgaitasuna

Desgaituenganako sentsibilizazioa ikasgelatik lantzeko, NiZuBezala programa dauka Gureak taldeak. Honela azaltzen du Gureak-eko Izaro Alkortak: "Donostiako bi ikastolatan hasi ginen, eta Gipuzkoan zabaldu dugu. Dagoeneko 1.500 ume pasa dira programatik". Helburua da umeak konturatzea desgaitua ez dela "betiko ume bat", baizik eta eskubideak, betebeharrak, erabakitze aukera... duen pertsona bat. Programaren barruan, Gureak-en tailerrak bisitatu eta han egiten den lana ezagutu dute: "Ikusi dute ez dela lan erraza, gutariko askok ezingo genukeela egin. Desgaitasunaren inguruko aurreiritzi asko apurtu ditugu", dio Alkortak.

Programak hiru fase ditu. Lehenengoan, aurre-formazioa ematen zaie langileei, lau hilabete zehar. Dagoeneko 105 lagun pasa dira fase horretatik.

Bigarren fasean, lana benetako ingurunean egiten da, hau da, lan praktikak enpresa eta erakundeetan. Urte bete irauten du fase horrek eta, beti, ageriko lanpostuak egiten dituzte adimen urritasuna duten pertsonak. Praktika horiek enpresaren eta Gureak arteko hitzarmen bidez arautzen dira, 1.000 ordukoak dira eta ez dute enpresarendako hasierako kosturik. Enpresak lan-ingurunea ipintzen du, eta Gureak-ek, jarraipenerako begirale edo teknikari bat eta laguntza; Debagoienan, Amaia Vazquez teknikaria arduratzen da horretaz. Praktikak Lanbideko arautuak eta diruz lagundutakoak dira.

Hirugarren fasean, praktikak egin dituztenek lanean jarraitzeko formulak aztertzen dira. Zerbitzu okupazionalen baina ohiko ingurunean planteatu daiteke edo kontratazio zuzena proposatu. Zerbitzu okupazionalen formula praktika egin duten enpresetan beraie egokitutako jantzia edo zeregina aurkitu dutenadako eta bertan jarraitzeko aukera dutenadako da. Kontratazio zuzena praktikak egin ondoren enplegura orientatuta daudenadako da. Enpresak pertsona hori kontratatzeke dituen aukerak aztertzen dira.

Victoria Eugeniean ekitaldia

Pauso Berriak hobetzen eta aberasten joan da abian ipini zene-tik, 2010etik. Apirilaren 1ean, Donostiako Victoria Eugeniean ekitaldia egin zuten, eta agerian geratu zen langileen, enpresetako arduradunen eta lankideen zein familien poza. Testigantzak hemen ikus daitezke: www.pausoberriak.net.



David Raso, Arrasateko udal langile bati eguneko posta eta dokumentuak ematen. | LEIRE KORTABARRIA

"Udaletxean posta banatzen dut, eta asko gustatzen zait"

David Raso Pauso Berrietako lehenengoetako langile bat da: 2010etik dihardu Arrasateko udaletxean, Kulturaten eta BAZen

David Raso arrasatearra Pauso Berriak programako aurrekarietako bat izan zen. Izan ere, programa hori abian ipini eta segituan sartu zen praktikak

egiten; kasu honetan, Arrasateko udaletxean. Honela azaltzen du Udaleko Enplegu teknikari Marga Garmendiak: "2010eko bukaeran Gureak-en proposamena jaso genuen.

"Sukaldean gustura ibiltzen naiz eta horretan lan egiten dut orain"

Txantxiku Ikastolako jangelan laguntzaile lan egiten du Ainhoa Inda oñatiarrak, eta askotariko zereginak egiten ditu egunero

Sukaldean ibiltzea, garbitzea... asko gustatzen zait", esaten digu Ainhoa Inda oñatiarrak. Eta orain, gogoko duen lana egunero-egunero enpresa baten egitea lortu du. Izan ere, Pauso Berriak programaren eskutik, 2012ko abendua ezker Oñatiko Txantxiku Ikastolan dihardu praktikak egiten, sukaldariaren laguntzaile gisa.

Egun lanpetua

Gureak-en proposamena 2011-2012 ikasturtean jaso zuen Txantxiku Ikastolak, Jabi Arregi zuzendariak azaltzen duen moduan: "Programaren lehenengo urratsa proposatu zigiten, praktikak egitea enpresa baten. Planteamendu interesgarria iruditu zitzaigun eta Ainhoaren ekarpena ze lanetan izan zitekeen pentsatzen hasi ginen. Azkenean, jangela iruditu zitzaigun aukera onena". Jangelako arduradunekin baloratu zuten aukera hori eta, azkenean, 2012 bukaeran

bertan laguntzen hasi zen Ainhoa Inda. Hasieran, urte bateko praktikaldia izango zen.

Ikastolan, jangelarekin lotutako hainbat zeregin daude eta Ainhoak azaltzen ditu: "Urte bateko umeekin hasten naiz. Ogitartekoak prestatzen dizkiet. Gero, jaten ematen diet eta 12:00etan sukaldean laguntzen hasten naiz. Edurne [Gantxegik] gertatzen du janaria eta nik lagundu egiten diot". Ume txikien merienda prestatu eta haiekin lana bukatu eta gero, 12:00etan jangela nagusiko mahaia ipintzen hasten da Ainhoa, eta Edurne Gantxegi arduradunaren esanetan jarduten du. "Bazkaria zerbitzatzen dut eta ume txikienek eskuak garbitzen dituztenean, sikatu egiten dizkiet. Bazkaltzen dutenean, ontziak sukaldara eroaten ditut". Lankideek harrikoak egiten dute eta Ainhoak garbitutako ontziak bere lekuan ipintzen ditu.

Bere ardurak azaltzen ez da nekatzen Ainhoa, pozik ematen



LEIRE KORTABARRIA

Programa sortu berria zen eta modu esperimentalean parte hartzen hasi ginen". Gureak-eko hiru lagun hasi ziren lanean: bat Musakolako kiroldegian, beste bat Iturbide egoitzan, eta David, udaletxeko bulegoetan. Lehenengo urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sarbideak programaren laguntza jaso zuen Gureak-ek eta horren bidez hasi zen Daviden praktikaldia.

Hasierako hiru langile haietatik bik jarraitzen dute; hirugarrenak Gureak-en lan-atalera inkorporatzeko aukera izan zuen eta berak horixe aukeratu zuen.

Askotariko lanak udaletxean
Langilea eta Udala gustura geratu ziren, eta gaur egun, hiru urte baino gehiago pasa direla, hantxe jarraitzen du Davidek; urterik urte joan dira hitzarmena berritzen Udala eta Gureak. Udaletxeko behe-solairuan egoten da, artxiboan, Marijo Aspe langileari laguntzen. Astelehenetik eguenera arte egunero joaten da David udaletxera; 08:50 aldera inkorporatzen da lanera, eta 12:30 edo 12:45 arte bertan lan egiten du; gero, tailerrera joaten da.

Bere lanak ezin hobeto egiten ditu Davidek: "Papera txikitzen dut, posta banatzen dut eta Kulturaten eta BAZen ere lan egiten dut. Posta banatzea asko gustatzen zait". Hain zuzen, lan-eskaintzen gaineko informazioa jendaurrean ipintzen du Davidek. "Marijorekin eta Lolirekin egiten dut lan eta ondo konpontzen naiz eurekin", diosku Davidek. Hori egiteaz gain, Udal Euskaltegira ere joaten zen David eta han paperak plastifikatzen eta txikitzen zituen. "Lan hori bukatu da eta orain hementxe dabil, eta beste aukeraren bat ere begiraten gabiltza", diote udal langileek.

Beste lan batzuk ere egiten ditu, Marijo Aspek azaltzen digun moduan: "Orain papera txikitzen

dabil, behar hori daukagulako. Horrez gain, dokumentuak zenbakien arabera sailkatzen ditu eta espediente simple batzuetan garbiketa egiten lagundu digu; irizpide garbiak emanda, gai da hori egiteko, gaitasun handia dauka".

Hasieran baino lan mota gehiago egiteko gai da orain David, eta ikasten jarraituko du: "Gauza berri asko ikasi behar ditugu elkarrekin", aurreratzen dute Daviden lankideek.

"Udaletxeko denon izenak eta urtebetetzeak dakizki Davidek"

MARGA GARMENDIA
ENPLEGU TEKNIKARIA

Isil-isilik

Laneko trebeziak bakarrik ez; bestelako abilezia batzuk ere ikasi edo findu ditu Davidek Arrasateko udaletxean lanean

hasi zenetik: adibidez, herritik zehar mugitzen, eta bere kabuz seguruago ibiltzen: "Udaletxetik Kulturatera zuzenean joaten ikasi du; lehen buelta handi bat egiten zuen haraino joateko. Horrez gain, eskailerak jaisteko, lehen bi hankak batera ipintzen zituen eta orain beste modu baten jaisten ikasi du", azaltzen du Aspek.

Jendaurrean egoten ere ikasi du Davidek: "Jendea hona datorrenean bera ere hemen egoten da eta hasieran ez zen konturartzen jendea zegoenean ezin zuela ozen berba egin, oihu egin... Orain, isil-isilik egoten da", txalotzen dute lankideek.

Dena lanean ikasi du

David Rasoren kasua berezia da; izan ere, Pauso Berriak programako lehenengoetariko langilea izan zenez, eta orduan plana sortu berria zenez, Davidek ez zuen lan aurreko prestakuntzarik jaso, gerora egiten hasi zen bezala; bera zuzenean hasi zen lanean eta hura izan zen bere "eskola". Hori bai; gerora egin den bezala, Davidekin ere ia egunero joaten zen Gureak-eko begirale edo teknikari bat; normalean, Amaia Vazquez, Debagoieneko arduradunetako bat.

Daviden lankideek honela azaltzen dute: "Hasieran, begiralea ia egunero etortzen zen. Orain, Daviden lana aldatzen denean ere etortzen da, edo gu saiatzen gara lan berria erakusten. Zeregin erraz bat baldin bada, gu konpontzen gara".

Amaia Vazquez harro dago Davidek eman dituen aurrerapauso handiekin: "Davidek hemen, lanean ikasi du dena. Loli eta Marijo lankideekin gauza asko ikasi ditu".

Etxean ere, pozik

Pauso Berriak programan dabiltzan ezaugarria da denek ikasten dutela zerbait, eta denek azaltzen direla pozik programaren

emaitzekin. Adimen urritasuna duten familiendako ere oso pozgarria izaten da euren senidea lanean ikustea, ohiko lan-ingurune baten integratuta, lankideekin bere kabuz moldatzen eta aparteko babesik gabe, beste edozein langile moduan. Horrela esaten digu Davidek ere: "Ni oso pozik nago. Etxean ere oso pozik daude ni hemen lanean nabilelako".

"Lanaz gaineko trebezia asko ikasi ditu: jendaurrean egoten..."

MARIJO ASPE
LANKIDEA

"Etorri da David"

Lanerako gaitasunaz eta gogoaz gain, Davidek beste zerbait ekarri du udaletxera: poza. Honela dio Marga Garmendiak: "Posta eta dokumentazioa sailez sail banatzen

du, eta horrek udaletxean denon ezagun bihurtu du David. Egubakoitzetan etortzen ez zenean, faltan igartzen genuen. Guztion izenak dakizki, eta gehienon urtebetetze eguna ere bai; denoi *Zorionak zuri* kantatzen digu, alkatetik hasita. Hori asko baloratzen da, oso polita da". Berriemaile lana ere egiten du: "Kontu asko dakizki; ni askotan egunkaria irakurri aurretik enteratzen naiz gauza askorekin".

Marijo Aspek hauxe gaineratzen du: "Etorritzen denean denok agurtzen gaitu, oso pozik, eta David etorri dela badakigu orduan".

dizkigu argibideak sukaldeko tresnak eta txokoak erakusten dizkigun bitartean: "Gauzak hozkailuan uzten ditut, zapia pasatu eta xukatu egiten dut..." Egunean eguneko hondakinak ere sailkatzen ditu. Hamaika lan egiten ditu Ainhoak.

Jangelaz gain, Haurtzaindegi zerbitzuko umeak zaintzen ere laguntzen du.

Bera oso pozik dabil, eta umeak berarekin ere bai: "Inoiz gaixorik zegoelako etorri ez zenean, umeek berarengatik galdetu dute", esaten digu Edurne Gantxegik. Eta lankideek ere Ainhoaren falta igarri zuten: "Laguntza handia da Ainhoa gurekin egotea. Bera ez dagoenean, lan horiek besteok egin behar izaten ditugu, eta lana da, denbora luzeagoa behar dugu lana bukatzeko".

Donostiara, ikastera

Ainhoa Indaren esperientziak arrakasta izan du, Txantxiku Ikastolako administrari Julen Anakabek azaltzen digun moduan: "Urte beteko praktikan oso ondo ibili da, eta bigarren urte baterako hitzarmena daukagu Gureak-ekin. Oso gustura gaude berarekin". Hortaz, oraingoz behintzat, 2015ko urtarrilera arte jarraituko du Ainhoak praktika horiek egiten.

Edurne Gantxegik dioenez, Ainhoa "beti dago gertu gauzak egiteko eta gauza berriak ikasteko"; horregatik, ez da harriztekoa bere



Edurne Gantxegi eta Ainhoa Inda, bazkaria prestatzen. | LEIRE KORTABARRIA

praktika-hitzarmenean hasieran jasotako baino lan gehiago egitea orain.

Lanean bertan gauza asko ikasi ditu, baina, hasi aurretik, formazioa jaso zuen Ainhoak. Hala, egunero-egunero Donostiako Villa Mari egoitzara joaten zen, Grosera. Amaia Vazquezek, Gureak-eko Debagoieneko Jarraipen teknikariak esaten digu bertan ze ikasten duten: "Zortzi laguneko taldetan, 3-4 hilabetean ibiltzen

dira, eta bi modulu daude: baten, bulegoko lanak ikasten dituzte, eta bestean, askotariko zerbitzuak. Bigarren horretan ibili

"Egunen baten etorri ez denean, jangelako umeek berarengatik galdetu dute"

EDURNE GANTXEGI
LANKIDEA

dabiltzan langileek, normalean, bi lan mota horietako bat egiten ikasten dute eta horretan topatzen diete lekua praktikak

egiteko; beraz, gehienek bulegoko lana edo zerbitzuetako lana egiten dute, bakoitzaren gustuaren eta gaitasunen arabera. Baina trebezia batzuk denek batera ikasten dituzte: autonomia, komunikazioa...

Baina, Pauso Berrietako beste partaideekin gertatu den moduan, ikastarotik eta lantokitik kanpo, programan bertan ibiltzeagatik dagoeneko gauza asko ikasi edo hobetu ditu Ainhoak; adibidez, autonomia: "Oñatitik Bergarara

autobusean joaten nintzen bakarrik; Bergaran lagun batekin elkartu eta biok joaten ginen Donostiara; han autobusetik jaitsi eta Grosera joaten ginen". Bidaia hori egunero biek bakarrik egiten ikasi zuten.

Orain bere kabuz dabil


Behin ikastolan hasitakoan, ikasteko prozesuak aurrera jarraitu zuen, benetako lan-ingurune baten, lankideekin... eta, beste edozein langile berrik moduan, Ainhoak eta ingurukoek "elkar ezagutzeko ikasi" zuten, Edurnek esaten digun moduan.

Horrez gain, Pauso Berrietan egiten den moduan, errefortzua izan zuen Ainhoak, Amaia Vazquezek dioskun moduan: "Lan-prestatzailea lau ordutan edo Ainhoak behar adinako denboran egoten zen berarekin. Egin behar dituen lanak erakutsi zizkion. Zer edo zerekin arazoa baldin badu, errefortzu gisa hori lantzen dute.

Pixkana-pixkana, lan-prestatzailea Ainhoa bakarrik uzten joan zen". Gureak-eko langile batzuek Gureak-en lantokietan jarraitzea erabakitzen dute,

baina, kanpoan lan egin gura dutenendako, Ainhoak bezala, Pauso Berriak programak ate berri bat irekitzen du.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otolara lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behea

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

GARMENDIA LANDER

PSIKOLOGO KLINIKOA - PSIKOTERAPEUTA

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86 / 669 10 13 93

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Beste bizikleta bat jarrita izan dute gogoan 'Mardo' ren urteurrena

Aramaioko errepide bazterrean, istripua izandako lekuan, jarri dute haren senide eta lagunak

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Urtebete pasatu da Joseba Larrinaga *Mardo* hil zela; bizikletan zihola Aramaioko errepidean zoritxarreko istripu hura izan zuenetik urtebete, eta etxekoek eta lagunak ondo gogoan dute data. Urtebete ostean berriro elkartu ziren Aramaioko errepide bazter horretan bizikleta bat jarri eta harekin oroitzeko.

Bizikleta zuria

Senideak, koadrilakoak, txirrindulari lagunak eta beste hainbat lagun elkartu ziren zapatu arratsaldean. Ez zuten deialdi zabalik egin gura izan, baina hala ere ia

40 bat lagun hurreratu ziren Aramaiora. Iaz ere jarri zuten bizikleta, baina handik hilabete gutxitara desagertu egin zen, eta urteurrena tarteko, beste bat jartzea erabaki dute lagunak.

Bizikleta gainean sarritan lagun izan zuen Gorka Etxabe aretxabaletarrak berba batzuk esan zituen haren omenez, minutuko isilunea egin zuten gero eta bukatzeko bizikleta jarri. "Bizikleta hartzen dugun guztietan gogoratzen gara Josebarekin; eta horregatik pentsatu dugu beste bizikleta zuri bat jartzea haren oroimenez", adierazi zuen Alfredo Meabe haren lagun minak.



Joseba Larrinagaren senideak eta lagunak Aramaioko errepidean jarritako bizikletaren aurrean. | MIRARI ALTUBE

ESANAK

"Bizikleta hartzean 'Mardo' dugu beti gogoan"

ALFREDO MEABE | TXIRRINDULARIA

Errepidean errespetua

Iaz, kontzientzia kanpaina egin zuten *Mardoren* lagunak, txirrindulariak eta autoak elkar errespetatzeko kanpaina. Oraingoan kanpainerik ez dute egin, baina bai gogorarazi oraindik errepideetan txirrindulariak hil egiten direla: "Gero eta auto gehiago eta txirrindulari gehiago dago errepideetan, eta ez da batere

samurra konponbidea. Ea guztion partetik zerbait jarri eta Josebari gertatutakoa ez den berriro gertatzen", zioen Meabek.

Domekan 'Mardo' ren krosa

Domekan ere gogoan izango dute aretxabaletarra, Joseba *Mardoren* oroimenezko 36. Ojala Zelai kros herrikoia jokatu delako Urkulu urtegi inguruan.

'Pilotakadaz pilotakada' Bergaran sakabanaketari agur esateko

M.A. | BERGARA

Pilotazalez bete zen Bergarako Udal Pilotalekua zapatu goizean baina ez profesionalen arteko partiduak ikusteko, Etxeratek abian jarritako *Pilotakadaz pilotakada sakabanaketaren aurka* ekimenari babesa emateko baizik.

"Barru herrikoiak" izan ziren lehenengo; adin ezberdinetako zortzi bat laguneko bi talde osatu zituzten eta txarra egin ahala kanporatzen joan. Hala, talde bietako bi onenek elkarren aurka jokatu zuten ikusleen animo oihuen artean.

Ondoren, Jon Perez eta Beñat Iñarra, Dani Diez eta Aritz Rezutaren aurka aritu ziren, eta partidu nagusia izan zen: Lazkano eta *Kanto* preso ohiak, Gaztelu eta Azkondoren aurka. Jabi Lazkanok onartu zuen aspalditxoan pilotan jokatu barik zegoela baina urduritasunik ez zuela. Izan ere, jai giroa eta aldarrikapena ziren protagonista zapatuan pilotalekuan, eta ez pilotarien jokoak. Hori horrela, zera zioen Lazkanok: "Ea sakabanaketarekin bukatzen dugun behingoz. Presoen senideei babes piska bat ematera etorri gara; izan ere, luze doa kontua eta ea behingoz bukatzen den eta lortzen dugun presoak Euskal Herrira ekartzea".

Bigarren eskuko azoka

Arrasaten ere jokatu zituzten pilota partiduok, Zaldibarren. Giro ederra izan zuten han ere, bertsolariek lagun eginda.

Bigarren eskuko azoka ere jarri zuten Herriko Plazan, bederatzigarrenez. Eguraldi ona lagun harrera bikaina izan zuen beste behin azokak, eta herritarrek paregabeko eskaintzak topatu zituzten bertan.

Begarako Sortu, EAJ, EA eta Aralarko ordezkariak "gure esku dago" diote

M.A. | BERGARA

Gure Esku Dago dinamikarekin bat egin duten Bergarako alderdietako ordezkariak elkartu ziren zapatu eguerdian ekainaren 8ko hitzordua gogorarazteko herritarrei eta parte hartze-za gonbidatzeko. Tartean zeuden Agurte Barruso (Sortu), Juan Luis Bikuña (EAJ), Arrate Bengoa (Aralar) eta Lauri Askargorta (EA).

"Halako ekimen bat alderdi politikoei babestu arren herri-

tarrek bultza egiten ez badute alferrik izango da, hortaz, gure esku dagoenean, herritarron esku dago", esan zuen Barrusok, eta EAJko Iñaki Arregik ildo beretik zioen: "Erantzuna herriarena da, eta garai ona da erantzun sendo bat emateko".

Hala, oraindik metro batzuk geratzen direla gogorarazi zuten eta bergararrak animatu zituzten horiek erosi eta ekainaren 8an, jaietan izan arren, giza katean parte hartzera.



Pilotazaleak 'barru herrikoiak' jokatzen zapatuan Bergaran. | IMANOL SORIANO



EA, Aralar, Sortu eta EAJko ordezkariak Gure Esku Dago ikurrarekin. | I.S.

30 urte baino gehiago zure zerbitzura

Aretxabaletako Industrialdea F-0-1
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

EGUZKIGRAF
inprimategia

KOOP. E.

Arizmediarrietaren Lagunak elkartekoek batzarra, etzi

Azken urtean eginiko lanen berri eman zuten egubakoitzean elkartekoek

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Eguaztenean egingo du Arizmediarrietaren Lagunak elkarteak urteko batzar nagusia, eta bertako ordezkariak egubakoitzean egindako agerraldian, azken urtean egindako lanen berri eman zuten.

Azken lanak

Hala, azken urtean aurrera eroandako proiektuen artean, liburutegi digitala aipatu zuten. Horri esker Arizmediarrietaren 7.000 dokumentu kontsultatu daitezke dagoeneko Interneten. Eusko Ikaskuntzaren laguntzaz digitalizatu dira dokumentuok eta liburutegi digitala Mondragon Unibertsitatearen webgunean kontsultatu daiteke. Asten honen hasieran estreinatuko duten elkartearen webgunean ere iku-

si ahalko da. Aurrerantzean Liburutegi digital hori osatzen joateko asmoa dutela ere gaineratu zuten elkarteko kideek.

Azpimarratu zuten beste proiektuetako bat Arizmendiarietaren gogoeta eta baloreen ingurukoa izan zen. Horretarako, kooperatibismoaren aitaren gogoeta liburutik 34 balore identifikatu dituzte eta hainbat irizpide jarraituta, berauen sailkapena egin dute. Orain, balore horien hiztegia osatzen dihardute. Lan hau guztia, elkartearen webgunean sartu dute. "Iruditzen zaigu Arizmendiarietaren pentsamenduan edo gaietan sakondu nahi duen edonorentzat oso lagungarria izango dela egin dugu lan hau", adierazi zuen elkarteko lehendakari den Jose Mari Larra mendik.

Gazteekin ere badabilta lanean elkartekoak, eta horren adibide da maiatzaren 16an egingo duten Aktion jardunaldiaren bigarren edizioa. Bestalde, enpresetan pertsonen parte-hartzea sustatzeko elkarlanean ere badabilta hainbat erakunderekin. Zentzu horretan, Gasteizko legebiltzarrean aurkeztu gura duten lege inizatiba baten dabilta lanean hainbat erakunderekin.

Batzarra eta hitzaldia

Eguaztenean egingo dute urteko batzar nagusia elkartekoek. Horren ostean, arratsaldeko zapietan, hitzaldia eskainiko du *Hombre cooperativo, pensamiento de Arizmendiarieta* liburuaren idazlea den Joxe Azurmendik. Garaian izango da bai urteko batzarra eta baita hitzaldia ere.

Sozialistek arrosa banaketa egin zuten Arrasaten, egubakoitzean

JON MOÑUX | ARRASATE

Egubakoitzean hasi zen Europar hauteskundeetarako kanpaina eta PSE-EEko hainbat kidek Arrasaten hasi zuten programa. Hala, bertan izan ziren: Gipuzkoako PSEko Idazkari Nagusia den Iñaki Arriola, Blanca Roncal euskal parlamentari sozialista, eta Arrasateko Udaleko zinegotziak diren Paco Garcia eta Aritz Arrieta. Besteak beste, hauteskunde-liburuxkak eta arrosak banatu zituzten Laubiden egubakoitzero egiten den azokan.

Iñaki Arriola sozialista eibartarrak Europako hauteskunde garrantzia nabarmendu zuen ekitaldian. Izan ere, Gipuzkoako PSE-EEko idazka-

ri nagusiaren esanetan, "Europar hartzen dira erabaki garrantzitsuenak, eta gobernuek ez daukate autonomiarik beraien politika aurrera eramateko". Hori dela eta, Europako eskunari irabazteko nahia eta beharra ere azaldu zituen Arriolak Arrasaten, euskal sozialistek egin zuten agerraldian.

Egubakoitzean ekin zitzaion hauteskunde kanpainari eta alderdi guztiak hasi dira beraien programekin. Kanpaina maiatzaren 23an amaituko da. Hauteskunde eguna berri, maiatzaren 25a izango da Espainiako Estatuan. Izan ere, Europar Batasuneko herrialdeetan maiatzaren 22 eta 25 bitartean egin behar dira bozketak.



Paco Garcia arrosak banatzen, egubakoitzean, azokan. | JON MOÑUX



JULEN IRIONDO

Bailaratik ere eskaerak, Fiareri

Fiare Banku Etikoa ari da poliki-poliki Debagoiengan zabaltzen. Arrasaten aurkezpena egin zuten eguenean, eta bertan esan zuten, adibidez, Oñatin eta Eskoriatzan bi proiektu interesgarri finantzatzeko elkarriketetan ari direla. Gure bailaran 52 bazkide ditu gaur egun Fiare Banku Etikoak.



Ekokaleak hiri-altzari iraunkorren lehiaketako sarituak. | IRATI GOITIA

Herri eta eraikinen berreskuratzea, berbagai

IRATI GOITIA | ARRASATE

Arizmendi ikastolak antolatuta XXI. mendeko etxebizitzaren inguruko jardunaldiak egin zituzten egubakoitzean Arrasaten. Iaz natura eta eraikuntza izan zituzten ardatz, eta gai horrek piztutako interesa ikusita, aurrean ildo horri jarraipena ematea erabaki

zuten antolatzaileek. Hala, espazio industriaren, hiritarren zein landa guneen berreskuratzeaz aritu ziren hainbat aditu. "Jendea hirietara joan eta nekazari guneetan emandako hustutzeaz eta herri horien berreskuratzeaz jardun dute hizlari batzuek. Beste batzuek erabilera gabe gelditu

diren eremu industriaren berreskuratzeaz", zehaztu zuen Aitor Axpe, Arizmendiko irakasleak. Esaterako, Meliton Gonzalez Amayueslako landa esperientziak jardun zen eta Ramon Garitano Bergaran Labegarrietako industrialgunea kirol instalazio bihurtzeko proiektuaz. "Iraunkortasunaren ikuspegitik logikoa da erabilgarri egon daitezkeen eraikinak berreskuratzea. Cerrajearen kasuan, gainera, beste aspektu bat ere bazen garrantzitsua izan zenaren memoria gordetzea", adierazi zuen Garitanok.

Arizmendik antoaltzen dituen jardunaldi hauen helburua da Lanbide Heziketako ikasleek mundu profesionala lehen eskutik ezagutzea eta harremanak sotzea.

Bestalde, Ekokaleak hiri-altzari iraunkorren lehiaketako sariak ere banatu zituzten egubakoitzean. Estatu mailako txapelketa da eta ikasleek kale-argi bat diseinatu behar izan dute. Guztira 62 lan aurkeztu dira eta lehen saria Malagako Jesus Marin eskola politeknikoko ikasleentzat izan da.

LENIZ
ESKORIATZA

SUZUKI

KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Cegasako langileek gehiengoz onartu dute murrizketa espedientea

Sei hilabetean jardunaldia murriztuko die; segituan hasiko da aplikatzen

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Jardunaldia murrizteko ERTEa (enplegu-erregulazioaldi batearako espediente) bozkatu eta onartu dute Cegasa Taldeko langileek gehiengoz. Eguenean

adostu zuten ERTEa indarrean jartzea, eta berehala aplikatuko da. Cegasako enpresa batzordeko kideen esanetan, "orain arte baldintzak negoziatzen" ibili dira eta hainbat batzar orokor

egin dituzte, enpresak baldintzak eta ERTEaren zergatiak azaltzeko.

Proposamena apiril hasieran egin zuen zuzendaritzak, eta ordutik negoziatzen ibili dira.

Lan-zentzoren arabera

ERTEa sei hilabeterako da eta Cegasa Taldearen zentroei modu desberdinean eragingo die, bakoitzak duen lan-kargaren arabera. Hala, Oñatiko langileei lan-jardunaren laurdena murriztuko zaie. Beste zentro batzuetan %60ko, %75eko eta, kasuren baten, %100eko murrizketa onartu da.

Zuzendaritzak egin du ERTE proposamen hori eta administratzaileak ontzat eman du. Oñatin eta Gasteizen langileen gehiengoak alde bozkatu zuen. "Taldeen diru egoeraz" konturatuta daude langileak, eta horregatik bozkatu dute gehienek alde, enpresa batzordeko iturrien esanetan.

Krisiak kolpatutako enpresa

Cegasa Taldeak urtarrilean jakinarazi zuen aurre-konkurtsora zihoala, bere finantza-egoera delikatu zela eta, taldea "berregituratzeko" asmoarekin. Martxoan, konkurtsoa aurkeztu zuen. Cegasak asko dibertsifikatu zuen bere jardura azken urteetan; negozio tradizionala pilak ziren (Tximist

ESANAK

"Taldeen diru egoeraz konturatuta daude langileak, eta ERTEa onartu dute"

CEGASAKO LANGILEEN ORDEZKARIA

DATUA

%25

GUTXIAGO

Oñatiko langileei lan-jardunaren laurdena murriztuko die ERTEa; beste negozio batzuetako langileei, gehiago.

pila ezagunak), baina, denborarekin, errentagarritasuna galtzen joan zen negozio hori eta beste batzuei ekin zien Cegasak. Dena dela, kontsumo-krisiak gogor eragin ziola onartu zuen enpresak, irabaziak murriztuz. Konkurtsora sartu zenean, Cegasa Taldeak 117 milioi euroko zorra zuen. Taldeak 900 langile ditu, horietako 500 Oñatin eta Gasteizen, eta hainbat negozio-lerro.



Cegasa Taldearen Oñatiko lantegian energia-metaketa negozioa lantzen da. | GOIENA

Gaur bukatzen da alegazioetarako epea

Fagor Etxetresnen behin betiko likidazio plana onartzeko beste 15 egun izango ditu epaileak

L.K. | ARRASATE

Gaur, astelehena, bukatuko da Fagor Etxetresnen likidazio planaren gaineko alegazioak aurkezteko epea, eta 15 eguneko beste epe bat irekiko da epaileak likidazio plana nola geratuko den gaineko autoa egin dezan.

Eskaintzak, fidantzarekin

Alegazioak aurkezteko epea bukatu eta gero, aurkeztu ahal izan diren estatistikontuan hartzen direnekin likidazio plana nola geratuko den jakitea izango da hurrengo pausoa.

Hori eta gero, beste 25 egunean erakusketa publikoko fasea izango da, eta hor, interesa dutenek eskaintza zehatzak egin beharko dituzte.

Liquidazio planak lehenengo aukera gisa ezartzen du Fagor Etxetresnak eta Edesa osorik saltzea, baina "seguruenik" bigarren aukeraren arabera likidatuko da, Fagor Etxetresnetako iturrien arabera: hiru multzotan banatuta. Hiru multzo horiek Confort, Mini eta

Lerro Zuria (hozkailuak, garbigailuak eta ontzi-garbigailuak) dira. Eskaintza zehatzak aurkeztearekin batera, atal bakoitza erosi nahi duenak atal horregatik fidantza bat ipini beharko du.

Cevitalek eta Catak "orain arte egin dituzten eskaintzak berregin eta likidazio planera egokitu" beharko dituzte, Fagor Etxetresnen arabera.

Hozkailuak saltzea, "zaila"

Cevitalek eta Catak, orain arte, Mini eta Egosketa negozioengatik interesa agertu dute. Fagor Etxetresnen arabera, multzo eta negozio batzuk saltzea errazagoa izango da beste batzuk saltzea baino; hala, Lerro Zuria-aren barruan dagoen hozkailuen atalarengatik eskaintzak jasotzea "oso-oso zaila" izango dela diote Fagor Etxetresnek.

Gauzak ondo bidean, Fagor Etxetresnek espero dute "uztailerako adjudikatuta" izatea Fagor Etxetresnetako eta Edesako aktiboak.

Balio kooperatibisten gaineko Aktion jardunaldia izango da egubakoitzean

L.K. | ARRASATE

Balio kooperatibistak konpartitzeko eta horien gaineko gogoeta egiteko, Aktion jardunaldia egingo dute, beste urte batez, Garaia Berrikuntza Gunean. Egubakoitzean, hilak 16, izango da.

Taldetan banatuta gogoeta

Aurten, Login Lan junior kooperatibak lagundu du ekitaldia antolatzen, Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartearekin batera. Garaia Living Lab-ean izango da Aktion jardunaldia.

Gogoeta egiteko gai gisa hauek proposatu dituzte: *Pasioa, konpromisoa, apaltasuna, esfortzua, bizirik al daude balio hauek?, Zer egin dezakegu ekintzailetasuna*

bizirik mantentzeko?, Gaur egungo gazteek ba al dakite amesten?, Ez dago arrakastara heltzeko igogailurik, eraiki zure eskaile-rak.

Goiz osoko jardunaldian, 10:45etik 12:00etara, mundu kafea egingo dute eta mahaitan banatuta egingo dute gogoeta; baina, goizean zehar, ekitaldiak eta hitzaldiak izango dituzte: 09:30etik 10:45era, Amancay eta Zestoako Antzerki taldearena; 12:00etatik 13:00etara, Mikel Yerobi, Goieneko kooperatiba, Sustraiabari eta Igor Urienena; eta 13:30etik 14:30era, Axi Munainena.

Izenematea zabalik dago honako helbidean: aktibatut@gmail.com.



Beste urte bateko Aktion jardunaldian, mahai-inguruan. | GOIENA

Lan elkartuko %23 kooperatiba gehiago, iaz

L.K. | ARRASATE

Kooperatibismoaren gaineko datu itxaropentsuak eman ditu Cocetak, Lan Elkartuko Kooperatiben Espainiako Konfederazioak: Hego Euskal Herrian eta Espainian, 2012an baino %23 lan elkartuko kooperatiba gehiago sortu ziren 2013an, baina, horrez gain, enplegu garbia sortzen hasi dira. 2013ra arte ere, beste enpresa mota batzuk baino enplegu gutxiago suntsitu zuten: ia 10 puntu gutxiago, hain zuzen ere. Hori dela eta, Cocetaren esanetan, eredu hori "funtsezkoa da krisian dauden enpresak bere onera ekartzeko".

Lanpostu gehiago

Zehazki, 2012an 733 lan elkartuko kooperatiba sortu ziren Hego Euskal Herrian eta Espainian, eta iaz, 950. Kooperatiben artean gehiengoak dira: 2013an sortutako kooperatibetatik 216 bakarrik ez ziren modalitate horretakoak. 3.632 lanpostu sortu zituzten; 2012an, 3.612 izan ziren, nahiz eta lantalde txikiko enpresak izan.



Luis Bernardo de Carrera, egubakoitzean, Arizmendi Ikastolan. | ARIZMENDI

Luis Bernardo de Carrera | Arkitektoa

"Ekoherrian, norbera eta talde gisa hazten gara, senidetasuna erabiliz"

- ▶ Arizmendi Ikastolaren hitzaldi-sorta baten parte hartu du
- ▶ Bioeraikuntza egiten du, eta Artzentalesko ekoherrian bizi da

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

XXI. Mendeko Etxebizitza delako jardunaldia egin zuen, 8. urtez, Arizmendi Ikastolak egubakoitzean, eta Luis Bernardo de Carrera arkitektoa izan zen hizlarietako bat; zehazki, ekoherrien gainean jardun zuen. 58 urte ditu eta ia 34 urte daroa jardunean, proiektuak garatzen eta obrak zuzentzen, batik bat Madrilan, Granadan eta Euskal Herrian, bere bizilekua dena 2000. urtea ezker. Bioeraikuntza egiten du eta ekoherri baten bizi da; horren gaineko informazio gehiago dago bere webgunean (www.arquitectura-con-corazon.es).

Ze iruditzen zaizu Arizmendi Ikastolaren XXI. Mendeko Etxebizitza jardunaldia?

Bere motako beste ekimen batzuekin batera, etxebizitza eredu berrien plangintza jendarteari gerturatzeko ekimen ezin hobea iruditzen zait.

Ekoherrien kontzeptua nahiko berria da. Nola definituko zenuke, labur?

Definizio asko eman daitezkeen arren, askotariko ereduak daudelako, Robert Gilman aitzindariaren modura laburtu dezakeguk ere: "Ekoherria giza finkapen bat da, giza eskalan, bizitzarako alderdi garrantzitsu guztiak dituen, ingurune naturalean errespetuz integratuta; garapenerako modu osasungarrien aldekoa dena

eta modu mugagabeen iraun deza-keena".

Zure misioa honela definitzen duzu: "arkitektura egitea, gizarteari zerbitzu gisa ulertua". Nola erosten duzu hori praktikara?

Egia esan, arkitektura guztiak izan beharko luke gizartearengana berezko zerbitzu zentzu bat, baina, zoritxarrez, lanbide hau balioa galtzen joan da, hain zuzen, herri "arruntarengandik" urrunduz joan delako azken mendeetan. Nire asmoa, proiektu bati eusten diodanean, bezeroarengandik gertu egotea da, norbanako bat izan zein bizilagun talde bat izan, prozesuan modu aktiboan parte har dezaten eta bere proiektua, ez inposatua dela senti dezaten.

Nolakoa da gaur egun egiten den arkitektura, zure iritzi?

Gauza guztietan moduan, arkitektura ona eta txarra dago, askotariko tendentziak sortu dira eta ereduak nazioarteratu dira; nire ustez, hori arriskutsua da ez badira kontuan hartzen leku bakoitza eta bere ohiturak. Espekulazioa-

rengatik eta negozio hutsarengatik egin den "zabor" guztitik Mendebaldeak ikas dezan itxaropena daukat, baina kezkatu egiten nau eredu horiek suspertzen ari diren herrialdeetara esportatzen dabiltzala ikusteak, beste ezeri begiratu gabe.

Eguzki-arkitektura pasiboaren printzipioak jarraitzen dituzu. Zertan datza horrek?

Lekua eta eguzkiak urte oso baten zelan eragingo dion kontuan hartuta diseinatzeko den arkitektura da, eguzkiaren berotasuna eta argitasuna ahalik eta gehien aprobetxatzeko; ez bakarrik aurrealdea nora begira dagoen, baita materialak, itzal lekuak eta eraikinarren bolumetria ere.

Diseinuan geometria sakratua ere aplikatzen duzu. Azalduko diguzu?

Arkitektura-espazioen diseinuari aplikatuta, zenbaki berezietan -Pi, adibidez- lotutako proportzio jakin batzuk erabiltzean datza. Zenbaki horiek natura osoan, kosmosean eta Lurreko leku bakoitzaren

berezko solstizioetan daude. Espazio harmoniatu eta osasungarriak egiteko, geometria hori erabiltzea ez litzateke nahikoa izango, ez balira kontuan hartuko ere eraikina egongo den ingurunearen beste lur-energia eta oinarrizko energia batzuk. Horregatik, bioeraikuntzaren printzipioen artean, diseinatzeko hasi aurretik luraren azterketa geobiologikoa egiteko beharra ezartzen da.

Zure 30 urtetik gorako ibilbidean egin dituzun proiektu batzuk aipatuko dizkiguzu?

Askotarikoak egin ditut, hirietan eta landa-inguruneetan: birgaitzeak, ostalaritza, etxebizitzak, e.a. Azkenaldian, etxebizitza-komunitate bat eta hotel bat eraiki ditut, Granadan, eta ekitaldi-areto handi baten eraikuntzan parte hartu dut, Bizkaian.

Ekoherriez gain, ekoauzoak ere badaude, ezta?

Gizarteko joera berrienetako bat da. Bizilagunak administrazio zentraletik aparteko talde-ekintza askotan antolatzen dira: auzoko

berdeguneetan ortuak ipini, zerbitzuak trukatzeko denbora-bankuak sortu, eurendako moneta bat sortu... dena dago garatzeko. European gu baino aurreratuago daude, adibidez Transition Town mugimenduarekin, Bionneers topaketekin edo Co-housing delako praktikarekin. Lehen egiten ziren eredu batzuetara bueltatzen dabilta; garai haietan, jendea gizarte txiki edo ertainetan bizi zen eta baliabideak eta esperientziak konpartitzen zituzten. Kasu askotan, esportatzeko moduko eredu ona da Euskadi.

Edozein bizi daiteke ekoherri baten?

Gizarte horrekin serio konprometitzen den eta ekoherri horrek batera bizi irauteko goi-helburu baten izenean elkarbizitzaren zailtasunak gainditzeko gertu dagoen edozein, bai.

Artzentalesko ekoherriarekin kolaboratu duzu, ezta?

Bai. Amalurra Nazioarteko Komunitatea da. Irene Goikoleak sortu zuen orain 21 urte baino gehiago, eta ni orain 14 urte sartu nintzen. Orain, 12 familia bizi gara, bakoitza bere etxebizitzan eta 10 hektarea baso, zelai, lorategi, ortu eta eraikin komunak konpartitzen ditugu. Garrantzitsuena da norbera eta talde gisa hazteko asmoa dugula, senidetasuna eta elkartasuna bezalako balioak erreskatatuz. Enpresa-bide bat ere bultzatu dugu, hotela, jatetxea eta taldeek topo egin eta tailerrak egin ditzaten espazioak sortuz. Neuk, giza aportazioaz gain, sortzen goazen proiektuak teknikoki garatzen laguntzen dut.

Beste herrialde batzuetan, nola daude bioeraikuntza, ekoherriak...?

Normalean, ekoherri baten bioeraikuntzaren printzipioak erabiltzen dira, baina bioeraikuntza ez da ekoherrietara mugatzen. Datuak oso argiak dira: gure ingurumen-inpaktua, karbono-arrastoa... gero eta gehiago hartzen dira kontuan, eta gizarteak bere buruari galdetzen dio zer egin dezakeen; horregatik, bioeraikuntza hazten dabil. Alemanian eta Herbehereetan, gertuko bi adibide aipatzearen, legeak aspalditik hartzen du aintzat giza kontzientzia hori, energia alternatiboak, eraikuntza jasangarriak... diruz lagunduta eta, batzuetan, horietara behartuta.

Ekoherriei dagokionez, bestelako gizarte-batze internacional batzuk ere kontatuta, European 2.000 inguru egon daitezke, eta mugimenduak oso osasun ona du, Global Ecovillages Network-en ikus daitezkeen moduan.

Euskal Herrian eta Espainian eraikuntza bertikala egiten da, batik bat. Hemen ere egin daiteke bestelako eraikuntza mota bat?

Jakina baietz; leku bakoitzean bere ezaugarriak izango ditu, klimarengatik eta orografiarengatik, baina energia-ekoizpen teknologia eta gizarte-komunikazio teknologia berriekin, beste gai batzuetan moduan kontzientzia hartzen doan neurrian, espazio osasuntsuak, iraunkorak, ingurumen-inpaktu txikiagoarekin eta giza eskalan egindakoak eskatuko ditu gizarteak.

"Ekoherriak giza eskalan eginda daude eta ingurua errespetatzen dute"

"European 2.000 ekoherri daude, eta mugimendua osasuntsu dago"

"Ekoherriarekin konprometitzen den edozein bizi daiteke bertan"

ZABALIK

XABIER MUGARZA
goiena.net/komunitatea/



Zero zabor

Oñati zikiña dau. Edo nik, behintzat, zikiña nabari dot. Ez da atez atekuan ondorixo, nahiz eta kubo jasotze diziplinan ondiok zer hobetu badauen. Lurrak, paretak, lorategiak, farolak... txerrikixak emuten daue. Pape-rak, plastiko poltsak, kartelak, pintadak, pegatiñak... edozer topau leike botata edota pegauta Oñatiko hainbat gunetan. Nola leike atez atekuan aldekuak izan eta beste hainbat esparrutan horren zikiñak izatia? Garbixak gara edo garbixak izatera bihar-ktan gaue? Hezkuntza bidez, eredu izanaz, lortu al leike herri garbi bat? Edo manu militari ibili bihar al gara gizakixa zibikua izan dadin? Nik siñistu nahi dot kapaz gariela lehenengo bidetik gauzak zuzenketako; hala be, eta ondorengua tris-turaz diñot, zalantza asko dakot.

Edozein astelehen goizetan plazako lurra zaborrez beteta egon ohi dala, edota Dukianeko lorategixan be zabor ugari aurki leikela argi ikusten da. Gure herriko paretak be zaborrez beteta dauz. Pintadak nonahi dittu-gu herrixan. Artistikuak? Irudimenez aberatsak gutxi batzuk, baiña hobe litzake irudimen hori zero zabor esparrutan aplikauko baleue (prentsa idatzi, Interneteko blog, etab.).

Udaletxiak, irizpide onez, adierazpen guniak ezarri eben, eta euran funtzioa bete izan daue. Baiña batzuk arazuak dakoi gune honekin; espazio falta? Inposizio gura ez? Arrazoiak arrazoi, paretak paperez jositta.

Azken fiñian, herrixa zikin egotia errespetu faltaren seiñale da. Erraza biharko leke haur eta helduak zabor guzti honeik sortzea ekiditeko bihar bezala heztia. Lehen urratsa biharko leke herri garbixau bat izateko bidian. Nik, Oñatiko herritar eta bi haurren gurasa naizen aldetik, gai honetan lan egiten jarraituko doten konpromisua plazaratzen dot. Era berian, Udaletxi-ari eskatuko notzake herrixa garbi mantentzeko egin biharreko guztixa egittia, zaborra zelakua dan edo zeñek sortzen dauen begiratu barik. Aldez aurretik, milla esker.

USTEAK USTE

JULEN IRIONDO | jiriondo@goiena.com

Nork egiten du tranpa?

Lehen lerroko politikari batek berriki esana da: "Espero dugu Eusko Jaurlaritza ez erortzea Kataluniako gobernu-erori den tranpa berean: herri mugimenduek gaina hartu diete han". Batek baino gehiagok ahaztu egiten du oraindik herritarrek hala nahi izan dutelako daudela gobernuetan gobernuetan daudenak, ez berezko indar zerutiar baten ondorioz, ez direla aparteko kasta bat. Nola esan daiteke tranpan erori dela gobernu bat, urte bateko Diadan bi milioi lagunek kalera irtenda eta hurrengoan 400 kilometroko giza katea eginda? Erabakitze eskubideari dagokionez, egin dezakegun indarrak gu geu jabetu, eta erakutsi dezagun noren esku dagoen.

KALE INKESTA

Zer iritzi daukazu fracking teknikari buruz?



ANA
ARANTZABAL
ARRASATE

"Gasa ateratzeko sistema bat dela badakit, baina ez dakit ondo zertan datzan. Informazio gehiago beharko nuke iritzi landu bat emateko".



ARANTZA
HORRILLO
ARRASATE

"Ez dakit askorik gai horri buruz. Hala ere, hasiera baten, toxikoa den guztiaren kontra nago, herria eta inguruak kalte ditzakeelako".



MIKEL
URANGA
ARRASATE

"Zerbait entzun dut frackingari buruz, baina ez dakit ondo zer den. Toxikoa izan daitekeela diote, baina ez dakit nola eragiten duen inguruan".



BELEN
AGIRRE
ARRASATE

"Hasiera baten, daukadan informazioarekin, kontra nago. Ni, gainera, Aramaion bizi naiz eta ez nuke inguruan horrelakorik izan nahi".

HANDIK ETA HEMENDIK

Oraingoan baietz bazkidetu!

Inazio Arregi
blogak.goiena.net/margola/

Ia hamabost egun bete dira Oñatiko Ganbara Abesbatzak Ejea de los Caballerosen ospatutako finalean *Gran Premio Nacional de Canto Coral* delakoa irabazi zuenetik.

[...] Abesbatzaren osaera erabat aldatu da urte hauetan. Gutxi dira hasieratik jarraitzen dutenak. Hasierako kideak utziaz joan ziren neurrian gazte berriak sartu dira. Orduan eta orain, lehiaketak izan dira bere jardueraren ardatza denbora honetan guztian. Lehiaketak erronkak dira, lan asko eskatzen dute, amaiera gabeko entseguak, eta batzuetan ondo egindako lanaren saria lortzen da. Diru apur bat ere bai beste proiektu batzuei aurre egiteko. Beharrezkoagoa krisi hotsak aitzakia hartuta instituzioek kulturari eskaintako diru-laguntzak murriztu dituzten sasoi honetan. Bide beretik jarraitzeko asmoa dutenez, Alacanten dute hurrengo mugarria uztailean. Betiko ohiturekin apurtzea zaila dirudi.

Lehiaketetan parte hartzea garrantzitsua izan daiteke baina Ganbarak beste erronka batzuei aurre egiteko gaitasuna eta kalitatea daukala iruditzen zait. Lehenago ere erakutsita dauka. Aurten *Carmina Burana* omen dute begiz jota. Ez bedi horretan geratu. Horrelako gehiago entzun nahi nizkioke. Horretarako baina dirua beharko da: orkestrak kontratatu, bakarlariak ordaindu, bidaiak... eta hori guztia ordaintzeko sarietako dirua falta.

Bideak eta aukerak zabaltzeko injekzio ekonomikoa ezinbestekoa da: Instituzioena, enpresena, pertsonena. Donostiako Orfeoiko webgunean sartzen bazara, gutxienez 56 enpresa eta instituzio ditu lagun pertsona aparte. Eta gainera bultzada mediatiko indartsu bat.

Aspalditik nago bazkide egitekotan (Ganbararena ez Orfeoia), baina bazkidetza-orria beteta izanagatik ez dut oraindik lortu arduradunen baten esku uztea. Orain, Internetez egiten saiatu naiz baina inprimakia ezin zabaldu. [...]

Ea oraingoan bazkide egitea lortzen dudun. Eta zu? Zeri begira zaude bazkide egiteko?

Pronostikoa

Anjel Lertxundi Esnal
berria.info/blogak/lertxundi/

Aste Santuko oporretan, Badajoz aldean nembilela, Zumaian hiruzpalau urtez lan egindako extremadurar bat ezagutu nuen. Pilotazale amorratua, ez du partida bat galtzen Nitro kateari esker. Finalaz hasi zitzaidan. Barriolaren seriotasunak Irujoren zoroa baretzen bazuen, irabazle jotzen zituela, ganorazko partida ikusiko genuela. Nire erantzun epelek berehala salatu zioten nire ezagutza tristea, ez naizela bereziki pilotazalea. Buruari eragin zion. Ez du ulertzen euskaldun askoren pilotarenganako estimu urria. Finaletan bai, finaletan denok jartzen omen gara pantailaren aurrean. Konparazio politiko bat egin zidan: "Pilota eta Europa, berdintsu zuentzat. Pilotazaleak omen zarete, Europa zaleak ere bai, baina finaletan bakarrik akordatzen zarete pilotarekin, hauteskundeetan Europarekin".

Zintzo-zintzo ikusi nuen finala. Oporretan ezagututako lagunaren pronostikoa nagusitu zen bete-betean. Laster, Europako partida.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Altor Izagire
Zuzendaria Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Xabier Urtzelai
Maketaria Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezburu, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Cordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Debagoiena zuzenean

Gertuko kontuak, bertatik bertara
Txomin Madinak gidatuta eta aurkeztuta

► Egunero, 20:00, 21:00, 22:30 eta 23:50

debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean



HERRIAK



Ardiak ura edaten Mailako askan joan den udan. | O.E.

Aloñako larreak ere zabalik daude abereendako

- ▶ Ia 4.000 abelburu larreratuko dituzte Aloñan Oñatiko abeltzainek
- ▶ Artia eta Txirikilalekura ere eramango dituzte abereak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Maiatzaren leian zabaldu zituzten Oñatiko mendietako larreak herriko abeltzainek euren animaliak larreratzeko. Orain, abeltzain bakoitzak erabakiko du noiz igo ganaduak mendira.

Gehienak, ardiak

Herri onurarako lau mendi ditu Oñatik: Aloña, Artia, Txirikilaleku eta Iturrigorri. Laurak zabaldu dira maiatzaren leian, Euskal Herriko gainerako larre gehienak bezala. Ganadua, baina, lehen hiru mendietako larreetara eramango dituzte, batez ere, herriko abeltzainek.

Aloñako zelaiak izango dira abelburu gehien jasoko dituztenak eta edozein larreetara igoko dituzten animalien artean, ardiak izango dira gehienak. "E-registro gehienak Aloñarako izaten dira. Larreratzeko lursail handienak era han daude; 700 hektarea, hain zuzen ere. Hala, Aloñan, 3.000 ardi inguru egongo dira, 200 bat behi eta 400 behor inguru. Artia-Txirikilalekun, aldiz, 300 bat ardi, 40 behi eta 100 behor pasatxo", dio

Aitor Gerenabarrenak, landa garapeneko udal teknikariak.

Baldintzak

Herriko onurarako mendien eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiarena eta Oñatiko Udalak du horiek kudeatzeko ahalmena. Hala, elkarlanean adosten dute euren erabilera, Aloñako Abereen Elkartearekin, Aloabel, batera.

Abereak mendiko larretara igotzeko, baina, abeltzainek abelburuen kopurua erregistratu behar izaten dute urtero udalean. "Horrez gain, ez dago bestelako baldintzarik animaliak gora igotzeko. Ardien kasuan, hala ere, artaldeak hazteria edo sarnaren kontrako tratamendua hartu duela ziurtatzen duen agiria aurkeztu arte udalak ez du larreratzeko baimenik ematen", argitu du Gerenabarrenak. Behor eta behien kasuan, abere bakoitzaren zenbakia zehazten dute, izan ere animalia horiek ondo indentifikatuta egoteko, bakoitzak bere lepokoa eraman beharko du.

Hazteraren kontrako tratamendua albatariak jartzen die

ardiei, bakuna bidez, eta hark ematen die gero ziurtagiria abeltzainei, udalean entregatzeko. Abendurako egin behar izaten dute, urteko azken eguna izaten da-eta, normalean, udaberritik aurrera goiko mendietako larree-

tara igo gura dituzten abereak erregistratzeko azken eguna.

Ilea mozten

Abereak gora igotzeko prestatzen ari dira orain abeltzainak. Ardien kasuan, esaterako, ilea moztuta,

Ardiei ilea mozteko sasoia

Mendiko larreetara igo aurretik ilea mozten diete ardiei, goian berorik ez izateko. Horretantxe ibili dira egun hauetan Urriagainen, esaterako. Ilea ez ezik azkazalak ere moztu dizkiete ardiei. Ilea harrotuta duten ardiei mozten diete errazen. Bustita dutenei mozteak zailagoa izaten da, baita bildotsa hazteko dutenei ere, ilea pegatuta izaten dute-eta.

Ardiei kendutako ilea saldu egiten dute, artilezko produktuak egiteko.



Ardiak eskilatzen Urriagainen eguazten arratsaldean. | IRATI GOITIA

DATUA

4

HERRI ONURARAKO MENDI

Herri onurarako lau mendi ditu Oñatik: Aloña, Artia, Txirikilaleku eta Iturrigorri.

eskilatuta, igotzen dituzte gehienek, beroari aurre egiteko. Eta horretantxe ari dira artaldeak dituzten herriko abeltzain asko. Tartean, Urriagaineakoak,

Joan den eguazten arratsaldea, esaterako, lan horretantxe pasa zuen hango seme Iñaki Igartuak. "Ilearekin batera azkazalak ere mozten dizkiegu, bide batez. Apirilaren bukaeran edo maiatzaren hasieran hasten gara. Lasai hartzen dugun lana da hau eta ez ditugu ardi asko batera eskilatzen", azaldu du.

Iñaki Igartuak txikitatik ezaugu ditu ardiak etxean eta ilea mozteko teknika ezberdinak erabili ditu: "Gogoan dut lehen gurazekin egiten genuela. Ez nuen askotan egin, aspaldi erosi genuen makina. Egia da gurazekin txukunagoak gelditzen direla, kanpotik mozten zaielako ilea horrela. Makinarekin barruragotik mozten zaie eta ez dira hain kurioso gelditzen, akaso, baina ilea mozteko modu errazagoa eta azkarragoa ere bada. Lepotik hasten gara mozten, tripa azpira iristen gara gero eta behin hori eginda, lau hankak lotu eta goiko aldean duten ilea mozten diegu".

Ardiei kendutako ilea saldu egiten dute gero. "Lehen oso estimatua zen eta asko ordaintzen zuten. Argentinan, esaterako, oke-lagatik edo esneagatik baino, ileagatik hazten zituzten askok ardiak. Gaur egun ez du ezer balio, oso gutxi ordaintzen dute, baina saldu egiten dugu guk. Artilezko produktuak egiten dituzte ile horrekin".



01.



02.



03.

04.



08.

BERGARA

Glamour eta estiloz beteriko alfonbra gorrian modarik onena

Zapatu arratsaldean, herriko moda kalera aterata kolorez eta dizdiraz jantzi zen San Martin plaza

MAIDER ARREGI | BERGARA

Bergararrak Debagoieneko dotorenak direla garbi geratu da beste behin. Moda gustuko dute. Horren isla San Martin plazako zapatu arratsaldeko irudia. Ia 700 lagun eserita, eta beste asko zutik ikusi genituen modeloak animatzen. Moda desfileak arreta piztu zuen herrian; izan ere, Bergarako modeloak eta komertzioak ziren protagonista.

Lan askoren ostean, arrakastaz egin zuten desfilea Bergara Biziren eskutik. Leire Iruin Udal zinegotzia eta antolatzaileak gustura azaldu ziren egindako lanagatik: "Garrantzitsua da herriko komertzioa bultzatzea, herrian erostea denondako da ona eta horren jabe izan behar dugu. Horrenbeste lan eta esfortzuren ostean, primeran irten da dena", azaldu digu Iruinek.

Udaberrirako eta udarako soinekoak, ezkontza batean gonbidatu ederrena izateko aukera zabalena, mendirako ekipamendu osatuena, eguzkitako betaurreko modernoak edota orrazkera ausartenak ikusgai izan ziren Bergarako alfonbra gorrian.

MIKEL MENGUAL
MODELOA

"Esperientzia bikaina"

"Lehenengo aldia da moda desfilean parte hartzen dudana; esperientzia oso polita eta bikaina izan da niretzako. Mutilezkoa



behar zuten eta mutil bakarra izan naiz Jean Luis David ile apaindegiko orrazkerarekin desfilezera animatu dena. Nerbioak kontrolatzea kosta egin zait hasieran, baina dena ondo atera da".

MADDI IÑARRA ETA
PATRIZIA GONZALEZ
MODELOAK

"Urduri baina disfrutatuz"

"Bi bider irten gara desfilezera. Urduri jarri gara lehen aldian; Jendearen txaloak entzun ere ez ditugu egin, pentsa! Bigarrenean lasaiago geunden, behin izotza puskatuta, disfrutatu dugu".

JABI LAZKANO
MODELOA

"Eroso desfileatu dut"

"Alfonbra gorrian desfileatzen dudana bigarren aldia da, badut esperientzia. Ez naiz urduri jarri. Mendiko arroparekin desfileatu dut gustura. Mendizalea naiz eta eroso sentitu naiz".

ENEKO PRAT
MODELOA

"Moda oso gustuko dut"

"Niri moda asko gustatzen zait,



Argazki lehiaketa

Desfilean ateratako argazkiekin lehiaketa antolatu da. Sare sozialak erabilia egingo den argazki lehiaketa izango da.

Lehiaketa honek bi irabazle izango ditu: argazki onenari saria (150 euroko erosketa bonua herriko dendetan gastatzeko) eta bozkatzailen artean egingo den zozketa (50 euroko erosketa bonua).

Parte hartzeko: Twitter eta Instagram sareetan #BergaraBizi traola erabilia maiatzaren 10a eta 12a (13:00ak arte) bitartean igotako argazki guztiak sartuko dira lehiaketan.

Argazki onena modu honetan aukeratu da: Argazki hauek guztiak Bergara Bizi-ren blogera (<http://blogak.goiena.net/bergarabizi/>) jasoko dira eta bertan herritarrek bozkatzeko aukera izango dute maiatzaren 16ra, egubakoitzera arte. Eta botua ematen dutenen artean, zozketa bidez aukeratu da irabazlea.

gogoko dut. Alfonbra gorrian desfileatzen baina, lehen aldia izan da niretzako. Oso gustura aritu naiz eta gusturago jaso ditut herritarren animoak eta txalo zaparradak. Primeran pasatu dut! Aurten ze moda eramango den? Ba tonu pastelak eta Pop Art estiloa. Hau da, estanpatu ezberdin ugari nahasita eramango dira nagusiki txaketa edota alkandoratan. Betaurrekoak gainera, ezinbesteko osagarriak bilakatu dira. Borobil formakoak daude moda-modan. Nik Eibarren dena batean egiten dut lan eta moda gertutik jarraitzen dut".

NERE AMAIA ALBERDI
HERRITARRA

"Oso ondo ikusi dugu alaba modelo lanetan"

"Egia da herritarrek lan zoragarria egin dutela. Alaba irten da desfilezera eta lehenengo ilaratik ikusi dugu. Oso ondo moldatu da gure alaba. Moda tendentzia ez dut askorik jarraitzen baina denaren batera sartuko gara".

PATRIZIA URRUTIA
HERRITARRA

"Sekulako lana egin dute"

"Bergaran badago non erosi, argi geratu



da desfilean; oso gustura ikusi dugu gainera. Azken tendentziak ikusiz primeran egon gara. Bergararroi ondo, dotore jantzita joatea gustatzen zaigu. Hala esaten dute ezta? Udara parterako pare bat soineko ikusi ditut eta pasako naiz dendatik. Erakusleho ederra da eta hurrengo urtetarako antolatzaileak animatu gura ditut horrelako desfile bat berriro antolatu dezaten".

KONTXI MENDIA
HERRITARRA

"Herritarrek primeran egin dituzte modelo lanak"

"Oso polita izan da; jende asko batu gara gainera plazan. Herritarrek primeran egin dituzte modelo lanak alfonbra gorriaren gainean. Askotariko modeloak egon dira gainera: altuak, baxuak, argalak, gizenak... Arropa estiloa ere adin tarte zabal bati bideratua egon da, gustu guztiak asetzeko. Ezkontza daukagu eta alabarendako soineko aproposa ere ikusi dut. Herriko dendetara lasaiago sartzeko asmoa ere badauk".



Argazki gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.





1. Modeloei makina bat argazki atera zizkieten.
2. *Fluor* kolorea aurten ere gogor dator.
3. Pamelak eta txapelak hondartzan aproposak eguzkiari aurre egiteko.
4. Kristal handia eta aurpegia estaltzen duten betaurrekoak moda modan jarraitzen dute.
5. Illeordearekin egindako orrazkera deigarriak izan dira nagusi desfilean.
6. Txikiendako modarik dibertigarriena.
7. Adin guztietako herritarak dotore eta gogotsu desfilatatu dute alfonbra gorriaren gainean.
8. Bergara Bizi eta herriko komertzioen lana txalotu zuten desfilearen bukaeran.
9. Praka motzak neskendako udarako derrigorrezkoak bilakatu dira.
10. Eroso eta dotore joatea posible da.
11. Plataforma handidun oinetakoak indartsu datoz soineko luzeekin janzteko.
12. Orrazkera modernoak eta koloretsuak ausartenendako.

ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

ALMACENES ARRASATE

MERKATUKO MARKARIK ONENAK. Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

 <p>BERME 2 URTE</p> <p>1000 b/min 6 Kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>3TS-853 GARBIGAILUA</p> <p>265 € </p>	 <p>BERME 2 URTE</p> <p>1000 b/min 7 Kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>GC-1071D1 GARBIGAILUA</p> <p>299 € </p>	 <p>BERME 2 URTE</p> <p>1200 b/min 7 Kg</p> <p>A++ Saikapen energetikoa</p> <p>EWP-1272 TDW GARBIGAILUA</p> <p>340 € </p>	 <p>BERME 2 URTE</p> <p>1200 b/min 8 Kg</p> <p>A+++ Saikapen energetikoa</p> <p>DYN-8124 GARBIGAILUA</p> <p>375 € </p>	 <p>BERME 2 URTE</p> <p>1200 b/min 8 Kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>L-62280 GARBIGAILUA</p> <p>399 € </p>
 <p>BERME 2 URTE</p> <p>142 x 55 x 57</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>CFD-2460 HOZKAILUA</p> <p>299 € </p>	 <p>BERME 2 URTE</p> <p>171 x 60 x 60</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>3KF-6400 HOZKAILUA</p> <p>375 € </p>	 <p>BERME 2 URTE</p> <p>139 x 60 x 60</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>WVE-1410 IZOZKAILUA</p> <p>485 € </p>	 <p>BERME 2 URTE</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>SMS-41D08EV HONTZI GARBIGAILUA</p> <p>440 € </p>	 <p>BERME 2 URTE</p> <p>HK-633220FD INDUKZIO PLAKA</p> <p>415 € </p>

Europar Batasunaren arategiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A+ >>> 70%
A >> 45%
B >> 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3an.

Eskaintza baliagarria akats tipografikorik ez dagoen neurrian.



Askotariko izaerako emakumeak ikusi genituen korrika Takarraran lasterketan. | XABIER URZELAI

ARRASATE

Berdinatsunaren alde seigarrenez korrika

80 parte-hartzaile inguruk Arrasateko kaleak hartu zituzten Takarraran emakumeen aldeko lasterketan

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Urtetik urtera, goraka doa emakumeen parte-hartzea Takarraran lasterketan. Zapatu eguerdian, ia 80 parte-hartzailek Arrasateko erdigunean giro ezin hobea jarri zuten. Emakumeen berdintasunaren alde korrika, 14 urtetik 73 urtera bitarteko emakumeak ikusi genituen seigarrenez. Hala, balorazio guztiz positiboa egin

zigun Iratxe Aranburu Kirol teknikariak: "Izate ezberdina duten emakumeak elkartu gara: ama direnak, lagun artean etorritakoak... lasterketetan ez dagoen perfila da eta erronka handia da guretzako. Autoestimua igotzea eta kirola egitera animatzea da helburua. Bizi kalitatea hobetzeko kirola egitea alegia; ikusle asko gainera, indentifikatuta

sentitzen da eta korrika egiten hasten da". Emakume kirolarien presentzia kalean ikustea dela helburua azaldu zigun Mainer Morras Udal zinegotziak. "Bigarren mailako gizakia gara eta dirua eta baliabide gehienak gizonezkoen kirolean inbertitzen dira oraindik. Lasterketa honen helburua hain justu, kirolean berdintasuna aldarrikatzea da".



Canas, Velasco eta Gonzalez podiuma osatuz. | X.U.



3 bider igaro ziren Portaloitik lasterkariak. | X.U.

ARETXABAETA

Giro bikaina emakumeen lehen bertso bazkarian

Adin tarte ezberdinetako emakumeak batu ziren Urbaltz elkartean zapatu eguerdian

MAIDER ARREGI | ARETXABAETA

Giro paregabea ospatu dute lehenengoz Emakumeen Bertso Bazkaria Aretxabaletan. Koadrila ezberdinetako lagunak artetik sortutako ideiak arrera polita izan duela kontatu digute bertan izandakoek.

Urbaltz elkartean, 26 bat lagun batu ziren bazkaltzeko asmoz. Aurretik baina, Mitarte plazatik abiatu ziren txikiteoa egiteko. "Oso gustura ibili gara elkarrekin solasean eta poteoan, umoretsu ibili gara", kontatu digute. Umorea baina, bazkal-

tzeko garaian nagusi izan zuten. Izan ere, bertsolariak berehala murgildu ziren festa girora. "Sukaldariarekin hasi eta bazkaltzera joandako denondako bertsoak egon dira; sekulako umorea eta giroa izan dugu. Barre algarra edarrak izan dira nagusi", nabarmendu digute.

Gai librean bota zituzten bertsoak. Ondoren, argazki batzuei eta bi objektuari.

Adin tarte ezberdinetako emakumeak, elkarrekin, batzeko aitzakia ederra izan dela azpimarratu digute.



26 lagun inguru batu ziren Urbaltzen zapatu eguerdian. | IMANOL SORIANO

BERGARA

'Dantzaz' ikuskizunaz gozatu dute txikitxoek

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazok dantzan jarri zuten atzo Bergarako pilotalekua. Aspaldi gurera etorri gabe zeuden eta oraingoan Dantzaz konpainiak lagunduta etorri dira. Inor ez da eserita geratu: kalejira, arin arina, aulki-dantza... Abesteaz gain, dantza egiteko aukera ere izan zuten gaztetxoek eta gurasoek.



JOSETXO ARANTZABAL

ONATI

Beste behin, San Migel Txiki jaiek jendetza eroan dute Kale Zaharrera

- ▶ Pizza postua eta tailerra izan dira berrikuntzetako batzuk, eta erantzun ona izan dute
- ▶ Dena San Anton plazan pilatu beharrean, auzoko hainbat tokitara zabaldu dira ekitaldiak



Zorteak erabaki zuen bertsolariek zein gairen inguruan kantatu. | MIREN ARREGI



Pizza tailerrak arrakasta handia lortu zuen txikiaren artean. | M.A.



Atzo egin zuten auzokoek bazkaria. | M.A.

TXOMIN MADINA | ONATI

Oñatiko Kale Zaharreko San Migel Txiki jaiek, beste behin, jende asko erakarri dute asteburuan.

Ostiralean hasi ziren jaiak, etxafuego jaurtiketarekin eta gazta eta ardo dastatzearekin. Erraldoi eta buruhandiek eta Trikitxararak berotu zituzten lehen orduak, eta gauean, Gela Berezia, Ixilik eta Malenkonia herriko taldeek kontzertua eskaini zuten. Aurtengo berrikuntzetako bat egubakoitzean ikusi ahal izan zen, aurreko urteetan bezala, kebab postuaren partez, pizza postua jarri dute-eta, arrakastua izan den aldaketa.

Zapatuan pizza tailerra eta marrazki lehiaketa egin zituzten goizean umeendako; eta Esaera Zaharren II. Txapelketa ere egon zen: Tzatziki taldeak irabazi zuen. Jaiak auzoko hainbat lekutara zabaltzeko asmoz artisauen azoka Txaketua taberna aurrean jarri zuten, Behi Bi Bluesen kontzertua Aker parean eta Potx eta Motxen saioa, Kanpantxon.

Auzokoen bazkaria, Gure Esku Dago ekimenaren bideoklip grabaketa eta Maialen Lujanbio eta Amets Arzallusen bertso saioa izan ziren atzo ekitaldi aipagarriak.

ARRASATE

Hirugarren Munduarekiko kontzientziazioa eta giro ona uztartu zituen zapatuan Elkartasun Egunak

Harremanek antolatuta, lau GKEk hartu zuten parten aurten XVI. edizioa bete duen ekimenean



Bigarren eskuko liburuak erosi zitezkeen postuetako baten. | T.M.



Arrasate Musikalekoek girotu zuten eguerdi parte. | T.M.

T.M. | ARRASATE

Herritarrak Hirugarren Munduarekin sentsibilizatu eta herrialde horietan lan egiten duten erakundeei laguntzeko, XVI. Elkartasuna Eguna egin zuten zapatuan Arrasaten Harreman GKEak antolatuta.

Lau GKEk jarri zituzten postuak. Mundu Solidarioa Helburu erakundeak, esaterako, bigarren eskuko arropa, liburu eta jostailuekin jarri zuen postua, eta Serso San Viatorrek, Peruko eta Indiako bitxiekin. Ibai Artarekin elkarlanean, Harremanek tonbola jarri zuten beste behin: 3.500 txartel inguru saldu ziren, eta zozketatutako Kantabriarako bidaia 1.156 zenbakia irabazi zuten, eta ordezkoa, 1.440 zenbakia. Bidezko Merkataritzako produktuek ere euren lekua izan zuten.

Askotariko ekintzak

Umeendako puzgarriak, Arrasate Musikalen emanaldiek, Ikusi Makusi taldearen antzerkiak eta euriaren ondorioz postuetako karpetan egin zuten Herrixa Dantzaren saioak girotu zuten Elkartasun Eguna.

Eguenetik domekara arte, San Isidro jaiek hartuko dute Musakolako 'herria'

EH Sukarrak egubakoitzean; zapatuko herri bazkarirako txartelak salgai daude Ziorla, Meneta eta Txinaton

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Ate joka ditugu dagoeneko Musakolako San Isidro jaiek. Urtero moduan, astoaren gidaritzapean eta umorerik onenean ospatuko dituzte festak musakolarrek. Aurtun ere ziur egongo dela euren herri izaera aldarrikatzeko keinuek bat. Egitarauari atzo eman zitzaion hasiera Musakolako BTT irteeraren zazpigarren edizioarekin, baina benetako festa giroa eguenetik domekara bitartean igarriko da Zigarrolan.



Ume bat San Isidrotako ikurra den astoa ukitzen, iazko jaietan. | IMANOL SORIANO

Ekintzez lepo asteburu osoa
San Isidro egunean, hilak 15, meza nagusia izango da (11:30) eta ondoren abesbatza eta herritarrendako luntxa egongo da San Isidro elkartearen. Gero, baseritarrek euren zaindariaren omenezko bazkaria egingo dute (14:00). Egubakoitzea, hilak 16, Erretiratuen Eguna izango da. 10:00etan hasiko dira jaiak ofizialki eta hortik aurrera egun osoan egongo da zertaz gozatu: Arizmendiko haurren danborrada (11:30), erretiratuendako mus txapelketa (17:00), Ikurrina igotzea alkatetzan-orduan jantziko dituzte zapiak eta txapela- (19:00), erretiratuendako afaria Al-Andalus elkartearen (19:30), bolo

txapelketa (22:00) eta RPL zein EH Sukarrak taldeen kontzertuak San Antolin plazan (23:00).
Zapatukoa izango da egun handia, Koadrilen Eguna. Hona ekintza aipagarrienak: gaiteroen kalejira (11:00), puzgarriak eta umeendako jaiak San Antolin plazan (12:00), Urrezko Astakiloaren banaketa (13:30), herri bazkaria San Isidro eliza ondoan (15:00) -txartelak salgai daude Ziorla, Meneta eta Txinato tabernetan-, eta DJ Amaiaeren eta Kaixo taldearen emanaldiak San Antolin plazan (23:00). Domekan, besteak

beste, Ekinen pintxo dastatzea eta Arrasate Musikalen bandaren kontzertua izango dira San Antolinen, 13:00etatik aurrera.
Amaitzeko, azken traka, sukro erruberak eta "sorpresa ikusgarriak" izango dira, 22:30ean.

Besaideko beteranoen urteroko mendi martxa, ekainaren 7an

J.B. | ARRASATE
Besaide Mendizale Elkartek urtero antolatzen duen beteranoen mendi irteera ekainaren 7an egingo da aurtun. Izena emateko aukera egongo da maiatzaren 19an, 20an, 21ean, 26an, 27an eta 28an Besaide elkartearen egoitzan (19:00-20:00). Azken eguna da ekainaren 2a.

Nafarroa aldera
Aurtengo mendi martxa Nafarroa aldean egingo dute. Ekainaren 7an 07:00etan irtengo dira Garibai geltokitik eta honakoa izango da egingo duten ibilbidea: Ganuza (600 metro), Santiago basiliza eta Ganuza mendatea,

Lokiz (1.114 metro) eta Galdeano (560 metro). Mendi bueltaren ostean Ventas de Larrionen bazkalduko dute.

Prezio ezberdinak izango ditu mendi martxak: Besaideko bazkide ez denak eta federatuta ez dagoenak 50 euro ordaindu beharko du, Besaide bazkide izan arren federatua ez denak 48 euro eta azkenik, Besaideko bazkide eta federatua denak 46 euro. Ordainketa honako kontu korrante zenbakian egin beharko da: 3035 0202 76 2021021758. Argibide gehiago gura duenak ohiko arduradunekin harremanetan jartzea proposatu du antolakuntzak.

Emakumea eta komunikazioa hizpide Emakume Txokoa

Emakume Sailak antolatuta, mahai-inguru interesgarria egongo da etzi, hilak 14, Emakume Txokoa: *Emakume komunikatzaileak eta emakumeak komunikabideetan*. Arantza Santesteban eta Idurre Eskisabel izango dira hizlariak, biak ere emakumearen arloan hainbat ekarpen egin dituztenak. Solasaldia 18:30ean hasiko da.

Gure Esku Dagok erakusleihoa irekiko du egunean, Ceciagan

Gure Esku Dago taldeak erakusleihoa bat jarriko du Ceciaga denda zenaren lekuan. Asmoa da egunean, hilak 15, irekitzea, 19:00ak aldera. Pintxo pote orduan egongo da zabalik. Helburua da ekimena ahalik eta arrasatear gehienengana heltzea, eta horretarako argazkiak, ikus-entzuzkoak eta informazio baliagarria jarriko dute bertan.

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress

1936ko Maiatzaren Bata: langillien azken jaixe, gerra aurretik

Mondraueko langilliek 1936ko Maiatzaren Lelenien egindeko manifestaziñue erakusten dau ondoko argazkixek. Portaloien dau atarata.

Otsailien Frente Popularrak agintie hartu euen eta julixuen gobernu horren kontra altxau zien militarrek: Españaiko gerrie hasi zan orduen. Hortan, hurrengo urtietan, mondrauetarrek ezin izen euen jaixe biher dan moduen zelebrau.

Gerra aurreko azken ospakizunien festa-girue igerten da: aurretik, musika-bandie; haren ostien, manifestarixek elegante jantzitze, korbata eta guzti; eta, oso ondo ikusten ez bada be, emuten dau banderadunek UGT sindikatuen ikurre daroiela.

Lanbide Eskolie martxan
1989ko urtarril aldera zabaldu zan Lanbide Eskolie, eskualdien lan barik euzen gaztiei lan bat erakusteko asmuekin.

Instituziño publikuen, Udal Elkartien eta INEMen babespeien jaixo zan; eskolie martxan jarteko, Mankomunidadie Hezibide elkartiekin jarri zan hartu-emunetan, eta eskolie aurrera atarateko personie kontratau euen: Sabin Martiartu irekiasle.

Bost lanbide ikesteko aukerie euen: iturgin, arotz, igeltsero, instaladore elektriko eta mintegi eta basuetako langille. Eraikuntzagan lotuteko lanbidiek zien, arlo horretan ez euen-eta irakaskuntza profesionalik.

70 ikasle ebizten orduen eskolan, eta lelengo sei hillebetietan INEMek 565 pezeta pagetan eutzen bakotxai; handik aurrera, Udal Elkartiek kontratau biher zittuen.

20. zenbakia 1989-04-29



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE



Europa

Dagoeneko ia inor konturatu gabe, maiatzaren 25ean, Europako legebiltzarreko hauteskundeak ditugu. Beti marmarra berdinean gabilta: ezertarako ez dutela balio, zaharkitutako eta partiduen barnean oztupo bihurtzen diren politikako gizon emakumeentzako kabi gozoa ordaintzeko aukera besterik ez dela, urrutiegi gelditzen zaigula, gu bezalako herri txikien kontra antolatuta daudela...

Ni nago, Europako Batasunaren indarra guregan geroago eta handiagoa dela. Bi adibide esanguratsu jarriko ditut: Parot doktrina desegiten duen agindua Europako tribunaletik etorri da. Honen ondorio zorion-

tsuak gure herrietan ezagutu ditugu. Bigarrena, alokairuzko etxeetan bizi diren maizterrak botatzeko Espainian indarrean zegoen legea ere, bertan behera utzi dute.

Gai potoloak dira bi horiek eta adibide gehiago badaude. Europako agintea jogurten iraungitze epealdiaz baino haratago doa.

Jakina da, oraindik orain, historia neurtzen duen lur eremu honek jarrera giza gabeak non-nahi aurkeztu dituela, baina mundu mailan gizatasunean eman diren aurrerapausoak ere, bere sorrera hemen izan dutela ere ukatzerik ez dago.

Europako Batasunean parte hartzeak kontinente mailan izan diren giza eskubideen defendatzaile sutsuenekin bat egiteko aukera ematen digu.

"Europako agintea jogurten iraungitze dataz harago doa"

Herriko leiho eta balkoiak apaintzeko ikastaroa

Azpeitiko kimu elkarteko kideek emango dute ikastaroa

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Eguaztenean, hilaren 14an, izango da, 18:30ean osoko bilkuren aretoan. Alderdi teorikoa eta praktikoa izango ditu, dohain izango da eta interesa duten guztiek parte hartu ahal izango dute. Azpeitiko Kimu bat elkarteko kideak arduratuko dira azalpenak emateaz.

Alderdi teorikoari dagokionez, landareen zainketa eta egin daitezkeen lorategi mota nagusiak eta balkoien baldintzatzaileak landuko dira, beste gauza batzuen artean. Alderdi praktikoa, berriz, landareendako ontzi motak, ureztaketa elementuak eta sustrato eta ongarrri ezberdinak ezagutzeko aukera egongo da. Alderdi praktikoa Oxirondo azokan egongo da.

Azoka eta lehiaketa ere bai

Azoka Bergaraten egitasmoaren baitan antolatu du Udalak ikastaro hori eta ez da ekintza isolatu bat izango; beste bi etorriko baitira horren ondotik. Maiatzaren 17an, lore eta landare azoka egongo da Oxirondo azokan. 09:30etik 14:00era izango da, eta Bergarako ekoizleenaz gain, kanpotik etorriko diren beste hainbatek ekarritako lore eta landareak ikusi eta erosteko aukera zabalago egongo da.

Horrekin batera, 11:30etik 14:00etara, umeen gozamenerako,



Herriko balkoi bat lorez apainduta. | MONIKA BELASTEGI

tailerra eskainiko du Jardun euskara elkarteak.

Leiho eta balkoiak apaintzeko lehiaketa ere antolatu dute. Lehenengoz egongo da lehiaketa hori gurean eta bere izenak dioen bezala, lore eta landarez jantzi-tako leiho eta balkoirik apainenak

sarrituko dira. Bi sari egongo dira: lehenak 400 euroko bonoa jasoko du herriko dendetan gastatzeko; bigarrenak, 200 eurokoa.

Lehiaketan parte hartzeko izena eman beharko da maiatzaren 14tik ekainaren 16ra bitartean, kultura etxean.

OHARRAK

1949AN JAIOTAKOEN KINTADA

Maiatzaren 24an bazkaria egongo dute Tartufon. Horretarako, 14:00etan Oxirondoko autobus geltokian batuko dira bertatik, herribusean jatetxera joateko. Joan nahi duenak 30 euro sartu beharko ditu Laboral Kutxako ES16 3035 000911 0090092839 kontuan hilaren 22a baino lehen.

Zumarraga eta inguruko meategiak ezagutzeko ibilaldia

San Joxepekoak, hilaren 20an, Zumarraga, Ormaiztegi eta Liernira mendi irteera egongo dute. Besteak beste, meategietako Mutiloa-Ormaiztegi burdinbidea ezagutzeko dute. Autobusa goizeko 8:15etan irtengo da geltokitik eta Lierniko Mujika jatxean egongo dute bazkaria. Izena emateko epea 15ean amaituko da.



BERGARA SHOTOKAN TALDEA

Hirugarrenak Gasteizen

Shotokan taldeko kideak lehen aldiz lehiatu ziren Gasteizeko txapelketan, eta oso emaitza onarekin bueltatuko dira etxera. "Hirugarren postuarekin konformatu behar izan dugu, baina finalerako pasea, oso gertu izan genuen", adierazi dute klubetik. Bizkaia eta Arabako talde indartsuen kontra lehiatu ziren junior eta kadete maietako bost bergarar eta bi elgetarrek oso maila ona erakutsi zuten.

'Kotxea garajea' programak aurreikuspenak gainditu ditu

GOIATZA ARANA | BERGARA

700 herritar inguruk sartu dute autoa garajea, programan. Erdialdean eta Bolu auzoan izan du ekimenak arrakasta handiena. Hala egin dutenek garajearen kontribuzioan %75eko hobaria lortuko dute; abenduan ikuskatuko dituzte parte-hartze datuak.

TAO txartela dutenen artean jarraipena txikia izan da eta 20 pertsonak soilik hartu dute euren autoa garajea sartzeko konpromisoa.

Hobetu daiteke

Udalak positibotzat jo ditu programak lortutako lehen emaitzak eta, bereziki, parte-hartzaile

kopuruari dagokionean zifra esanguratsuak lortu direlakoan dago, aurreikuspenak gainditu baitira; izan ere, 400 atxikimendutan jarri baitzuen arrakastaren langa. Era berean, garaje-jabeek hartutako konpromisoarekin aurrera egin eta programarekiko atxikimendua nabarmendu dute Udaletik.

Programarekin aurrera egitea aurreikusten du Udalak, beste hiru urtez gutxienez, eta urtero egongo du parte-hartzearen balorazioa. Abenduan berriz irekiko da programan parte hartzeko deialdia, eta parte-hartzaile berriak lortzeko kanpaina berriz jarriko du martxan Udalak.

Oxirondo azokan txokolate-janak egiteko aukera egongo da

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Oxirondoko azokaren eraikinak eskaintzen dituen espazio aukerak aprobetxatzeko asmoz, aurrerantzean azokan ere egin ahalgo dira haurren urtebetetze ospakizunak.

Txokolate-janak astelehentik egubakoitzera egin ahal izango dira, 15:30etik 19:00etara, baserriarrak jarri ohi diren tokian. Ospakizunean parte hartzen dutenek espazio hori bakarrik erabiltzeko aukera izango dute, betiere, azoka eta erabiltzaileen jarduna eten gabe. Gehienez, 60 pertsonak hartu ahalgo dute parte, eta antola-

tzaileek zaintzaile lanak ere egin beharko dituzte.

Eskaria egiteko

Beren haurren txokolate-janak azokan antolatu nahi dituzten guraso eta tutoreek kultura etxean egin beharko dute eskaera, gutxienez, astebeteko aurrerapenez. Horretarako, eskaera orria bete eta 50 euroko fidantza ordaindu beharko da. Araudian aipatzen diren betebeharrak guztiak betetzen dituztenei fidantza itzuliko zaie.

Ospakizunaren egunean beste ekimenen bat badago, hark izango du lehentasuna.

NIRE USTEZ

ASIER ELORZA



Penalti izan zen?

Orain dela gutxi telebistari eman zuten notiziak batekin pentsakor geratu nintzen.

Atzerriko 1. mailako futbol partidu baten gertatutako jokaldi baten irudiak ziren. Arbitroak penaltia seinatu zuen. Penaltia jasan zuen jokalaria, lurretik jaiki zenean, ez zela izan aitortu zion arbitroari. Ondoren, beste taldeko jokalaria eskua eman zion eta partiduak lasai asko jarraitu zuen, penaltia bota gabe.

Txundituta geratu nintzen, nola da posible jokalaria horrela jokatzeko? Futboleko jolasten nuenean, beti erakutsi ziguten engainua jokoaren barruan dagoela, eta jokalaria

eta ikusle izan naizen urte guztietan, ez dut sekula horrelakorik ikusi.

Imajinatzen duzue horrelako jarreraren bat gure gizartearen? Zer esango zion entrenatzaileak? Eta taldekideek? Eta jarraitzaileek? Sakonago pentsatzen jarraitu nuen: Zeintzuk dira kirolak irakasten dizkigun baloreak? Gizartearen isla al da? edo alderantziz?.. Justua ez izan arren itxurak eginez etekina ateratzea ondo iruditzen zaigu?... Ontzat ematen dugu?

Behar bada, jokalaria honen taldea errez irabazten joango zen eta behar bada, bere jarrera ez zen berdina izango Mundial bateko finaleko partidua izan bazen. Baina zergatik ez dugu jarrera hau normalizatzen? Zergatik da notiziak? Pentsatzen jarraitzen dut...

"Engainua jokoaren parte zela erakutsi zidaten"



Umeak jolasean, 0-2 urte artekoendako egokitutako txokoa. | MIREN ARREGI

0-2 urte artekoendako txokoa zabalik, sotoan

Bestelako berrikuntzak ere badira; mikrouhin labea ipini dute eta jolas kooperatiboak ere erabilgarri daude

MIREN ARREGI | OÑATI

Itxura berria du gaztelekuko sotoak: izan ere, zero eta bi urte bitarteko umeendako txokoa egokitu dute. Dakizuen moduan, zero eta zazpi urte bitarteko neska-mutikoek erabili dezaketen espazioa da sotoa eta esan bezala, bi urtera artekoek euren gunea izango dute aurrerantz: "Adin tarte oso zabala da zero eta zazpi urte artekoa. Batzuetan nagusienek txikiak mintzen zituzten. Horri erantzun bat emateko pentsatu genuen txikiendako gunea

egokitzea" dio Jon Lopez gazteria teknikariak. Orain arte eskulanak egiteko erabiltzen zen gunea egokitu dute horretarako.

Mikrouhin labea

Bestelako berrikuntzarik ere bada gaztelekuko sotoan. Hain zuzen ere, gurasoek eskatuta, mikrouhin labea ipini dute eta ez hori bakarrik, jolas kooperatiboak egiteko aukera ere izango da: "Margoak, kartak, partxisa eta beste hainbat joko izango dituzte eskura. Guraso eta umeen arteko harremana

bultzatu gura dugu horrela" dio Lopezek.

Gurasoak arduradun

Bestetik, garrantzitsua da kontutan izatea sotoan ez dagoela begirale zerbitzurik. Gurasoak dira umeen arduradun eta beti egon beharko dute adin nagusiko batez lagunduta.

Gaztelekuko sotoa asteko zazpi egunetan dago zabalik, honako ordutegian. Lanegunetan 17:00tik 19:45era eta zapatu eta jaiegunetan goizez ere bai, 10:30etik 13:00ra.

Karrantzara egingo du Aloña Mendik, maiatzeko mendi irteeran

Bizkaia, Kantabria eta Burgos arteko mugara

M.A | OÑATI

Lanestosatik (Bizkaia) Matienzora (Kantabria) arteko bidea egingo du Aloña Mendiko mendi sailak, maiatzaren 18ko mendi irteeran. Tarte horretan, Pico del Moro (810m) eta Pico del Mazo (823m) tontorrak igoko dituzte. Ibilbide erraza izango da, zailtasun barikoa. 14 kilometro luze da ibilbidea eta 800 metroko z du.

Izen ematea zabalik

Irteerara joan gura izan ezker, maiatzaren 15a, eguena, baino lehen eman beharko da izean Aloña tabernan. Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte; bazkide ez direnek 13; eta langabetuek 5 euro.

Egunean bertan, goizeko zazpiretan aterako da autobusa Karrantza aldera, autobus geltokitik.



San Donatora egin zuen irteera Aloña Mendik, martxoan. | ALOÑA MENDI

Elikadura osasuntsua, maiatzaren 13ko hitzaldiko gaia

Elikadura ohitura egokien gaineko hitzaldia egingo du maiatzaren 13an, 18:15ean Bidebarrietako erabilera aintzeko gelan Amaia Diaz de Monasteriogurenek. Herriko ikastetxeek, guraso elkarteek eta Oñatiko udalak osatutako lan-mahaik antolatutako hitzaldia izango da hori.

Mundumirako kamisetak Turismo bulegoan salgai

Mundumirako elkartasun kamisetak salgai daude Turismo bulegoan, 18 eurotan. Kamiseten salmentarekin jasotzen den dirua, Debagoieneko GKE-ek bultzatzen dituzten kooperazio jarduerak lagunduko dira. Maiatzaren 30etik ekainaren 1era bitartean egingo da Mundumira jaia, Arrasaten.

NIRE USTEZ

MAIALEN
ARRAZOLA



UDABERRI ON!

Udaberria iritsi zaigu. Eta dagoeneko hasi gara jertse potolo, txamarra eta artilezko galtzerdiak kentzen. Gure burua biluziagotzen dugu eta beharbada, norbere gorputzaren kontzientziaz sentitzen gara.

Zelai eta zuhaitzetako loreak bezala ageri dira alde guztietan gure gorputza lirain izateko errezetak baina miraririk bada ala? Dudaren bat baduzue, honako loturan informazioa aurkitzeko aukera izango duzue: <http://www.fen.org.es/imgpublicaciones/181120093354.pdf>.

Garai honetan produktu dezente azalduz dioaz geurean. Letxugak, esparragoak, orburuak, baba handiak, patata

berria, gereziak, antxoak... Goxoak eta bertakoak. Hau baino freskoagorik eta kalitate hobegorik ba al dago ba? Dasta itzazue eta gustukoak izango dituzue, seguru!

Gure lagun zirimiria batzutan bertan izaten dugun arren, giro ederraz gozatzeko aukera ere badugu sasoi honetan. Gure mendi eta lautadatan hainbat ibilaldi egiteko garai paregabea da neguaren ondorena. Lore eta belar usaiak, kolorez beteriko inguruak ikusgarri dauden aroa. Guzti honekin kontaktua izateak ongizatea bermatzen laguntzen duela diote. Animatzen hau baieztatzen?

Urteko sasoiak aldatzeaz bat, bakoitzak dugun egoera dugula, positiboan pentsatuz aurrera pozik egin dezagula... Udaberri on!

"Ongizatea bermatzen laguntzen ei dute"



Aniztasuna lantzen, Pello Añorga ipuin kontalariarekin

Foru Aldundiko migrazio eta aniztasun zuzendaritzak hezkuntza mailan aniztasuna lantzeko sustatutako ekimen baten baitan izan da Pello Añorga ipuin kontalaria Elkar Hezin. Foru Aldundiak sortutako *Hodei baten bila* disko-liburu sorta izan da Añorgaren kontakizunaren oinarria. Hilabete honetan, bestetik, idazle ezagun baten bisita jasoko dute LHko 5. mailako ikasleek: Toti Martínez de Lezea izango da Elkar Hezin, maiatzaren 19an.

Ibilaldiak eta proiektzioak Mendi Astearen barruan

Ibilaldietarako izen-emate epea egubakoitza arte dago zabalik

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Bigarren antolatutako Eskoriatzako Kirol Zerbitzuak Mendi Astea, eta Mondragon Unibertsitatea eta Arizmendi Ikastola izan ditu lagun. Maiatzaren 18tik 25era bitarteko astean izango da, eta ibilaldi asko iragarri dituzte, baita proiektzio emanaldiak eta orientazio jokoak ere. Hortaz, oinez edo bizikletan, mendian ibiltzea gustuko dutenek naturaz gozatzeko egun aproposak dituzte aurrez aurre.

Lau irteera astebetean

Lau irteera izango dira astean: lehenengoa, *Zazpi elizate ibilaldia*, datorren domekan (07:00). 28 kilometroko ibilbidea da eta Eskoriatzako elizateak ezagutzeko paregabeko martxa.

Martitzenean, hilak 20, *Gabez takarraran, egunez oinez* izeneko irteera egingo dute: Atxorrotzera lehenengo, handik Leixargaratera, eta Mandobidetik bueltan Eskoriatzako plazara. Zapatuan, maiatzak 24, kirol elkartearen

eguna ospatuko dute eta BTT irteera egin familia giroan. Eta domekan, hilak 25, Garaioa joango dira orientazio zirkuituetan jardutera. Aurretik, egubakoitzean, orientazio jokoak egingo dituzte *Ez zaitez galdu Eskoriatzan* leloarekin (18:00etan, plazan).

Ekintza guzti horietarako izena aurrez eman beharra dago kiroldegian edo Huhezin (azken eguna maiatzak 16): *kirolak@eskoriatza.net* eta 943 71 53 28; edo *kirolak.huhezi@mondragon.edu*.



Eskoriatzarrak Atxorrotzen. | GOIENA

Gainera, gutxienez 10 lagun beharko dira ekintzotarako, hortaz, taldeak osatu diren jakiteko maiatzaren 16tik aurrera deitu behar da kiroldegira.

Horiez gain, bi bideo emanaldi izango dira: astelehenean, hilak 19, *Euskal Herriko altxorretan*

barrena Arkaitz Astiazaranek aurkeztuta, Huhezin (19:00); eta eguaztenean, hilak 21, *Salto base, la montaña desde otra perspectiva*. Zion Flayers taldeko Alex Berastegi, Victor Gordillo, Juanra Nestares eta Oscar Busturiaren bideoa emango dute udaletxean (19:00).

Egunotan hasi dituzte Murubide plaza inguruak eraberritzeko lanak

Sasoia Eraikuntzak dabil lanotan eta bi hilabete pasatxoan bukatuko dituzte

M.A. | ARETXABALETA

Joan den astean hasi zituzten Murubide plaza inguruak eraberritzeko eta txukuntzeko lanak. Sasoia Eraikuntzak SL enpresari eman dio Udalak lanon ardura eta bi hilabeteren bueltan bukatuta izango dituzte. 192.995 euroko lanak dira, eta Udalak 2014ko aurrekontuan sartu zituen.

Beste kirol batzuk

Pilotalekua dago Murubide plazan, baina egoera eskasean eta apenas du erabilerarik horrek. Hori horrela, inguru guztia berritu eta jolaserako gune erabilgarri bihurtuko dute. Gainera, plaza eta etxe arteko irisgarritasuna hobetuko dute, hau da, sartzeko eta irteteko hainbat tokitan dauden mailak kenduko dituzte. Hala, pilotalekura eta kantxara sartzeko arrapala jarriko dute, orain dauden eskailerak kenduta.

Kantxako eta pilotalekuko lurzoru guztia berrituko dute, baita inguruko espaloiak ere, izan ere, egoera eskasean daude. Otalora kaleko 15. atarte parean dagon espaloia ere konponduko dute, egun behera joanda dagoe-



Murubide plaza, lanok hasi berri direla. | M.A.

nez autoen aparkaleku bihurtuta dutelako ingurukoek. Eta pilotalekuaren eta lorategiaren artean dagoen hormigoi armatuzko egitura bota egingo dute.

Pilotalekua egokitu egingo dute eta beste kirol batzuk egiteko ekipamendua jarri ere bai. Hala, futbolearen, saskibaloian, hockeyan, boleibolearen eta badmintonean jardun ahal izango dute neska-mutikoek. Frontoiaren alboko plazan jarriko da horiek

egiteko kirol pista. Eta atseden hartzeko jarlekuak ere jarriko dituzte inguru guztian.

Ur hodiak eta argindarra

Egoera eskasean dauden ur hornikuntzarako hodiak aldatu egingo dituzte, eta kantxa inguruan argindar instalakuntza berria jarri.

Lanok bukatzeko plaza inguruko berdeguneak eta lorategiak ere txukundu egingo dituzte.

Joseba 'Mardo'-ren oroimenezko 36. Otala Zelai krosa domekan

M.A. | ARETXABALETA

Domekan, Otala Zelaiko erromeriarekin bat eginez, jokatu da Otala Zelaiko 36. edizioa. Hemenetik aurrera Joseba Mardoren oroimenezko Otala Zelai kros herrikoia izena izango du Joseba Larrinaga gogoan, eta aurten kros egokituko Euskadiko txapelketak ere korrituko dira bertan.

Banaka eta binaka

Helduen lasterketa 11:30ean hasiko da eta 8.410 metroko ibilbidea egingo dute. Iaz legez, banaka ez ezik binaka (bikote mistoak osatuta) korritzeko aukera izango da. Eta eurekin batera korrituko dute distantzia luzea egingo duten kirol egokitukoek. Distantzia motzekoek, ostera, 1.600 metroko

ibilbidea izango dute eta 10:30ean hasiko dira.

Helduen izen-emate epea dagoeneko zabaldu dute, *www.herrikrossa.com* atarian (7,50 euro). Domekan, Otala Zelain bertan ere eman ahal izango da izena 10 euro ordainduta.

Umeen lasterketak

Urtero legez haur eta gaztetxoek lasterketak ere izango dira. 10:00etan hasiko dira horiek, eta adinaren arabera banatuta hainbat buelta emango dizkiote zelaia.

Gure Esku Dagok deituta argazki erraldoia 16an

Argibideak emateko eta metroak saltzeko mahaia egongo da eguenetan eta asteburuetan

M.A. | ESKORIATZA

Gure Esku Dago ekimena Eskoriatzara ere iritsi da eta talde eragile bat lanean dabil azken asteotan. Hainbat ekintza antolatu dituzte gainera, ekainaren 8ko ekitaldiari begira. Izan ere, eskoriatzarrek ere orduan egingo den kate erraldoiaren parte izan gura dute.

Argibideak eman eta metroa erosteko mahaia jarriko dute datorren aste bukaeran, mai-

atzak 16, 17 eta 18, eta hurrengoan, 24 eta 25; eguerditan eta iluntzean egongo dira hainbat lagun, plazan. Baita eguenetan ere 20:00etatik 21:00etara bitartean.

Bestalde, datorren egubakoitzean, maiatzak 16, argazki erraldoia aterako dute plazan (20:00). Hori horrela, Gure Esku Dago ekimenarekin bat egiten duten guztiak gonbidatu dituzte bertara, euren atxikimendua erakutsi dezaten.

NIRE USTEZ

OIER ARANTZABAL



Bertan bertakoa!

Bizi garen mundu globalizatu honetan gauza xebreak gertatzen ari dira; orain dela urte gutxi batzuk sinesgaitzak izango lirakeenak. Erostean ditugun gauza gehienak munduaren beste puntan eginikoak dira.

Saiatu al zarete aspaldian European eginiko zapatilak erosten? Begiratu kakahueteak nondik datozen, txinatarrak direla ohartuko baitzarete. Esparragoak ez dira nafarrak, Perukoak baizik; eta haragia Argentinako pampatik iristen zaigu. Telefonoak, tabletak, jostailuak, galtzontziak... dena dator urrutitik. Gainera, badirudi gero eta urrutia-gokoa, gero eta merkeagoa dela... Nola da posible? Nolakoak izan-

go ote dira produktu hori ekoizten duten langileen baldintzak?

Garbi daukagu bertan produzitzeari uzten badiogu, bertako lan kargan zuzenean eragingo duela. Bai langileengan, baita langileei zerbitzatzen dien hirugarren sektorean ere.

Lehen sektorea ez da atzeratzen. Euskal Herriaren kontsumitzen dugun janariaren %5 soilik ekoizten dugu baserrietan. Orain indarrez hazten ari diren baratze parkeek laguntzen digute bertako produktuaren kalitatea estimatzen, nahiz eta pixka bat gehiago kostatu...

Obama jauna klima aldaketarekin horren arduratuta dagoen honetan kontutan eduki behar dugun beste arazo bat garraioak eragiten duen kutsadura da. Txinatik produktuak dakarren barku handi horietako bakoitzak 10 tona gasolio kontsumitzen baititu... orduko!

Beraz, bertakoa kontsumitzen saiatu gaituzten, prezioan merkeena ez bada ere; gure erosketetan, eman diezaiogun gertutasunari garrantzia!



Josemari Velez de Mendizabal, Karmelo Landa eta Hur Gorostiaga, mahai-ingurua hasi aurretik. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

Erabakitze eskubidea gauzatzeko, herritarren garaia dela aldarrikatzen

Josemari Velez de Mendizabal, Karmelo Landa eta Hur Gorostiaga gonbidatu zuen Gure Esku Dago taldeak hilaren 8an; Sastiña bete egin zen

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Gure Esku Dago taldeak antolatuta, mahai-inguru interesgarria eskaini zuten EHUko irakasle Karmelo Landak, Seaskako zuzendari Hur Gorostiagak eta Josemari Velez de Mendizabal iker-tzaile aramaioarrak.

Hiru gogoeta, bide berbera

Josemari Velez de Mendizabalek atzera begiratu zuen, hasteko: "Gure Esku Dago izenik gabe ere, bagabiltza aspalditik erabakitze-ko eskubidea aldarrikatzen, politika zein kultura mailan, askok eta askok egin dugun lanaren bidez. Nik uste dut ordua iritsi dela ahalegin hori guztia egituratzeko. Hori bai, erabakitze-ko prozesua ez dakit zer den, ez dau-

kat erremintarik eta ezta erreferentziarik ere. Hori galdegitera ere banator". Baina, era berean, etorkizunera ilusioz begiratzen dio ikertzaile aramaioarrak: "Orain arte politikak agindu du; ea orain gizarte mugimenduak benetako indarra hartzen duen eta gai ote garen daramagun prozesuak bestelako ikuspuntu, haitze eta usain bat har dezan".

Karmelo Landak ere herritarren konpromisoaren ideia aipatu zuen: "Asmoak eta itxaropenak garatzeko garaiak pasa dira, orain konpromiso zehatzak behar ditugu. Ondo egonkortutako bidean urratsak ematen hasi behar gara. Jendea konprometitzen denean helduko da erakundeen konpromisoa". Gure Esku Dago ekime-

na "oso baikor" hartzen du Landak: "Euskal Herrian orain zerbait behar badugu hori da, herritarren aktibazioa. Erabakitze-ko eskubidea teoria izatetik gauzatzera-ko pausoa emateko ordua da".

Azkenik, Gorostiagak Ipar Euskal Herrian azken bi urteetan emandako "prozesu demokratikoa" izan zuen hizpide: "Ipar Euskal Herriak ez du instituziorik eta beraz, ze erakunde eta eskumen mota gura dugun adostu dugu. Horren ondorio da lurralde elkargo bat izateko aho bateko adierazpena. Parisek ezezkua eman du, baina ikasgai bat izan da kontra egiten dutenak kanpo geratu direla hauteskundeetan. Beraz, mugitzen jarraitu behar dugu, aurrean ezezkua jaso arren".

ELGETA

Wifi sare libreari buruzko informazio bilera herritarrendako

'Guifi.net' egitasmoko kideek emango dituzte azalpenak; bilera eguaztenean da, 19:00etan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Martxoan ezkerreko wifi gune librea da Elgetako herriko plaza, baina lehenengo pausoa izan zen hori. Udal ordezkariak adierazi dutenez, helburua, orain, herrian Internet zerbitzu merkea eta librea zabaltzea da.

Idea da, oinarrian, Internet konexio bakarra kontratatzea, eta herritar guztiekin partekatzea. "Kostata, baina sare guztia martxan da", esan du Oxel Eros-tarke alkateak. "Saltoa, orain, sare hori herriko eraikinetara zabaltzea da, eta erronka da proiektua behar den moduan garatzea".

Batzarra herritarrekin

Udalak bilera antolatu du herritarrek informatzeko. Eguazte-

nean, hilak 14, egingo dute udaletxe osoko bilkuren artoan, 19:00etan. *Guifi.net* egitasmoko Iker eta Asier Garaialdek emango dituzte azalpenak, eta zalantzak argitzeko galderak zuzenean egiteko aukera izango dute herritarrek. Sarea zer den, ze filosofiarekin garatu duten, nola funtzionatzen duen, etxeetara zabaltzeko prozesuak zelakoa behar duen... "Proiektu honek ate asko zabaltzen dizkigu", esan du Erostarbek. "Internet konexio bizkorragoa, hainbat gauza elkarbanatzeko gure arteko sare bat sortzea, konpainien gehiegizko tarifak saihestea... Bost bat euroko hileko kuotarekin etxean Internet edukitzeko aukera izan dezakegu".

Elgeta Kantuan ekimenetik entsegua deitu dute gaurko, 21:00etan, kultura etxeko musika gelan

Domekan, hilak 18, izango da hurrengo Elgeta Kantuan. Intere-satuek 13:00etan dute hitzordua herriko plazan Jose Gardoki soinu-jolearen konpainian kalez kale eta tabernaz taberna kantuan egiteko. Gaur, astelehena, egingo dute azken entsegua; 21:00etan, kultura etxean. Maiatzekoa, bestalde, Elgeta Kantuan berezia izango da. 140 euskal kantu jasotzen dituen liburua aurkeztuko dute, eta salgai egongo da 11:30etik aurrera lau eurotan. Domekan plazan bertan, eta ondoren Julian Markiegiren kioskoan. Elgeta Kantuan zapia ere emango dute prezio horren barruan.

LEINTZ GATZAGA

Ur-sareko obrak egiteko prozesua, abiarazita

Bi eskaintza jaso ditu Udalak eta hartu du esleipen erabakia; jakinarazpena bidaliko du

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako ur-sarea handitzeko obrak ze enpresak egingo dituen erabaki du Udalak. Joan den asteko eguenean hartu zuen erabakia, eta egunotan jakinaraziko dio enpresa adjudikarioari. Behin hori eginda eta burokraziak eskatutako prozedura bete ostean hasiko dira obrak egiten.

Ur-sarea handitu

Labur esanda, Arlabanen egingo dago ur-biltegi bat, eta bertara eramanda erdiguneko ur-hodiak; bada oraingo obrekin egin gura dutena da ur-sare hori handitu, ur-zerbitzua bera handitzeko.

Kasu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza izango du Udalak lanok egiteko. Hain justu ere, Diputazioak

27.000 euro emango dizkio Udalari. Eta obren berezko aurrekontua da 35.000 eurokoa, asko jota. Bien arteko aldea, beraz, Udalak hartu beharko du bere gain.

Gaztainuzketa, uda aurretik

Bestalde, uda baino lehen Udalak abiarazi gura duen beste obra bat Gaztainuzketako txaboletan egin beharrekoa da. Lau asmo nagusi ditu Udalak esparru horretarako: batetik wi-fi jarri gura dute. Eta hain justu ere, horixe da egingo duten lehenengo zeregina, laster egin ere. Bestetik, neska-mutiko edo gazteendako aisialdirako gunea egokitu gura dute. Hirugarrenik, txaboletako berogailu sistema eraberritu gura dute. Eta azkenik, inguruko mendi-ibilbideak indartu gura dituzte.

ANTZUOLA

Puntu Txapelketako finala jokatuko dute Zabalok eta Agirrezabalek

Gipuzkoako Puntu Txapelketako final nagusia Donostian jokatuko dute hilaren 20an

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolako erretiratu elkarteko Puntu Txapelketako bikotea bikain ibili zen apirilaren 29an Legazpin jokatutako finalurrekoan. Izan ere, 6-1 galtzen joan ziren arren, 6-8 irabazi zuten lehia. "Segurako bikotea aurkari ona izan da; galtzen hasi garen arren, azkenean, irabazi egin dugu; eta ilusio han-

diz jokatuko dugu finala", azaldu du Juanita Zabalok. Hala, Gipuzkoako Puntu Txapelketako finala maiatzaren 20an jokatuko dute, Donostian.

Hitzaldia Landatxopen

Bestalde, Maria Jose Moreno antzuolarrak *Adinarekin hiri eta ingurune lagunkoiak* izeneko

hitzaldia egingo du maiatzaren 15ean, eguena, 18:00etan hasita, Orlan etxean.

Izan ere, munduko populazioaren batez besteko adina goraka doa. Hala, 65 urtetik gorakoen kopurua oso handia da, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoan. "Hitzaldi honen asmoa da pertsona helduekin lagunkoiagoak izateko zelako gizarte eta inizatibak izan behar diren aztertzea", esan du Morenok. Nolako hiria izan beharko genukeen helduekin, alegia. Besteak beste, osasuna, gizarte zerbitzuak, enplegua, parte-hartzea eta eraikin publikoak izango dira berbagai egueneko solasaldian.

ESANAK

"Gure Esku Dago izenik gabe ere, aspalditik aritu gara lanean"

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

"Konpromisoak behar ditugu, urratsak ematen hasi behar gara"

KARMELO LANDA

"Mugitzen segi behar dugu, aurrean ezezkua jaso arren"

HUR GOROSTIAGA

Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



ALZU

ALZU, S.L. Ehiza eta arrantza
Arantzazuko Ama, 2 | Oñati
Arropetan %10eko beherapena.

ARGIA

ARGIA Aldizkaria
www.argia.com
%25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide berrientzat soilik).

ARRIKRUTZ

oñatiko obak

ARRIKRUTZ Kobak
Araotz Auzoa | Oñati
Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).

caravanas

oñate

CARAVANAS OÑATE
Galdaragintza. Bizikletak
Otaui Zuhaitzia, 25 | Oñati
50€-ko erosketa egiteagatik, %10eko deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).

Esko Sport

ESKO SPORT Kirol denda
Intxaurtxueta 5 | Eskoriatza
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.



ESTACION SERVICIO ARRASATE
Gasolindegia
San Andres 7 | Arrasate
% 2ko gasolindegian erregaia erosita.
% 2ko dendako produktuetan.



EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia
Mikeletegi 43-45 | Donostia
Sarrera bat erosita eta kupoi+ Goiena Klubeko txartela erakutsita, sarrera bat doan.



GAES Entzumen zentroa
Otalora 18 | Arrasate
Zurradero 10 | Bergara
%10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



GAHIR Fisioterapia / Osteopatia
Aranburuzabala 6 behe | Eskoriatza
%50eko deskontua lehenengo kontsultan.



GUZTIZ EDER Estetika zentroa
Kalebarria 29 | Oñati
%5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).
%10eko deskontua gorputz osoan txokolaterekin egindako estalduran eta masajeetan.



KUTTUNA Estetika
Aranburuzabala 19, behe | Eskoriatza
%5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).



LASTAI
Koltxoak eta umeentzako artikulak
Arkatza 1, 49 Pab | Gasteiz
%5eko deskontu gehigarria helduentzako atse-den arloan.
%5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun - aukietan.
%5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.
%10eko deskontua denboraldiko hau-arropan. (Beharpenetan eta eskaintza berezietan izan ezik).



LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Estetika zentroa
Bidekurutzeta 7 | Bergara
%15a laser depilazioan: hanka osoa + izterrendoa (besapekoak opari).
%20eko deskontua elikagai intolerantzia proban.
%10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
%10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat



MAGDALENA Gasolindegia
Santxolopetegi auzoa | Oñati
% 2ko deskontua gasolindegian erregaia erosita.



MULTIÓPTICAS Optika
Juan Carlos Guerra, 1 behe | Arrasate
Ibargarai, 16 | Bergara
%15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun betarrekotan).



NAREN
Fisioterapia eta osteopatia zentroa
Belorrieta 5 behe | Aretxabaleta
%15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).



NINIKA Loradenda
Ramon Maria Lili, 8 | Bergara
%10eko deskontua artikuluguztietan.



OÑATI GARAJEA
Autoen garaje. Konponketak
Goribar Auzoa 9 | Oñati
Oñati %5eko beherapena egiten diren konponketetan.



TXURI URDIN Itzotz jauregia
Anoeta Ibilbidea 24 | Donostia
% 20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubia edo oporraldia).
% 10eko deskontua zubi eta oporraldietan.



ALDAPE Jatetxea
Iturriotz kalea 41 Arrasate
Tel.: 943 79 63 69
Astelenehenetik ostiralera eguneko menuan (bazkaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).
Astebukaerako menuan (bazkaria edo afaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).



SARA MERENDERUEA Jatetxea
Meatzerreka auzoa 19,
Kanpazar bidean, 3km-tara - Arrasate
Tel.: 943 77 15 86
Astelenehenetik igandera, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).
Astebukaerako afarietan, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).



ZABALA Jatetxea
Labegaraia 14, Bergara
Tel.: 943 76 42 57
Zabala jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Astelenehenetik larunbatara, eguneko menuan, bazkarian kafea doan.

BERRIA



TABERNA-BERRI Jatetxea
Durana kalea 26, Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 67
Taberna-Berri jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero;
Astelenehenetik igandera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan.
Astebukaeretan, eguneko menuan, afarian kafea doan.

BERRIA



AZPEITXI Jatetxea
Aranerrekalea 13, Bergara
Tel.: 943 76 55 00
Azpeitxi jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Asteburuetako menuan, bazkarian eta afarian kafea doan.

BERRIA

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Astelenehenetan ere etxean.

Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 50 €. | 943 25 05 05
kluba@goiena.com | goienakluba.com



* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

goienakluba

Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

AUTOMOBILISMOA

Lola BMWa puntuan jarri duela erakutsi zuen Aitor Zabaletak Gorlan

- ▶ lazko arazoak ahaztuta, Bergarakoa izan zen onena
- ▶ Ayrton Senna gogoan izan zuten antolatzaileek

XABIER URZELAI | BERGARA

Hogei urte pasa dira Ayrton Senna pilotuak, Imolan, Enzo e Dino Ferrari autodromoan bizia galdu zuenetik. Tamburello kurban joan zen Bat Formulak eman duen pilotu handienetako bat, eta zapatu goizean, Gorla Racing taldeko kideek hainbat pilotu-ekin batera brasildarra gogoan izan zuten, haren omenez dagoen harrizko oroitarrian lora eskaintza eginda.

Bada, ordu batzuk geroago, urteurren berezian, Aitor Zabaleta bergararrak herritarren aurrean txapela jantzi zuen ostera, Lola BMWa lehenengo txanda ofizialean ondo estutu ostean lortutako denborari esker (2.28.639). Hala, entrenamendu saioan egindako igoera kaxkarrak zazpi segundo okerrago utzitako sentsazio txarra gainditu ahal izan zuen Bergarakoak, berak onartu moduan.

Iaz BMW motorrarekin izan zituen arazoak ahaztuta, eta motor freskoaz, duela aste batzuk Opakuako Igoeran erakutsi zuen puntuan dagoela autoa: "Eta gaur ere autoak ez du *eztulik* egin, hortaz, pozik".

CM kategorian, Ordoki onena

CM kategorian, ostera, Arkaitz Ordoki nagusitu zen (2.33.814) Silver Car autoaz. Bost auto ibili ziren kategoria horretan borro-

kan, eta bailarako ordezkari Ruben Nogueiras oñatiarrak nahi baino arazo gehiago izan zituen, bosgarren geratu zen-eta (2.49.139).

A kategorian Markel Cestafe bergararrak Mitsubishi EVO bigarren postuaz konformatu behar izan zuen (2.51.318), Gerard de la Casaren WRCa, Seat Cordoba bat, bi segundo azkarragoa izan zelako (2.49.139). Eta, Formula Libre kategorian Ander Corcuera arrasatearra eta haren Golf GTIa nabarmendu ziren (2.50.839), Txus Jaio edo Iñaki


Alberdiren moduko pilotuen aurretik. Hala, aurten ere FL kategorian Arrasatekoa indartsu ibiliko da".

Istripu gabeko lasterketa

Eguraldiak lagundu egin zuen lasterketan batera arazorik ez egoteko proba amaitu eta gutxira hasi zen euria eta zale asko batu ziren Gorlako kurbetan autoak jarraitzeko. Parranda egitera joandakoak asko, baina baita hurrekin batera joandako guraso asko ere.



Mugarza, lehenengo kilometroa osatzen. | X.U.



Aitor Zabaleta izan zen, beti moduan, lasterketa hasten azkena. Irudian, lehenengo txanda



Bergara Racing taldekoak Ayrton Sennaren omenez Gorlan dagoen oroitarrian. | JAVI ALONSO

AITOR ZABALETA | PILOTUA

"Gurpilak aldatzean errekuiperatu ditut sentsazio onak"

Azken bi urteotan motorraz hainbat arazo izan eta gero oraingoan indartsu hasi du Aitor Zabaletak igoeretako denboraldia. Eta, ondo hastea motibagarria dela aitortu zigun lasterketa amaitutakoan.

Badirudi fin dabilela Lola BMWa. Bai, auto gidaria baino finago bai, behintzat, denbora asko autoa gidatzeke, eta neu naiz *torpe* samar dabilena... [Barre]. Lehenengo txanda, entrenamenduetakoa, ez dut batera ondo egin (02.35.342). Autoa batera eta bestera eraman dut igoera osoan

zehar, muturrez joaten zitzaidan eta sentsazioak ez dira batera onak izan. Haserre amaitu dut nire buruaz. Gero, ikusi dut orokorrean denok egin ditugun denborak ez direla oso onak izan lau segundora zegoen Arkaitz Ordoki. Gurpilei bota diet errua, lehenengo txandararako gurpil berriak jarri ditut, eta gauzak aldatu egin dira. Hor bai, hor gusturago igo dut (2.28.639), eta Speed Car-ak nik egindako denboratik urrun samar

geratu direla ikusitakoan zortzi segundora zegoen Ordoki bigarren txandarako ostera ere gurpilak aldatu ditut, eta berriak hurrengo lasterketarako gorde.

Aurten ere Euskadiko Mendiko Saria da helburu?

Bai, motor freskoa ekarri dugu aurten eta Opakuan hiru txanda egin genituen, eta gaur beste hiru. Autoak ez du *eztulik* egin, nahiko ondo doa eta hori poz-

"Motor freskoa ekarri dugu aurten, eta oraingo ez du *eztulik* egiten"

garria da. lazko urtean beti ibiltzen ginen motorra apurtzeko beldurrez, eta hala ibiltzea kantxondea zen, beti beldurrez ibili behar izate hori. Orain arte ikusitakoa ondo, pozik nago

Ez dakit uneren batean zerura begira ere ibili zaretzen, arratsaldeko azken ordurako euria iragarritako zegoen...

Bai, bagenuen beldur hori, bai. Baina gure meteorologoak [Barre] esan digu ateri eutsiko ziola, eta aurrera.


Gozatze urtea dator, horrenbeste, ondo hastea, gainera, beti da



GOIENA

garrantzitsua.

Duda barik. Denboraldia ondo hastea beti da motibagarria. Ea datozen lasterketan ere ez dugun arazorik izaten.



a hastear zela. | IMANOL SORIANO

SAILKAPENA

C3 KATEGORIA

1. Aitor Zabaleta (2.28.639)

CM KATEGORIA

1. Arkaitz Ordoki (2.33.814)

2. Joseba Iraola (2.35.646)

3. Aritz Egozkue (2.36.963)

A2 KATEGORIA

1. Ibon Ramirez (2.48.091)

2. David Pelaez (2.59.083)

3. Andoni Mugar. (3.06.855)

F.LIBRE KATEGORIA

1. Ander Corcuera (2.50.839)

2. Txus Jaio (2.57.290)

3. Iñaki Alberdi (2.57.746)

A KATEGORIA

1. Gerard de La. (2.49.427)

2. Markel Cestafe (2.51.318)

3. Roberto Gomez (3.06.200)



Zirkuituko zona batean hautsa pilatu zen, baina ez zen zonarik gogorra. | IMANOL SORIANO

CROSS COUNTRY

Borja Nieto onena, hareak fisikoki izugarri zaildu zuen lasterketan

90 pilotu inguru batu zituen Bergarako hitzorduak, eta zale mordoa; hurrengo hitzordua ekainean 14an izango da, motokros lasterketaz

X.U. | BERGARA

Borja Nieto pilotu bizkaitarra izan zen onena zapatuan Bergaran egin zuten Euskal Herriko Cross Country txapelketan. Elite mailan Balmasedakoak bederatzi itzuli eman zizkion antolatzaileek proposatutako zirkuituari (8.39.709 izan zen egin zuen denbora onena), eta bi minutu atera zizkion bigarren sailkatu zen Vicente Soldevillari. Hain zuzen, podiumeko bigarren postuagatik lehia estuagoa izan zen, Soldevillak 14 segundo baino ez zizkiolako atera Alberto Itoizi.

Talaveran jokoan egon den Mundialagatik beldur ziren aste barruan antolatzaileak, pilotu asko lasterketa hura jarraitzera Madrilerako joango ziren beldur, baina azkenean hitzordua borobila izan zen, 90 pilotu inguru

batu zirelako irteera puntuan -Kantabriako txapelketarako ere baliagarria zen.

Fisikoki, gogorra

Cross Countrya fisikoki motokrosa baino zorrotzagoa da, bigarrenen pilotuak abiadura bizian ibiltzen dira. Baina, Cross

Countryan oztopo gehiago gainditu behar izaten dituzte. Hala, zirkuituko zona batean pilatutako hareak izugarri zaildu zuen proba, ikusleen gozamenerako. Aipatu, Senior B mailan Jon Otamendi izan zela onena, eta Bergarako Urtzi Markiegi hamabigarren sailkatu zen.



Pilotuak, lasterketa hasteko gertu. | IMANOL SORIANO

ASIER BLAZQUEZ | ANTOLATZAILEA

"Zirkuituko hainbat lekutan harea mugikorrek genituela zirudien"

Aste barruan lasterketan parte hartzeko asmotan bazebilen ere, zapatuan antolatzaile lanetan buru-belarri ibili zen Asier Blazquez, Bergarako Motoklubeko ordezkaria. Aurreikusitako borobilago irten zen dena, eta pozik zen. Antolatzaileek dagoeneko ekainean egingo duten motokros lasterketa dute buruan (14an).

Zer moduz joan da klub ofizial moduan egin duzun lehenengo hitzordua?

Bada, uste genuena baino askoz ere hobeto. Ia 90 pilotu batu zituen irteera puntuan, eta horrekin batera, jendetza egon zen lasterketa ikusten. Ez genuen




GOIENA

mordoa izan zituzten... Hainbat zonatan harea mugikorrek zirela zirudien, ikusleendako oso polita izan zen, baina pilotuendako gogorra, egia esateko. Orain, ekaineko hitzordua prestatzen hasiko gara.

horrenbeste ikusle espero, egia esateko. Izan ere, Gorko Auto lgoerarekin bat egiten zuten gure hitzordua, eta zalantza genituen.

Aste barruan aurreikusten zenuen fisikoki lasterketa gogorra izango zela; aurreikuspenak bete dira?

Pasada bat izan zen, oso gogorra. Zirkuituaren behealdean hautsa pilatu zen, baina goialdean pilotuek borroka galanta izan zuten harearekin. AHTko obrak direla-eta hondar asko erori da behera, baina uste genuen gogortuta zegoela lur hori. Bada, hareak ia erabat estaltzen zituen motoak, pilotuek erorketa



Alberdi, Gorko lehenengo paellan, zaleen animuak jasotzen. | X.U.

MENDIKO BIZIKLETA

Ismael Esteban Euskadiko Openeko buruan indartsu, Aramaion irabazita

- ▶ Euskadiko Openeko hirugarren proba zen eta elite mailan Kantabriakoak irabazi zuen
- ▶ 23 urtez azpikoetan Alvaro Carral nagusitu zen eta emakumeetan Esti Garcia

MIRARI ALTUBE | ARAMAIO

Ismael Estebanek indartsu dagoe-la erakutsi zuen atzo Barajuenen jokaturako Aramaioko VII. Sari Nagusian. Euskadiko Openeko hirugarren proba zen, eta elite mailan Esteban kantabriarra nagusitu zen atzetik jarraika zuen Aitor Hernandezen aurretik.

Ia 170 txirrindulari elkartu ziren Azkoagan jarritako irteera puntuan, eta handik Barajueneko zirkuitura egin zuten. Lehenengo 29 infantilek korritu zuten, eta ondoren etorri ziren gainerako mailetakoak. 197 metroko desnibela eta 5.550 metro zituen ibilbideari bost bira eman zizkioten elite mailakoek, 23 urtez azpikoek eta Master 30 mailakoek; hiru bira, emakumeek eta Master 40-50 mailakoek; eta bi, kadeteek. Giro freskoa eta euria izan zituzten tarteka lasterkariek, baina inolako arazo barik egin zuten proba: "Ibilbidean aldaketa txiki batzuk egin ditugu aurren, arriskua kendu eta espektakulua emate aldera, eta lortu dugu", zioen Jon Andoni Axpe antolatzaileak bukaeran.



Bigarren egin zuen Aitor Hernandez taldetxo baten buruan. | JOSETXO ARANTZABAL



Markel Uriarte aretxabaletarra, lasterketako une batean. | JOSETXO ARANTZABAL



Euskadiko Openeko maila bakoitzeko sailkapen buruak. | MIRARI ALTUBE

Ezustekorik gabe

Euriak ibilbidea arriskutsu bihurtzeko, baina ez zen izan horrela: "Egin duen euri horrek mesede egin dio lurzoruari, aurretik oso lehor zegoelako, eta bigunago egonda hobeto; txirrindulariek gusturago jardun dutela esango nuke", zioen Axpek. Hala, aparteko eroriko barik bukatu zuten proba. Ismael Estebanek hartu zuen lasterketaren gidaritza hasieratik, eta Aitor Hernandez atzetik jarraika izan bazuen ere ez

zion aurrerik hartu. Lehenengo hiru biretan elkarrengandik gertu jardun zuten biek, gainerakoak atzean utzita. Esteban izan zen tiraka aritu zena gehienetan, aurkariaren indarrak probatu aldera, baina era berean bereak gordeta. Hala, azkeneko biran aurrera egitea erabaki zuen eta Hernandez atzean utzi, bakarrik helmugaratuz. Hirugarrena Diego Latasa izan zen. Openeko buru Estebanek jarraitzen du izaten.

23 urtez azpikoetan, ostera, Alvaro Carral Asier Juanbeltz eta Daniel Aristuren arten daude lehenengo hiru postuak, eta oraingoan Carral nagusitu zen beste bien aurretik. Bikain jardun zuten horrek hasiera-hasieratik.

Master 30 mailakoek ere hiru bira eman zituzten eta Igor Garcia izan zen txapelduna (baita Openeko sailkapeneko burua ere), Ander Elizgarai bigarrena eta Jon Isaba hirugarrena.

Junior mailan Jabier Sein

Emakumeetan lau txirrindulari jardun zuten norgehiagokan, eta garaipena Esti Garciarendako izan zen. Atzo arte Openeko buruan zen Olatz Odriozola ez zen etorri eta ondorioz, Maialen Larrinaga da orain lehena.

Junior mailan Jabier Sein nafarra nagusitu zen, eta ez duela harrapatuko duen aurkaririk erakutsi zuen; izan ere, Openeko aurreko bi probetan ere bera izan

da nagusi. Kadeteetan, Julen Latorrerendako izan zen garaipena, eta Master 40 mailan Esteban Suescunendako. Biak dira Openeko buru, nor bere mailan. Eta infantiletan, Andres Montalvok eraman zuen sari nagusia.

Antolatzaileak pozik azaldu ziren zazpigarren edizio horrekin "txirrindulari asko etorri eta arazo barik egin duelako aurrera". Hala, datorren urtekoa antolatzeko ere gertu agertu dira.



ISMAEL ESTEBAN
TXAPELDUNA (ELITEA)

"Gogorra izan da lasterketa, gainera, Aitor Hernandezek estu hartu nau. Azkenengo bueltara arte inguruan joan gara biok, bata bestearen atzean; azkenekoan aurrera egitea pentsatu dut eta ondo atera zait. Euriaren erruz apur bat labain zegoen, baina aparteko arriskurik ez da egon".



ESTI GARCIA
TXAPELDUNA (NESKAK)

"Zirkuitua ezagutzen nuen aurretik, nahiz eta aldaketaxo batzuk izan aurren, eta ondo moldatu naiz. Gogorra izan da, baina gustura jardun dut. Lokatz apur bat zegoen eta gurpiletan geratzen zen, baina gainerakoan ondo, abiadura murriztuta ez zegoen labaintzeko arriskurik".

Musakolako BTT irteera giro onean

Musakolako jaien atarian egindako BTT irteerak 140 bat txirrindulari elkartu zituen atzo goizean. Ziar-Ola elkartetik irten eta Kurtzetxikitik, Bedoñatik eta Zubillagatik buelta egin ondoren Anporretan azken gaina egin eta helmugaratu ziren ziklistak. Giro freskoa eta euria izan zuten hainbat unetan, baina gustura jardun zuten.

Bestalde, umek ere izan zuten bizikleta festa; Elorregira arteko joan-etorria egin zuten hainbat neska-mutikok.



Musakolako txirrindulariak irteera onean. | JOSETXO ARANTZABAL



Aretxabaletako Josu Arizmendi pasea emateko unean. | JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA

Etxean galdu barik jarraitzen duen Aretxabaleta jaun eta jabe izan zen

Datorren astean ere etxean jokatu du eta hirugarren mailarako promozioa jokatu gura badu puntuak eskuratu behar ditu derrigor

EMAITZA

ARETXABALETA

2-1

REAL UNION

FITXA TEKNIKOA

Aretxabaleta: Caste, Raul, Gartz, Amutxastegi, Piru, Haritz Igartua, Julen Eraña, Urtzi, Josu Arizmendi, Santxo eta Gillen.

Real Union: Asier Capilla, Ander Jorge, Iñigo Urbieta, Luis Rodriguez, Beñat Gomez, Endika Etxeberria, Francisco Martinez, Ibon Naranjo, Alberto Gorritz, Richard eta Julen Turrillas.

Beste: Aritz Reguero epailea eta haren laguntzaileak: Asier Martin eta Iñaki Gonzalez.

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Joan den asteko porrota ahaztu eta irabazteko gogoz zelairatu ziren Gorka Valleren mutilak atzo Ibarren. Lehenengo zatian, nagusi izan ziren, eta aukera mordoxka bat izan zituzten bai Santxok, bai Arizmendik. 29. minutuan Urtzik izan zuen gola esku-eskura; aurreratuta zegoen atezainaren gaintik jaurti zuen baloia eta barrura zihoala zirudienean (zaleak txalotzen hasita

zeuden) langa jo eta kanpora joan zen. Hala, golik gabe bukatu zen lehenengo zatia.

Bigarrean, ere nagusi izan zen UDA eta orduantxe iritsi ziren golak. Lehenengo penalti jaurtiketa bidez egin zuen Santxok eta bigarrena ere berak sartu zuen, Josuk pasatu eta baselina eginda. Real Union taldearen gola, ostera, deskontuan etorri zen, kontraerasoan egindako jokaldi bati esker.

Lehen erregionala preferentera

Bestalde, lehen mailako erregionaleko taldeak preferentean jokatu du datorren denboraldian, zapatuan 2 eta 3 irabazi ondoren Vasconiari. Iban Rodriguezen aginduetara gogor lan egin ondoren denboraldi guztian merezitako igoera lortu dute UDAko jokalariek. Datorren astean etxean jokatu dute azken partidua Idiazabalen aurka, eta festarako unea izango da orduan.

FUTBOLA

Lasaitu ederra hartu zuen zapatuan Bergarak 5 eta 0 irabazita Getariakori

M.A. | BERGARA

Jaisteko postuetatik aldentzeko puntuak behar zituen derrigor Bergarak eta horien bila zelairatu ziren Aitor Arrateren mutilak zapatu arratsaldean. Hala, inolako aukerarik eman gabe bost gol sartu zizkioten 22 punturekin jaitsiera postuetan dagoen Getariakori. Datorren

astean derbia dute antzuolarren aurka eta lasaiago aurre egiteko moduan daude orain.

Aloñak galdu (0-1)

Aloñak, ostera, galdu egin zuen Vasconiaren aurka. Ezer ez dute jokoan bosgarren dauden oñatiarrek, eta behar bada horrek lasaitu egin zituen.



Esanguratsua, Nafarrateren keinua, golean. | IMANOL SORIANO

FUTBOLA

Lau gol sartuta irabazi egin zuen Antzuolak Hondarribian

Lau gol sartu behar izan zuten Juanina Garairen mutilek hiru puntuak eskuratu ahal izateko, izan ere, Hondarribi jaisteko postuetan dago eta puntuak gura zituen derrigor. Antzuolarrek, baina, hirurak kendu zizkioten 3 eta 4 irabazita. Hala, eroso dago sailkapeneko zortzigarren postuan. ezer jokoan ez duela. Datorren astean derbia izango da Antzuolan, puntu bila doan Bergara izango duelako aurrez aurre.

Eibartarrak aurka galduta agurtu du denboraldia Mondrak

Eibartarrak aurka etxean jasotako porrotarekin esan dio agur denboraldiari Mondrak (1-2); laugarren porrota izan da gainera jarraian.

Eibarkoak jarri ziren aurretik markagailuan, 0 eta 2, eta arrasatearrek ezinean jardun zuten. Partidua bukatzeko 15 minutu geratzen zirenean sartu zuen Mondrak baina ezin norgehiagoka berdindu. Hala, sailkapeneko zazpigarren postuan bukatu du denboraldia 44 punturekin.

LEHENENGO MAILA

Giro ona derbian, baina gutxirako balio duen puntua

Athleticek eta Realak derbia jokatu zuten atzo arratsaldean San Mamesen, eta bertara gerturatu ziren bailarako zale asko. Egunean zehar Bilboko kaleetan zehar giro polita izan bazen ere, partiduko emaitzak (1-1) bi taldeetako inor ere ez zuen pozik utzi. Muniainek egin zuen 1-0koa, eta Agirretxek 1-1koa.



ARITZ GORDO



ARITZ GORDO

SASKIBALOA

Bide Bideren aurka galduta, Lauko Finala jokatu beharko du MUK

Dena eman zuten arrasatearrek lehenengo dauden tolosarrei irabazteko baina ezin (60-62)

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Partidu zaila zuten aurrez aurre Josu Larreategiren mutilek sailkapen buruan dagoen Tolosako Bide Bide zetorrelako etxera. Bazekiten hori eta dena ematera atera ziren. Garaipena eskura izan zuten baina azkenean ezin irabazi. EBA mailara ez dira zuzenean sailkatu, baina oraindik badute aukerarik; hemendik hamabost egunetara lortuko duten lau finala irabazita.

Gogotsu kantxaratu ziren MUKoak eta lehenengo laurdenean baloi guztiak borrokatu zituzten. Bigarrenean, baina, behar iritsi zitzairen eta lau minutu benetan eskasak jokatu. Hala, hainbat akatsen erruz, Bide Bide taldekoak 17 puntuko abantailarekin joan ziren aldageletara. "Jokalariekin aurrez aurre egin dugu berba aldageletan eta batzuek pauso bat aurrera eman dute gero", zioen Larreategik.

Partiduaren bigarren zatian alde horri buelta ematen jardun zuten arrasatearrek; baita hurbildu ere. Tolosakoak, baina, estu ikusi ziren orduan, eta Jon Gonzalez entrenatzaileak eskarmen-tudun jokalariai kantxaratu zituen, "halako egoerak aurretik ere bizi izan dituztenak". Horri batu zitzaion MUKoen nekea, eta



Unai Barrena saskiratzeko gertu zapatuan. | M.A.

bi puntugatik irabazi ezinik geratu ziren etxekoak (60-62).

Lan taktikoak eginda

Zapatuko partidua hamabost egun barru jokatu duten lau finala gertatzeko baliagarria izan zela onartu zuen bukaeran Larreategik: "Eredua izan da jakiteko zelan jokatu behar dugun irabazi gura izanez gero; izan ere, norberak ez badu ondo lan egiten,

defentsan ez badago intentsitate, ez dago zereginik".

Denboraldia luzea izan da eta nekea pilatzen joan da; horregatik, hemendik aurrerako entrenamendu saioak motzagoak izango dira, baina intentsitate handigokoak. Eta behin lan taktikoak eginda "urte osoko lana hor dagoelako eta ez goazelako aldatzera", jokalariai mentalki gertatzea izango da erronka.

JOSU LARREATEGI
ENTRENATZAILEA

"Mentalki gertatu behar gara faserako"

Galdu arren taldearekin harro zegoen Larreategi.

Partidu zaila zen eta ezin izan da irabazi.

Bagenekien partidu gogorra zela eta hala izan da, baina ni pozik nago taldeak egin duen lanarekin. Bi puntugatik galdu dugu eta ezin izan da, baina ni harro nago taldearekin.

EBAr igotzea, baina, oraindik ez dago galduta...

Ez, ez, baina jokatu egin behar dugu lehenengo, hirugarren eta laugarren laurdenean egin dugun moduan, mentalitate horrekin, maila honetan edozein taldek irabaz dezakeelako.

Burua da garrantzitsua?

Bai, jokalariek mentalki izan behar dute oso indartsuak, hori lortuz gero lortuko dugu helburua.



M.A.

SASKIBALOA

Natra Oñatik sailkapenaren erdian bukatu du denboraldia

X.U. | ARETXABALETA

Azken partidua galduta bukatu du denboraldia maila autonomikoan jokatzen duen Natra Oñatik. Bilbon jokatu dute asteburuan La Salle taldearen aurka eta hiru puntugatik galdu ostean esku hutsik itzuli ziren etxera (82-79).

Sailkapenaren erdi-erdian geratu dira oñatiarrek, zazpigarren postuan hain zuzen 37 puntu eskuratuta. Jokatu-tako partiduetatik 13 irabazi dituzte eta 11 galdu.

Erronka gogorra zuten

Oñatikoendako ez da urte batere erraza izan. EBA mailari agur esanda taldeak bi kategoria egin zituen behera, kanpotik etorritako jokalariei —gehienei— agur esan eta beste batzuek erretiroa hartu ostean. Erreleboaren urtea izan da, azken urte oparoetako helburu handiak alde batera utzi eta beste errealtate batera moldatzeko urtea, eta lan horretan, oñatiarrek denboraldi txukuna egin dute.

Ez da erraza, besteak beste, Zubikoako harmailetatik babes galanta jasotzetik beste egoera batera pasatzea. Hala, trantsizio horretan Oñatiko taldea ez da behera etorri, eta horrek badu bere balioa.

ESKUBALOA

Datorren denboraldian Euskal Ligan jokatu dute Aloñako neskek

TXOMIN MADINA | OÑATI

Klubaren arteko igoera fasea egon da jokoan asteburu honetan Oñatin, eta bertan, Aloña Mendiko, Urdaibaiko eta Ereintzako kadete eta jubenil taldea ibili dira nor baino nor gehiago Euskadiko Ligarako txartel bila. Azkenean, partidu gehien irabazita, Aloña Mendikoak igo dira kategoriaz.

Partiduak, hiru egunetan

Egubakoitzean, Urdaibaikoek eta Aloña Mendikoek neurtu zituzten indarrak: kadeteetan

oñatiarrek nagusi izan ziren 20-34; baina jubeniletan bizkaitarrak izan ziren hobeak: 22-18.

Zapatuan Ereintzak eta Urdaibaik jokatu zituzten partiduak. Kadeteetan Ereintzak 19-16 irabazi zuen; jubeniletan, bestalde, Urdaibaik lortu zuen garaipena, 20-26.

Atzo izan ziren Aloña Mendi eta Ereintzaren arteko norgehiagoka erabakigarriak, eta etxekoek bi partiduak irabazi zituzten: kadeteetan 22-15 eta jubeniletan, 17-10.



Ereintza eta Aloña Mendiko jubenilen arteko lehia. | JOSETXO ARANZABAL

ESKUBALOA

Mailaz igo daiteke oraindik ere Izarraitz-Aloña Mendi

Gaztelueta taldeari 31-27 irabazita, datorren astean Irungo Gaztiaken aurka jokatu dute

T.M. | OÑATI

Atzo Zubikoan irabaztea ezinbestekoa zuten Izarraitz-Aloña Mendiko mutilek Euskadiko Txapelketara bidean beste pauso bat emateko, eta partidu erabakigarrian, Gaztelueta aurrean, ez zuten hutsik egin.

Lehenengo zati ona

Partiduaren lehen bost-hamar minutuetan lehia nahiko parekatua izan zen arren, erasoan eta defentsan egindako lan onari esker oñatiarrek aurrea hartu eta atsedendira 17-10 emaitzarekin heldu ziren.

Nekearen ondorioz fisikoki behera eginda hasi zuten Izarraitz-Aloña Mendikoek bigarren zatia, eta hori ikusita Gaztelueta markagailuan aurretik jartzen saiatu eta bi taldeen arteko aldea gol bakarrena murriztea lortu zuten. Bizkaitarrak baina, ez ziren heldu Oñatikoekin berdintzera: azken hauek egoerari buelta eman eta azkenean, 31-27 amaitu zen partidua.

Partidu erabakigarria, zapatuan

"Ez dakit denboraldiko onena izan den edo ez, baina partidu hasiera oso ona egin dugu", zioen partidua-aren amaieran Rafa Zulueta oñatiarren entrenatzaileak eta talde guztiak emandako maila gorai patu zuen, batez ere, lehenengo zatian Aitor atezainak egindako lana.



Izarraitz-Aloña Mendikoak erasoan atzoko partiduan. | JOSETXO ARANZABAL

Iñigo Altzola | Mendiko korrikalaria

"Aloñako igoeran gozatu egin nuen, eta oso sentsazio onak izan nituen"

- ▶ Aloñako Igoeran eta Gaueko Lasterketa Bertikalean lehen debagoiendarra izan zen
- ▶ Zegama-Aizkorri probara begira entrenamendu bikaina izan du joan den asteburukoa

JULEN APERRIBAI | ARRASATE

Beti izan du gustuko mendian ibiltzea Iñigo Altzolak (Arrasate, 1990). Orain dela urte batzuk albo batera utzi zuen, baina denbora gutxira itzuli zen. Ez nolanhiko erronkarekin, gainera; mendian korrika egitera animatu zen, lagun bat horretan zebilela ikusita. Hasieran lasterketak amaitu beste asmorik ez zuen arren, apurka-apurka beste helburu batzuetara begira hasi zen. Joan den asteburuan emaitza bikaina lortu zuen Oñatin izandako bi lasterketetan: Aloñako Igoeran eta Gaueko Lasterketa Bertikalean. Harekin hitz egiteko aukera izan dugu Arrasaten bertan.

Zer moduzko asteburua izan da?

Niretzako sorpresa bat izan da. Ez nuen espero horrelako emaitzarik lortzea, hiru astez lesionatuta eta korrika egin ezinik egon bainaiz. Azken astean lau bat aldiz entrenatu nintzen eta Bertikala egiteko asmoarekin joan nintzen, eta, behin hori egin da, igandeko igoera egin edo ez erabakiko nuen.

Mendiko lasterketetan bailaran zaletasuna dagoela jakinda, lorpen handia da zuretzat lehen debagoiendarra izatea?

Gehiago geratzen naiz lasterketan zehar izandako sentsazioekin. Benetan gozatu egin nuen, eta hori da garrantzitsuena.

Lortutako emaitzek herrian oihartzunik izan dute?

Ingurukoek zoriondu egin naute eta Arrasateko Korrika Trail denda niri laguntzeko prest agertu da. Eskertzen da egindako lana baloratzen dutela ikustea.

Asteburua hasi aurretik zein zen zure helburua bi lasterketei begira?

Bertikalean ahalik eta emaitza onena lortu nahi nuen. Lesio batetik nentorren eta Zegama-Aizkorri probara begira zein egoeratan nengoen ikusi nahi nuen. Ostiralekoaren arabera ikusiko nuen domekakoa ere probatu edo ez. Bertikalean lortutako emaitzak ez nau hainbeste harritu, goraka ondo ibiltzen bainaiz, baina Aloñako Igoerakoa sorpresa hutsa izan da.

Bi lasterketen artean deskantsatu ahal izan zenuen?

Larunbatean nahiko nekatuta esnatu nintzen, gauez izanda ez da eta hain ondo errekupekatzen. Larunbatean bizikletan ibili nintzen muskuluak erlaxatzeko. Iganderako nahiko ondo nengoen.



Iñigo Altzola, Oñatin, helmugara iristen. | I.A.

Ostiraleko esfortzua nabaritzen banuen ere, ondo nengoen.

Bi probak modalitate desberdinekoak dira. Zeinetan sentitzen zara erosoago?

Orain arte Bertikalean hobeto aritu naiz. Betiere, goraka gutxiago sufritzen dut. Korrika asko eta beheraka egin behar den lasterketetan sufritzen dut gehien. Ez dakit indarrez justuago iristen naizelako den, baina goraka errazago ibiltzen naiz. Hala ere, igandeko proban ere ondo sentitu nintzen.

"Gaueko lasterketetan beste zentzumen batzuek gidaten gaituzte"

"Aloñan benetan gozatu egin nuela da niretzat garrantzitsuena"

Lehenago gauez korrika egindakoa zara? Berezia da?

Egin nuen lehenengo lasterketa Eskoriatzako Gabez Takarraran izan zen, antolatzaile lanetan zebilen lagun batek gomendatuta. Oso sentsazio berezia da, ez dago eta erreferentzia garbirik. Ohiko lasterketetan ikusteari ematen diogu garrantzia, baina gauez beste zentzumen batzuek gidatzen gaituzte. Politikak dira, eta oso bereziak.

Orain arte mendiko lasterketa askotan ibili zara?

Duela bi urte hiru lasterketetan hartu nuen parte. Iaz izan zen gehien egin nituen urtea. Hamar bat egin nituen, eta aurten Antzuolako izan da behar bezala egin dudak bakarra. Orion eta Urnietan ere irten nintzen, baina abduktore inguruko lesioarekin bueltak nentzen. Lehenengoan bukatzera joan nintzen eta bigarrengoan ezin izan nuen amaitu. Orduetik Aloñara arte lehiatu gabe egon naiz.

Zegama-Aizkorri egiteko asmorik baduzu?

Aurten, irteteko asmoa dut. Dortsala tokatu zait, eta han izango naiz, okerririk ezotan. Proba hori prestatzeko asmatan ibili naiz, baina lesioa dela eta ezin izan dut nahi besteko jarraitasunik mantendu. Datozen egunetan saiatuko naiz ahal den gehien entrenatzen. Ea disfrutatze moduan naizen.

Mendian, goraka ala beheraka sufritzen duzu gehien?

Aldapa behera da niretzat gogorrena. Bukaera aldean ere muskularki kargatuta egoten naiz, eta hor ere sufritzen dut. Hori gertatu zitzaidan Aloñan, adibidez. Goraka, aldiz, ondo moldatzen naiz. Aldapa handia badago, oinez ere ondo ibiltzen naiz.

Eguraldiak ere eragin dezake korrikariarengan, ezta? Zein baldintza klimatiko dira onenak?

Aloñan izan genuena da niretzat ideala. Eguraldi freskoa nahiago dut nik. Euria egiten badu ere berdin dit, normalean. Gailurretan arriskutsua izan daiteke lokatza pilatzen bada, baina, bestela, ez dut arazorik.

Nolako entrenamenduak egiten dituzu?

Astean zehar ia egunero entrenatzen naiz eta deskantsatzeko egun bat hartzen dut. Aste guztiak desberdinak izaten dira, ordea. 3-4 egun korrika ibiltzen naiz, eta gainontzekoa bizikletan. Probaren baten aurretik edo ondoren gutxiago entrenatzen naiz, normalean den moduan.

Aurrerantzean zein lasterketetan parte hartzeko asmoa duzu?

Maiatzaren 25ean Zegamara joatea da asmoa. Dortsala tokatu zaidanez, disfrutatzea da helburua, baina bost ordu ingururen bueltan ibiltzea lortuko banu, hobeto. Zegamakoaren ostean Euskal Kopako probetan ere aritu nahiko nuke, eta, Bertikalean ondo ibili nintzenez, gehiago egin nahi nituzke. Baina ez da ziurra.

Mugikorretarako aplikazioak garatu dituzte airean dagoen polen maila detektatzeko

Erabilgarriak izan daitezke seme-alaba alergikoak dituzten gurasoendako

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Urteroko klasikoa da udaberrian eta adituek diote gero eta haur gehiagok garatzen dituzten alergiak direla. Polenarekin lotutako udaberriko allergiek sintoma oso argiak dituzte: errinitisa edo sudurreko azkura, begietako zein azaleko narritadurak, arnasa hartzeko zailtasuna, eta kasu batzuetan eztula eta belarriko infekzioa.

Hotzeria edo alergia?

Antzerako sintomak dituztelako guraso asko nahastuta ibili ohi dira hasieran. Sintomak astebe-te baino gehiago luzatzen badira eta sukarrak agertzen ez bada, alergia izan daiteke eta osasun arloko adituek gomendatzen dute espezialista bat kontsultatzeko. Polenarekin lotutako alergiak zaintzen, eta batez ere prebentzio neurriak hartzen ez badira asma arazoak garatzea ekar dezakete. Asma da, adituen esanetan, umeen artean eragin gehien duen gaitasun alergikoa.



Doministikoa. | TYREXITO

Mugikorrendako aplikazioak

Gurasoek jakin behar dute hartu beharreko neurrien artean daukela umeak polenaren eraginetik urrutzea—ahal den neurrian—, etxeko gelak gutxi aireztatzea, autoan leihoak zabalik ez zirkulatzea, oheko arropa etxe barruan lehortzea, eta moztu berritako belardietatik urrutzea, besteak beste. Airean dagoen polen maila

detektatzeko, bestalde, erabilgarri izan daitezkeen aplikazioak garatu dituzte azkenaldian: *AlertaPolen*, *PolenControl* edo *AlertaPolen*, esaterako. Doakoak dira gehienak, polen motak desberdintzeko gaitasuna dute—gramineak, olibondoa...— eta kontzentrazio maila neurri batetik gora handitzen bada alerta abisua emateko prestatuta daude.

Gehiago hezten dute gure jarrerak gure ahotik irtendako aginduek baino

Neska-mutikoen gehiago ikasten dute ikusten dutenetik entzuten dutenetik baino

L.Z. | ARRASATE

"Nork esan dio umeari oinetako azazkalak margotzeko? Eta ez margotzeko? Seguruenik ez bata ez bestea. Akaso margo horiek ez ukitzeko esango zioten, baina jarrera bat imitatzen ari da umea". Adibide horrekin azaltzen du Armando Bastidak bere blogean gurasoak eredu izateak ze garrantzia duen. Dio alperrik dela gauzak hitzez agintzea gure jarrerekin ez bagara eredu. "Imitazioaz ikasten dute umeek, ikusten dutena egiten dute".

Guraso.com atarira ekarri dugu Bastidaren blogeko sarre-ra interesagarria iruditzen zaigulako bertan egiten duen gogoeta. Adibide gehiago ere ipintzen ditu: Umeari esaten diogunean: Kontatu didaten sekretu bat kontatuko dizut,

baina ez esan inori zer ikasiko du umeak? Berak ere berdin joka dezakeela. Ez dela hain garrantzitsua sekretuak gordezea".

Bastidaren esanetan umeek gehiago ikasten dute ikusten dutenetik entzuten dutenetik baino, eta hezitzaileek jai daukagu gure jarrerarekin guk geuk esandakoak indartzen ez baditugu. "Aginduak eta gomen-dioak entzun entzuten dituzte, baina zure jarreran ez badago koherentziarik sinesgarritasuna eta autoritatea galduko dituzu", jakinarazten du.

"Ez gara perfektuak. Ezin gara perfektuak izan, baina saiatu egin behar dugu. Hezteko intentzioarekin ari ez garenean egiten ditugunekin hezten ditugu gehienbat gure neska-mutikoak", dio.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

JAKINGAI

Espazioen berreskuratzea aztergai

Aitor Axpe

Arkitektoa eta Arizmendiko irakaslea

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako eraikuntza sailak, Arrasateko Udalak eta LKS Ingeniaritzak espazioen berreskuratzean oinarritutako jardunaldiak antolatu dituzte. Iazko gaia izan zen *Eraikuntza eta natura, eraikuntza berri bat*, eta horri jarraipena ematea izan da aurtengo jardunaldien helburuetako bat. Aurten gai hori birgaitzearen ikuspuntutik lantzea erabaki dute antolatzaileek, eta horretarako hainbat aditu ekarri dituzte euren esperientzia kontatu ahal izateko.

Ohitura den bezala, jardunaldia bi zatitan banatu dute: lehenengo atalean, nekazari eremuetan dauden espazioak nola berreskura daitezkeen azaldu dute ekoaldean ikuspuntutik. Eta bigarren atalean, berriz, gune industrialetan dauden espazioak eta eraikinak nola berre-

rabili daitezkeen azaldu dute. Ekoaldea izeneko mugimenduen helburua da Ekoaldearen Sare Globalaren (GEN) bitartez iparraldeko hemisferioan dagoen hirietako bizimodu ez jasangarriari alternatiba bat ematea, eta hegoaldeko hemisferioan dagoen bizimodu jasangarriari laguntza eskaintzea.

Estatu mailan, 20 ekoaldea inguru daude eta gehienak nekazari guneetan daude kokatuta. Horietako bi ezagutzeko aukera egon da Arrasateko jardunaldietan: Bizkaiko Antzertales eta Palentziako Amayuelas de Abajo herrikoak, hain zuzen ere. Bi esperientzia horiek bide desberdinak egin arren, helburu bera dute: naturarekin harremanetan bitzita jasangarria edukitzea.

Eremu urbanoetan

Eremu urbanoetan ematen den ekoauzo mugimendua nahiko eskasa da estatu mailan. Hori Europa iparraldeko hirietan ematen da, gehienbat. Hala ere,

Euskal Herrian badago mugimendu bat eremu industrialak mantentzeko eta berrerabiltzeko asmoarekin diharduena lanean. Nahiz eta lan hori aurrera eramateko zailtasunak egon, eraikin interesgarri batzuk egon badaude. Horren adibide dira jardunaldietan aurkeztu direnak: Bergarako Labegarrietako kiroldegia—aitzindariena—, Gasteizko Buesa Arenako kupula eta gaur egun obretan dagoen Donostiako Tabakalera.

Eremu urbanoetan

Aurreko ekitaldietan bezala, Ekokaleak izeneko hiri-altzariaren ideia lehiaketak bere tokia izan du jardunaldi hauetan. Seigarren edizioa izan da aurtengoa eta farola bat diseinatu beharra izan dute parte hartu duten eraikuntzako zikloko ikasleek. Beste behin ere, erantzun bikaina izan du lehiaketak: 62 lan aurkeztu dituzte ikasleek, eta 120 lagunetik gora izan dira parte hartzen.



Vaubaneko ekoauzoa, Friburgon (Alemania). | ARIZMENDI

RIE edo ekoaldearen iberiar sarea

Ekoaldearen mugimendua mundu mailakoa izan arren eta bere sare propioa eduki arren—GEN edo Global Ecovillage Network—, badu ere lekua iberiar penintsulan: RIE edo Red Iberica de Ecoaldeas du izena. Iberiar penintsulako ekoaldeek euren arteko topagune bat dute sare horretan. Helburu orokorra sareko kideen artean informazioa eta baliabideak trukitzea da. Baita ere ekoaldea eta asentamendu jasangarriaren kontzeptua zabaltzea eta aukera hori egiten duten pertsonak elkar hurbiltzea. Noski, betiere, natura eta pertsonak errespetatzen diren bitartean.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

KULTURA

Toberako epaia, beteta: Debagoieneko I. Errotonda Eguna egin dute Elorregin

- ▶ Zapatuan elkartu ziren Bergara, Arrasate eta Oñatiko ordezkariak epaia betetzeko
- ▶ Zuhaixka bat landatu zuten Elorregin, berau Debagoieneko epizentroa dela adierazteko

TXOMIN MADINA | ARRASATE

"Azalkeria, itxurakeria eta zilborkeria" leporatuta, Bergarako herria errudun jo zuen iazko abenduan egindako azken Toberan On Prudentzio Piper Hautsa epaileak, eta Debagoieneko Eguna antolatza zigortu aurreko urteetan ere epaia galdu zuten Arrasate eta Oñatirekin batera. Zapatuan bete zuten epaia Elorregiko biribilgunean, hiru herrietako ordezkariak parte hartu zuten ekitaldian.

Hiru herrietako ordezkariak

Epaia betetzea normalean ez da gustuko betebeharra izaten, baina zapatuan, aldarre onen eta irribarretsu agertu ziren Elorregin herri zigortuetako ordezkariak, denak ere eskualdean egin diren Toberetan era batera edo bestera parte hartutakoak.

Behin Debagoieneko I. Errotonda Eguna zela lau haizetara zabaltzeko pankarta jarrita, eguneko ekitaldiei hasiera emateko zuhaixka bat landatu zuten Elorregi eskualdeko epizentroa dela adierazteko. Deigarria izan zen epailea bera izan zela landaketa lanak egin zituen, berez errudun deklaraturako gehienak begira izan zituen bitartean.

Elorregi, 0 kilometroa

Landaketaren ostean, hitzaldia ere eskaini zuen On Prudentzio Piper Hautsa epaileak. "Arrasate, Oñati eta Bergarari zigor partekatua ezarri zitzaizen azken Toberan, herri bakoitza bere zilborra-



Epailea eta hiru herrietako ordezkariak, Debagoieneko epizentroa izendatu zuten lekuan. | IMANOL SORIANO



Eopailea zuhaixka landatzeko lanetan. | I.S.

ri so dagoelako. Debagoieneko I. Errotonda Eguna Elorregin egin da, aldarrikatu nahi dugu eskualdeko epizentroa hemen dagoela" adierazi zuten epaileak, eta gaineratu: "Hemen elkartzen dira gure bideak; hemen dago Debagoieneko bideen 0 kilometroa; eta hemen hasi behar dugu bidea elkarrekin egiten, bidelagun izaten eta komunitatea indartzen".

Bidea luzea izango dela ohararazi zuten epaileak, eta Debagoieneko Errotonda Eguna urteror errepikatuko dutela ere gaine-

ESANAK

"Elorregin elkartzen dira gure bideak"

ON PRUDENTZIO PIPER HAUTSA
EPAILEA

ratu zuen: "Urtetik urtera berrituko dugu gaur hona ekarri gaituen izpiritua. Urtean zehar ere txertatuko dugu". Landatutako zuhaixka urteen poderioz Debagoieneko arbola indartsua bihurtzeko nahia ere adierazi zuen, eta esan zuen zapatuko epaia betetzea izan zela, ez zigorra: "Lankidetzaz ezin da inoiz ere zigorra izan". Lankidetzaren birusa herri eta alor guztietan zabaltzeko deia ere egin zuen. "Biba Debagoiena! Bederatzixak bat!" oihukatuz amaitu zuen berbaldia epaileak, han bildutako txalo artean.

Behin epaia beteta, eta egunari jarraipena emateko, elkarrekin bazkaltzera joan ziren ekitaldian parte hartu zutenak.

Hurrengoa, Aretxabaletan

Epaileak iragarri zuen gainera aurten Aretxabaleta izango dela Toberan epaituko duten herria. Eskoriatzak gidatuko du oraindik ere zehazten dabilzan akusazioa. Epaketak baina, badu eguna: datorren abenduaren 28a.

ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2014
maiatzak 17

ekainak 21
uztailak 19
irailak 20
urriak 18
azaroak 15

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON
Emplegu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariak konfiantza,
harbitasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.



KRONIKA

Magiaren mila aurpegi, Elgetan

TXOMIN MADINA | ELGETA

Magia karta jokoetara mugatzen dela uste duena oker dabil. Horretaz ohartzeko, eta bide batez, ordu eta laurden inguru aho bete hortz emateko aukera izan da asteburu honetan Elgetan. Dagoeneko hamargarren edizioa duen Magia Mostra egin dute bertan, eta zapatuko Magia Galan, jatorri eta adin askotariko magoek erakustaldi ederra egin zuten.

Zazpi mago, zazpi estilo

Ruben Vilagrando andaluziarrak eman zion hasiera ikuskizunari eta bere erakustaldian zehar, neurri baten Biblian kontaktzen den

mirari ezagunenetakoa errepikatu zuen: hasieran bakarria zen ardo botila, sei aldiz biderkatu. Burdinazko sabela ei du gainera Vilagrando. Nola uler daiteke bestela arrantzarako amuak jan eta ondoren bizirik jarraitzea?

Vittorio Marino italiarraren txanda heldu zen gero. Gizon kurioa benetan; izan ere, ez da ohikoa ibili ahalaz bat handitu edo txikitu egiten den pertsona bat ezagutzea. Vilagrando bezala, Marino ere komikotasunaz baliatu zen bere ikuskizuna janzteko, ikuslearen konplizitatea lortuz.

Bai, kartak oinarri hartuta egindako magiak ere izan zuten

tokia Magia Galan, eta horretarako Andaluziako beste mago bat igo zen agertokira: hamahiru urte besterik ez dituen Pablo Canovas.

FITXA

ELGETAKO X. MAGIA MOSTRAKO MAGIA GALA

Parte-hartzaileak: Woody Aragon, Jordan Gomez, Vittorio Marino, Pablo Canovas, Bertox, Daniel Ka, Ruben Vilagrando

Non: Espaloia kafe antzokia.

Eguna: Zapatua, maiatzaren 10a.

Iraupena: Ordu eta laurden

Karten manipulazioa, kartak agertarazi eta desagertaraztea, lekuz aldatzea zein eraldatzea du espezialitatea, eta argi: duen adinarekin Elgetan egin zituen eginda, etorkizun oparoa du aurretik.

Frantziatik etorri zen hurrengo erakustaldia, Bertox magoarena. Kasu honetan, uztaiak izan ziren protagonistak: ugaritu eta gutxitu egiten ziren uztaiak, airean esekita zeudela ziruditenak. Itxura baten truko erraza, baina uste baino zailtasun gehiago dituena.

Frantziako bigarren mago batek hartu zion erreleboa Bertoxi: Jordan Gomezek. Musika gai nagusi izan zuen ikuskizun dinamikoa eskaini zuen, eta akaso gaueko makalena bera izan arren, ezin egin zuenari meriturik kendu.

Mago hitza entzutean, dotore jantzitako gizonaren irudia etorriko zaio askori burura, laguntzaile pinpirina alboan duela. Eta horren

adibiderik ere izan zen Elgetan: Daniel Ka eta bere laguntzaile Lucia. Erakustaldi klasikoak egin zuten: laguntzailea kaxan sartu, desgertarazi eta berriz ere agertarazi; kutxa baten giltzapetu eta batek daki nola ihes egin... Bere ikuskizunarekin amaitu zen Magia Gala, baina ezin ahaztu gala aurkeztu zuen Woody Aragon magoa. Bere lana ez zen magoei txanda ematera mugatu: batetik bestera truko ugari egin zituen, ikusleekin jolastuz eta algara bat baino gehiago eraginez.

Ekainean, gehiago

Aurrekoetan baino ikusle gutxiago egon dela esan arren, aurten-go Mostraren balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Magiarekin lotuta, besterik egongo da gainera aurten Elgetan: Juan Tamarizek ekainaren 6 eta 7an eskainiko duen ikuskizuna.



Hamahiru urte besterik ez dituen arren, Pablo Canovasek karten manipulazioaren erakustaldi bikaina egin zuen Elgetan. | IMANOL SORIANO

BEARTEko 30 artistek kolorez jantzi dituzte udaletxeko eta Seminarioko aterpeak

Askotariko teknikaz egindako 100 margolan erakutsi zituzten atzo

MAIDER ARREGI | BERGARA

Giro ilun eta kaxkarrari aurpegi koloretsua jarri zieten BEARTEko 30 artisten lanek. Akrilikoa edota olio teknikez margotutako koadroek ikusmina piztu zutela

azaldu digu Bingen De Pedrok. "Euria egin arren, herritar asko gerturatu da eta teknika ezberdinak gertutik ikusteko aukera izan dute. Ikusmina baina, akuarelaz egindako lanek sortu dute.

Izan ere, ez da tekniarik ohikoena. Orain arte akrilikoa eta olio erabili dute BEARTEko artistek. Orain ordea, Rikardo Azkargortaren ikastaroari esker, akuarelaz egindako lanak izan dira nagusi erakusketan", azaldu digu.

Hiru dimentsiotako bi lan ere jarri zituzten ikusgai. "Bitxia izan da; koadroa ikusteko mugitu egin behar zara eta perspektiba ezberdinetatik ikusi".

Ia bi metroko koadroak ere jendea erakarri zuen atzo: "Arreta piztu du oso handia eta ikusgarria ere badelako. Abstraktua da eta paisaia eta zaldia irudikatu gura izan ditu Zabaleta margolari nobelak bertan. Hasi berria da eta meritu handia daukala esan beharra daukat. Ramon Arantzabalen lanak ere gustura ikusi dituzte herritarrek".



Margolan abstraktuak arreta piztu zuen. | JOSETXO ARANTZABAL



Udaletxeko arkupean jarri zituzten lan batzuk. | JOSETXO ARANTZABAL



Olioz egindako lan asko izan ziren ikusgai. | JOSETXO ARANTZABAL



Besteak beste, Bider Ertzean taldearen kontzertuak jarri zion musika Aitzorrotz Egunari. | TXOMIN MADINA

Eskoriatzako Aitzorrotz Egunak sagardotegi kutsua izan du aurten

Puzgarriak, talo eta sagardo postuak, sagardotegiko menua izan zuen herri bazkaria, kontzertuak... Zapatuan izan zen zer aukeratu Eskoriatzan

TXOMIN MADINA | ESKORIATZA

Aitzorrotz Egunarekin, aspertzeko denbora gutxi izan zuten zapatuan eskoriatzarrek. Eguerdiko partean umeendako puzgarri eta jolasak jarri zituzten udaletxe aurrean eta txikiak ondo pasatu bitartean, sagardo eta talo postuetan moka-

duxoa egiteko aukera izan zuten helduek. Aitzorrotz Kultur Elkarteko kideak eta Eskoriatzako Talogileak taldekoak ibili ziren taloak egiten, eta hiru sagardotegitako sagardoa dastatu ahal izan zen. Herriko toponimia ezagutzeko erakusketa ere jarri zuten.

Jan-edanak eta kontzertuak

Bazkalorduan, saiheski errearen usaina zabaldu zen herrian. Izan ere, udaletxeko arkupetan egin zuten herri bazkariako menua, sagardotegiko izan zen: sagardo erara egindako txorizoa, bakailao tortila eta Altuna Anaiak eta Pagaldai harategietako erretako saiheskia.

Arratsaldean, musikak hartu zuen protagonismoa: Bide Ertzeanek Inkernu tabernaren kanpoan jo zuen eta Akerbeltz taldeak, euriagatik, taberna barruan.

Antolatzaileak gustura

Aitzorrotz Kultur Elkartekoak pozik daude egunak emandakoekin, eta eskerrak eman dizkiete laguntzaile izan dituzten guztiei. Elkartearen eguna pasata, hurrengo erronkan zentratuko dira orain: uztailen egingo duten Errekan Gora jaialdia.



Herri bazkarian jan zuten saiheski erre prestatzen. | T.M.

Gorostidi eta Azpiroz nagusi Plazatik Gaztetzera txapelketako lehen saioan

Antzuolako gaztetzearan jokatu da aurtengo txapelketaren lehen kanporaketa fasea

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Ikusleek aukeratuta, barikuko saioan finalera iritsi ziren Aitzol Iturbe eta Endika Iturbe antzuolarrak. Etxean eta lagun artean, eroso aritu zirela aitortu digu Aitzol Iturbe bertsolariak. "Herritar baten nahiari esker Antzuolara ekarri dugu aurten Plazatik Gaztetzera bertso txapelketa. Haren lanagatik izan dugu aukera bikaina gaztetzearan kantatzeko; oso gustura aritu gara gainera bertsotan, etxean bezala sentitu gara-eta".

Epaiak aukeratuta berriz, Adur Gorostidi eta Asier Azpiroz bikotea iritsi zen finalera; buruz burukoan, ordea, Gorostidi eta Azpiroz, nagusitu zitzaizkien Iturbetarrei. "Dotore

abesten dute eta merezita irabazi dute. Gu, pozik gaude egingadako saioarekin", dio.

Askotariko gaiak landu zituzten: langabezia, iheslariak, etorkinak... umorezkoak batzuk, beste batzuk aldiz, gaurkotasunari lotutako pisuzko gaiak. Bertsolari guztiak baina, ados jarri ziren esatean jarritako gaiak aukeratzeko lan bikaina egin zutela antolatzaileek. "Oso gai onak izan ditugu; ikusleendako ere formatu entretenigarria izan da. Gaztetzearan izateak, beste salta bat ematen dio eta bertsozalea ez denarendako ere aukerako txapelketa da.

80 lagun inguruk gaztetzeko giroaz eta bertsoez gozatu zuten barikuko gauean.



Erretratuan Gorostidi eta Azpiroz bikote irabazlea. | IMANOL SORIANO

Asier Gozategiren eskutik trikitixaz gozatzeko aukera izan zuten ikasleek

Debagoieneko Trikitixa Eguna maiatzaren 24an ospatuko da Arrasaten



Asier Gozategi trikitixa ikasleekin Arrasaten barikuan. | IMANOL SORIANO

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Aurtengo Debagoieneko Trikitixa Eguna motorra berotzen hasia da. Barikuan, Asier Gozategi trikitilariaren eskutik, ikastaroa jaso zuten gaztetzuek. "Asierrentzako ere berria izan da; irakasle lanetan ibilia da, baina 7 urtean ez ditu eskolak eman; oso positiboa izan dela kontatu digu", azaldu digu Maixa Lizarribarrek. "Ikasleek oso pozik entzun dituzte Asierren abenturak, bere ibilbidea eta egindako lehen pieza zein izan zen", gaineratu digu.

Ikastaroan, bi taldetan banatu eta Asier Gozategiren pieza bana jotzeko aukera ere izan zuten trikitilari gazteek.

Trikitixa kalera

Ikastaroaren bukaeran, pandero-jotzaileak batu zitzaizkien

trikitilariak. Denak elkarrekin, Arrasateko kaleak girotzera irten ziren. "Kalera atera gara Trikitixa Eguna badatorrela plazaratzeko asmoz. Herritarrek harrituta begiratzen ziguten. Giro polita sortu da".

Testigu berria

Maiatzaren 24an, Arrasaten egingo da aurtengo trikitixaren festa. Lizarribarrek kontatu digu, Uarkapen egingo den bazkarirako sarrerak eskuratzeko aukera badutela herritarrek. Hala, interesa dutenek, Arrasateko trikitixa eskolara joan daitezke txartelak eskuratzera.

Bihar egingo da egitarauaren aurkezpena. Aurten gainera, eskolaz eskola pasatzen den testigua berria izango dela kontatu digu Lizarribarrek.

Goiena Klubeko maiatzeko zozketak


Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!

Nintendo 2 DS + Pokemon jokoak

Etxeko gaztetxoarentzat Nintendo 2 DS
+ Pokemon jokoak.

Parte hartzeko sariaren izena:
Nintendo 2DS

Arrasateko hipermerkatua
 **EROSKI**
 zurekin



ARRIKRUTZ
o ñ a t i k o o b a k

Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko,
6 sarrera zozketatuko ditugu.
Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikutz



Argia

Joko sorta
Nairobotarra eta Kirolaz Badakit
jokoek osatutako **2 joko sorta.**
Parte hartzeko sariaren izena:
Jokoak



www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarra
Bidezko merkataritzako produktuez
osaturiko otarra.
Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

GURE MUSIKA TALDEAK

'Hainbat ohe huts' presoen aldeko diskoa kalean laster

DSK eta Dirty Brothers-eko kideek egin dute diskoa

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Hainbat ohe huts tituluaren atzean, duela bi urte jaio zen ideia bat dago. Des-Kontrol, Dirty Brothers eta Enboskada taldeetako kantuekin euskal presoen aldeko disko bat grabatzea pentsatu zuten Oier Beitia, Asier Sala eta Urtzi Madinabeitia musikariek. Proiektuak luze jo badu ere, pixkanaka aurrera doa eta datozen asteotan diskoa kalean egotea espero dute. Maiatzaren 30a data ezin hobea dela aipatu dute, *azken ostiral* batean kale-ratuko zelako; hala ere, arazo batzuk direla-eta, seguruenik atzeratu egingo da.

Ilusio handiz ekin zioten proiektuari Des-Kontrol eta Dirty Brothers taldeetako kideek. Azken urteotan presoen aldeko hainbat ekitalditan jotzen egon ostean, presoei eskainitako lana egitea erabaki zuten; irabazi guztiak, gainera, presoentzat eta haien senideentzat izango direla azpimarratu dute.

Hainbat kolaborazio

Abenturak aurrera egin ahala, jende gehiago batu zaizkie zortzi kantuz osaturiko diskoa grabatzeko; besteak beste, Mutxin diseinatzailea eta Igor Sala musikaria. Horiez gain, baina, kolaborazioz jositako diskoa izango da; tartean, Oxel Arrieta, Enboskadako abeslaria; eta Dirty Borthers-eko beste kideak; *Batasuna* abestian, euskal preso ohi, senide eta haurrek koruak grabatu dituzte.

Disko akustikoa den heinean, kantuen moldaketak egin behar izan dituzte; gitarra eta ahotsak nagusi diren arren, berebiziko



Magu, Sala anaiak eta Tetin herriko plazan jotzen | MUTXIN

protagonismoa dute pianoak eta akordeoiak. Kolaborazioez gain, Sala, *Magu*, *Pepin* eta Igor Sala izan dira diskoa grabatu duten musikariak.

Hainbat ohe huts diskorako kantu hauek grabatu zituzten: Des-Kontrol-eko *Duintasunez eutsi*, *Altxa gaitetzen* eta *Burua hotz eta bihotza bero* (Peio Lamarka pre-

so ohiak espetxean zegoenean idatzitako letra du kanturik); Dirty Brothers taldearen *Nafarroa*; Enboskadaren *Amayur* eta *Ongi etorri*; Pantxo eta Peioren *Batasuna*; eta diskorako propio egindako *Norantza bakarra*. Azken kantu horren letra Marisol Iparagirre eta Mikel Antza presoek senideekin egindakoa da, senideek Frantziako espetxera egindako bisita batean.

Ohorea egileentzako

Diskoa bihotzez eta gogotsu egin dutela azpimarratu dute egileek. "Euskaldunak gara, Euskal Herria maite dugu eta lan hau aurrera eramatea ohorea izan da guretzako", horrela laburbildu dute diskoa egiteko prozesu guztiaren esperientzia.

Esan bezala, *Hainbat ohe huts* kantu-bilduma hilabete honetan kaleratu nahi dute eta burubelari dabilta estudioan azken ukituak ematen.

ESANAK

"Ohore handia izan da guretzako 'Hainbat ohe huts' aurrera eramateko aukera izatea"

OIER BEITIA | MUSIKARIA

Ibarreko hiru talde egongo dira Lapueblako jaian

Malenkonia, The Potes eta Dirty Brothers-ek Araba Euskaraz-en joko dute, ekainaren 15ean


J.D. | ARRASATE

Aurten Lapuebla de Labarcan ospatuko den Arabako euskararen festan Debagoieneko taldeek zeresan handia izango dute. *Mugan bizi, bizi* lelopean, urtero Euskal Herriko *mainstream* eszenako talde askok girotu ohi dute eguna; Lapueblako antolatzaileek, ordea, beste ikuspuntu bat eman nahi izan diote.

Horretarako, talde *handi* horiekin batera, *underground* eszenan murgilduta dauden taldeek ere hartuko dute parte. Kasu honetan, gainera, ibarreko hiru talde izango dira lur azpian edo radarretatik kanpo dauden talde horien guztien espiritua taularatuko dutenak. Herriko jai gehienetan eta irrti gehienetatik haratago bizitza dagoela frogatzeko. Malenkonia oñatiarrek eta Arrasateko Dirty Brothers eta The Potes-ek ordezkatzeko dute Debagoiena.

Aukera paregabea

Hiru taldeentzako aukera paregabea izango da, ohiko gaztetxe, taberna eta aretoetatik urrats bat haratago eman eta ikusle



Malenkonia. | GOIENA

askoren aurrean euren kantuak defendatzeko.

Ekainaren 15ean ospatuko dute Araba Euskaraz, eta ibarreko ordezkariak arratsaldean igoko dira oholtzara.

Ardo-dastatzea eta musika

Lapueblara joateko eguna heldu baino lehenago, ordea, Arrasateko Irati tabernan berotze festa bat egingo dute. Maiatzaren 24an izango da, zapatua. Araba Euskaraz eguneko antolatzaileek ardo-dastatzea egingo dute, eta, girotzeko, hiru taldeetako kideek saioa akustikoa egingo dute, 18:30ean.

'Rompe la historia', AMDren estreinako diskoa, Interneten dago entzungai, eta deskargatzeko

Arrasateko AMD taldeak Nekrosounds estudioan grabaturiko lana argitaratu du. Hala ere, kasu honetan ez dute ohiko formatuagatik apustu egin eta Internetera igo dute diskoa. Euri Bruñak egin duen *Rompe la historia* diskoaren azalaren azpian, hamaika kantu ezkututzen dira. Youtubera kantuak igotzeaz gain, zerbitzari batera igo dituzte bertatik deskargatu ahal izateko. Kontua da taldeak ez duela aurrera jarraituko; hala ere, agur bezala, uztailerako kontzertu bira bat egitea pentsatuta daukate.



Gaizka, harmonika grabatzen. | AZKAITER

Behi Bi Bluesen diskoa datozen egunotan egongo da kalean

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Azkaiter Peloxek eta Gaizka Azkaratek osatzen duten Behi Bi Blues taldeak datozen egunotan kaleratu du estreinako diskoa. Hamaika kantuz osaturiko kantu-bilduma grabatu dute Pottoko estudioan, Fredi Pelaez teknikariaren gidaritzapean.

Bikote formatuan grabatu dute diskoa, blues musikaren hastapenetan ohikoa zen moduan; gitarra, harmonika eta ahotsa. Hala ere, blues musika nagusi bada ere, swing edo latindar estiloek ere badute tartetxo bat. Kopia asteen heltzekoak direla esan dute taldekideek.



Azkaiter Pelox, Pottoko estudioan. | GAIZKA AZKARATE

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Zumarraga. Etxebizitza salgai. Oso eguzkitsua. Bi logela, egongela, sukaldia eta komuna. Dena kapora begira. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 638 33 03 01

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Loramendi kalean, 60 metro koadro erabilgarrituene txebizitza alokagai: bi logela, egongela, zabala, sukaldia ederra. Behoko solairua. 540 euro hilean, berokuntza zentrala eta urberokogastuak barne. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 629 42 01 10

Arrasate. Hilean 540 euro-gatik guztiz jantzitako apartamentu berria elokatzen da, Bizkaia etorbidea 2an. Pertsona bat edo birendako egokia. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 636 68 28 26

Costa Ballena (Cadiz). Uztailerako eta irailerako etxebizitza errentan ematen da. Bi logela, terraza eta garajea. Hondartzatik gertu. Igerilekua. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 679 84 62 48

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta edo Arrasate. Hiru logelako etxea hartuko nuke errentan Arrasaten edo Aretxabaletan. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 632 38 52 28 edo 632 17 45 11

Arrasate edo Aretxabaleta. Arrasaten zein Aretxabaletan errentan 2-3 logelako etxebizitza bila gabiltzan bikote bat gara. 674 13 91 59

Arrasaten. Neska arduratsua naiz eta alokairuko etxebizitza bila nabil Arrasaten. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 675 00 93 22

Baseri bila Debagoienan. Kaixo! Soraluzeko hiru gazte gara eta Debagoienan errentan dagoen baseri bila gabiltza. Baldintzen inguruan hitz egiteko prest gaude. Mila esker; plazerra izango da! Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 645 71 50 50

105. ETXEA OSATU

Bergara. Logela ematen da errentan, sukaldia erabiltzeko aukerarekin eta internetarekin. Leku lasaia da. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 637 18 07 23

Pisukide bila. Hiru neska langile Arrasaten pisukide bila gabiltza gela bat betetzeko (neska zein mutil). Alde zaharrean, handia eta argitsua da. Lau logela, bi komun, sukaldia eta egongela handi eta eguzkitsua ditu. Alokairua, wifi eta telefonoa, gehiagustak, guztira 230 euro dira pertsonako, hilean. Animatu eta deitu. Inte-

resatuta egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 608 57 97 70, 665 71 69 10 edo 670 58 63 32.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Lan eskaintza. Antzuolan, hiru urteko bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko, esperientzia duen emakume euskaldun bat behar da. Pposable bada, Antzuola edo oso gertukoa. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 606 27 87 47 edo 606 26 71 53

402. ESKAERA

Arrasate edo Bergara. Nagusietan umeak zaintzeko edo garbitasunak egiteko gertu nago: taberna, atari, bulego zein etxeetan. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 625 86 99 51

Arrasate. Nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukaldari lanetan arituko nintzateke. Marta Cecilia Ocampo. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 625 86 99 51 671 15 96 97

Arrasate. Neska lanerako gertu. Erizain laguntzaile naiz. Nagusiak zaiduko nituzke egunka edo orduka. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 625 86 99 51 629 80 77 73

Bergara edo Arrasaten. Bertako neska euskalduna haurrak zaintzeko prest dago larunbat, igande zein jaieguneetan. Interesatua egonez gero, mesedez, deitu ezazue telefono honetara: 625 86 99 51 688 61 11 01

Bergara, Arrasate edo Oñati. Erizain laguntzaile ikasketak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. San Juande Diosen lan egindakoa eta esperientzia handikoa. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 625 86 99 51 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

Bergara. Adin ertaineko emakumea, informea dituen, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 610 34 97 88

Bergara. Goizetan eta eguerditan umeak zainduko nituzke. Psikopedagogia eta haur hezkuntza ikasketak ditut. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 669 64 64 27

Debagoiena. Bertako neska, eskarmentuduna, gertu nagusiak zaintzeko. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 637 18 07 23

Debagoiena. Egun erdiz lan egingo nuke, 8:00etatik 13:00era. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Gidabaimena eta lege agiriak daukat. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 697 66 89 20

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskera
403. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdtu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

1001. Agurrak
1002. Harremanak
1003. Deiak
1004. Bestelakoak



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €.
- Aranerrea 79 m², 3 logela, berogailua, trasteleku. Garajea aukeran. 170.000 €.
- Zabaltegi 82 m², 3 logela. Igogailua. Oso prezio ona. 125.000 €.
- Ibarra 82 m², 3 logela, berogailua. 120.000 €.
- Bidekurutzeta 58 m², 2 logela. 35.000 €.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berritua. Garajea aukeran. 138.000 €.
- AUKERA
- Bolu 66 m², 2 logela. Trasteleku. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m², 2 logela. Trasteleku. 100.000 €. PREZIO JEITSIERAREKIN.
- San Antonio 86 m², 3 logela, trasteleku eta garajearekin. Igogailua. 210.000 €.
- Ibargarai 90 m², 3 logela. Igogailua 235.000 €.
- Masterreka 73 m², 2 logela, berogailua, igogailua. Oso ondo. 195.000 €.
- Ibarra 129 m², 4 logela, berogailua. 168.000 €.
- Azkaruntz 75 m², 3 logela. Berritua. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €.
- Zurrategi 83 m², 3 logela. Berritua. 114.192 €.
- Ibarra 65 m², 3 logela. Berritua. 114.192 €.
- Zubieta 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabaltegi 54 m², 2 logela. 96.000 €.
- Matxitegi 60 m², 2 logela. Igogailua. Erabat berritua.
- Fraizkozuri 78 m², 3 logela. Bolkioa, trasteleku eta garajearekin. 205.000 €.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria. Oso ondo. 225.000 €.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berritua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 159.000 €. PREZIO JAITSIERA
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxitegi, 115 m², 3 logela, trasteleku eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

ANTZUOLA:

- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000 €.
- Sagasti 86 m², 3 logela. 163 m²ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364 €.
- Behoko Auzoa 60 m², 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m², 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m², 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

SORALUZE:

- Sagor Erreka, Rabal, Aizuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:

- Torrealdea 77 m², 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iruze, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.
- San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onak.

OSINTXU:

- Osintxu 85m², 3 logela. Igogailua. Berritua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 80m², 3 logela. Bolkioa. Oso ondo. 160.000€.

deitu ezazue telefono honetara: 603 14 59 17

Debagoiena. Mutillanerako gertu: zerbitzari, sukaldelaguntzaile, igeltsaritza peoi eta abar. Lan beharrean nago. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 625 66 36 14

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiten lan egingo nuke. Sandra Milena. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 634 90 87 63

Debagoiena. Neska arduratsua gertu hainbat lan egiteko: umeak edo adinekoak zaindu, garbiketa lanak eta abar. Tel.: Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 622 13 16 64

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusi eta umeak zaintzeko eta garbitasun lanetan jarduteko. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 602 04 16 67

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: ume edo nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egingo nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 663 40 92 67

Debagoiena. Neska euskalduna, esperientzia eta informaduna, gertu umeak zaintzeko, elkarte, bulego eta abarrak garbitzeko, edo gauak ospitalean egiteko. Autoa daukat. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 671 35 22 60

Debagoiena. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia daukat, 15 urte egon naiz etxebatean bizitzaren garbiketarako lanak egiten eta umeak zaintzen. Interesatua egonez gero, mesedez, deitu ezazue telefono honetara: 676 73 38 62

Debagoiena. Neska prest gauden lan egiteko, ospitalean edo etxeetan. Geriatria laguntzaile tituluduna. Autoarekin. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 600 00 51 60

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke. Garbiketarako, ume edo laguntza behar dutenak zaindu, ile-apaindegi laguntzaile edota dendari jardundakoa naiz. Interesatua egonez gero, mesedez, deitu ezazue telefono honetara: 638 25 73 91 edo 943 79 80 05

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, zerbitzari, nagusiak zaintzen edo garbiketan lan egiteko gertu nago. Interesatua egonez gero, mesedez, deitu ezazue telefono honetara: 663 40 92 66

Udan haurrak zaindu. Udan haurrak zaintzeko prest nago. Neska esperientziaduna naiz eta arduratsua. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 696 30 04 28

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Frantseseko eskolak Bergaran. Frantseseko eskolak hartu nahiko nituzke, lehenbailehen. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 690 79 68 75

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumea. Apiril hasieran jaiotako katakume zuria ematen da opari. Gorra da eta etxerako egokia izan daiteke. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 663 65 76 06

Katakumeak ematen dira opari. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 666 40 65 58

Katakumeak. Apiril hasieran jaiotako katakumeak, maiatz bukaeran emateko prest. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 663 65 76 06

8. DENETARIK

806. GALDU

Patinetea Oñatin. Aste Santuko aurreko astean ahaztu genuen patinetea Oñatiko kiroldegiko aparkalekuan. Oxelo etxekoa da, beltza eta urdina. Aurkitu baduzu, deitu zenbaki hauetara. Eskerrik asko. 943 71 82 74 edo 685 75 31 29

Patinetea Arrasaten. Apirilaren 12an, arratsaldean, ahaztuta utzi genuen patinetea Arrasateko Herriko plazan. Aurkitu baduzu deitu mesedez telefono honetara (Aitor). Mila esker. 618 06 91 80

Urre koloreko Seiko erlojua Oñatin. Urre koloreko Seiko etxeko erlojua galdu nuen apirilaren 10ean, eguena, Santa Marina eta Errekaldeko plaza-txoaren artean, Onatin. Esfera borobilduna da. Aurkitu baduzu mesedez eraman udaltzaingora edo deitu zenbaki honetara: 638 607 809

808. BESTELAKOAK

Autokarabana errentan hartuko nuke San Juanetako asterako. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 679 68 91 12

Lekuko bila. Arrasateko Deba kalean apartakuta geneukan autokarabana lau gurgilak zulatu dizkigute. Norbaitek zerbait ikusi badu deitu mesedez telefono hauetara: 65275 95 44 edo 652 75 95 43

9. HARREMANAK

903. DEIAK

Bazkide bila. Bergarako Muriñondo elkarte bazkide berri bila dabil. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 605 76 32 96

ETXKO SUKALDERAINO

Alaitz Jauregi | Xinkonako ikastaroen arduraduna

- ▶ Herriko txikienekin gozaten egoten da askotan, arratsaldeetan, Xinkonan
- ▶ Eskulanak, marrazkiak... garbi zuen haurrekin lan egin nahi zuela

"Haurrek eguna alaitzen dute eta dezente gehiago irakasten digute"

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolan oso ezaguna da Alaitz Jauregi; herriko txikitxoekin lan egiten du, baina makina bat saltsatan ibiltzen da; Mairuaren Alardean alabarekin ere ibili izan da; baita txistua jotzen ere, domeka goizak alaituz. Sukaldea, ordea, bere pasio handietakoa dela aitortu du.

Zein da Alaitz Jauregi? Zelakoa da Alaitz?

Alaitzen ezaugarri bereziena sormena da, horregatik dut gogoko eskulana, eta sormen hau sukaldean ere lantzen dut.

Ze harreman duzu sukaldearekin?

Oso jatun ona naiz, baina sukaldari bezala ere ez naiz batere gaizki moldatzen. Ni naiz etxeko sukaldaria; gustura aritzen naiz, gainera.

Zein da zure espezialitatea sukaldean?

Kaneloiak eta postreak.

Zertara gonbidatuko zenuke lagun onena? Eta non?

Lagunik onena, mutil-laguna, nire etxean barazki plater on bat jatera gonbidatuko nuke; eta kanpora joanda, berriz, Bastidara joango ginatke patatak errioxar erara eta ondoren bildots-txuletak jateko.

Eta etsairik handiena?

Etsairik handienak, gure gainetik agintzen diharduten horiek guztiak, Euskal Herriko jatetxetan bira bat egitera gonbidatuko nituzke; horrela, behingoz, gure euskal kalitatea zein ona den onar dezaten.

Zeinekin nahiko zenuke mahaiaren bueltan eseri?

Mahaiaren bueltan? Munduan goseak dauden guztiakin; janariak

gozatzeko.

Zergatik Xinkona?

Xinkona, eskulanak egiteaz gain, ikasteko eta gozatzeko beste era bat delako: arau minimoekin, haurraren askatasuna, erabakitze eta sormenerako gaitasuna errespetatzen delako. Haurrek eguna alaitzen dute, eta nik haiei baino dezente gehiago irakasten didate haiek niri.

Zein miresten duzu?

Miresten dudana pertsona... uf! Asko eta asko! Ni bezala egunero zerbait berria irakatsi eta ikasteko prest esnatzen den jende arrunt hori guztia.

Alaitz ez bazina...?

Bai, zera! Ez nuke inola ere aldatuko, ez ogibidea, ez ezer; zoriontsu naiz eta!

Zer duzu maite bizitza honetan?

Maiteena: bikotekidea, alaba, familia eta inguruko jendea, denak haur giroa, asko da eta. **Iratxoek hiru desio betetzeko aukera eman dizute...**

Furgoneta eder bat, gasolina depositua beteta eta osasuna munduan barrena ibiltzeko.

Zure bizitzako anekdota bat.

Egunero daude anekdotak dendan haurrekin, hain espontaneoak dira!

Bizitzan ezinbestekoa da...

Lehen platera: bakailao-tortilla.

Bigarrena: arraina eta txuleta.

Postrea: gazta eta menbrilloa.

Edatekoa: sargardoa.



Alaitz Jauregi, Xinkonako ikastaroen txokoa. | ALAITZ JAUREGI

"Haurdunaldiaz bizi izan dudana guztia errepikatuko nuke berriro ere"

Umorea eta positiboa izatea.

Damu zara...

Damutu? Zertarako? Orain arteko dena pasatu behar izan da momentu honetara iristeko! Beraz, eskerrak denari, gauza on eta txarre!

Zer errepikatuko zenuke?

Haurdunaldiaz bizi izan dudana dena.

Zerk beldurtzen zaitu?

Arratoiei diet beldurra. Fobia diet!

Lanetik etxera iritsi berri, sofan eseri eta...

Berba eta berba Bidart alabarekin, nolako arratsaldea eduki dugun elkarrizkatzeko.

Nora ospa egingo zenuke gustura?

Urrun, nonbaitera, ezkutura. Laku baten ondoan dagoen etxetxo batera.

Ze aholku konpartituko zenuke?

Hobe dela bihotzak esaten duena egiten bizi izatea, buruak esaten duena baino; izan ere, hori da benetan gustura bizi izateko modu bakarra.

PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

AMAREN ALBONDIGAK

Nire amaren albondigek ez dute ezer apartekorik, eta ezta exotikorik ere. Baina nik uste dut, hain justu ere, horixe dela daukaten arrakastaren gakoa. Izan ere, belaunaldiz belaunaldi egin izan dira batere aldatarik gabe, sukaldean etengabeko berrikuntza defendatzen duten horien teoriaren kontrara. Aitak abisatu zidan behin: "Ez mostazarik, ez azenario bi baten lekuan eta, are gutxiago, curryrik edo koko saltsarik ere. Zure amarenak gustatzen zaizkit", esan zuen irmoki. Eta puntu. Halaxe egin nituen, horrenbestez. Halaxe egin behar izan nituen. Saltsa marroi espainola duten albondigak.

Bada, zuen ondokoak erabat konkista ditzazuen eta zeuen ondoan mantentzen ditzazuen bizitza osoan, gure etxeko errezeta partekatuko dut zuokin.



Arrautzarekin eta hainbat gozagarriekin osatzen dira. | "THE COOK ROCKER"

Arabiarrek erakutsita

Wikipediak dioten moduan, albondiga okela bola bat da; normalean, ganadu okela izaten da, baina izan liteke baita arrain okelarekin egitea ere. Arrautzarekin nahastuta eta perrexil, komino eta halako gozagarriekin lagunduta egiten dira. Eta bada modu vegetarianoan egiteko aukera ere, seitana erabilita.

Albondiga berba arabieratik dator, *al-bunduqa* berbatik, hain justu. *Bola* da esanahi zuzena. Arabiarrek erakutsi zieten europarrei albondigak prestatzen.

Askok, *albondiga* barik, *almondiga* berba erabiltzen dute. Bada, gaztelaniako hiztegiak jatorrian *albondiga* zein *almondiga* sartu zituen, nahiz eta azken hori forma okertzat hartu.

Fitxa

- ▶ Denbora: 90 minutu.
- ▶ Zailtasuna: ★★★★★

OSAGIAK

- ▶ Kilo bat okela.
- ▶ Baso erdi esne.
- ▶ Xerra bi moldeko ogi, azal barik.
- ▶ Eskukada fresko bat birrindutako perrexil.
- ▶ Bi arrautza.
- ▶ Irina.
- ▶ Etxean egindako okela-salda edo ura *avecrem* pilulatxo batekin.
- ▶ Ardo beltza (zuek edango zenuketen ardoa).
- ▶ Tipula erdi.
- ▶ Azenario bat.
- ▶ Piperbeltza.

Prestaketa

1. Ontzi batean nahastu birrindutako okela, esnetan bustitako ogi xerrak, arrautzak, gazta, birrindutako piperbeltza eta perrexila. Eskuekin. Masa gogorregi badago, esnea gehitu, eta osagaiak ondo nahastuta daudenean, bolatxoak egin eta irinetatik pasatuko ditugu.
2. Su-erditan egingo ditugu albondiga bolatxoak zartagin batean, oliba-olio ugarirekin, gorritu arte. Ez da beharrezkoa barrutik ondo egitea, kazolan saltsarekin bukatuko direlako egiten. Sutik kendu eta plater batean jarriko ditugu.
3. Kazola barreanean, tipula erdi eta laukitxotan zatitutako azenarioak egin. Gorrituta daudenean, irin apur bat bota, eta ondo nahastu. Kontuz, ez dadin erre. Okela-salda apur bat edo ura gehitu behar da, eta berriro eragin.
4. Prestatutakoari albondigak eta okela-salda gehitu albondigak estali arte. Botila erdi ardo beltz bota eta ordu laurdenez su ertain-handian utzi. Denbora horren ostean sua txikitu eta ordu eta erdiz *txup-txup* egiten utzi. Noizean behin eragin, ez dadin erre. Eta birrindutako perrexilarekin aurkeztu.

Iratxe Esnaola | PuntuEus Fundazioa

"Gure helburu nagusia euskarazko edukiak gero eta gehiago izatea da"

- ▶ '.eus' domeinuak argi berdea jaso eta gero, hedapena hastear da
- ▶ Euskal domeinu izendapena 90 webgunek hartuko dute hasiera baten

T.M./J.B. | ARRASATE

PuntuEus Fundazioko kide da Esnaola. Une gozoa bizi du egitasmoak ICANN erakundeak baimena eman eta '.eus' domeinuarekin lehen webguneak erregistratzen hasiko dira aurki. Lehen fase baten ekarpen ekonomikoarekin lagunduko duten 90 webgune aitzindari izango dute ekainean euskal domeinu izendapen hori.

Lanak eman du azkenean emaitza, ezta?

Proiektuak lehen urratsak 2007an egin zituen, beraz, 7 urteko bidea izan da. Luzea eta gogorra izan da, batez ere guk ez ditugulako inongo momentuan epeak jarri eta osotasunean ICANN erakundearen epe eta baldintzei begira emandako prozesua izan baita.

Orain kanpora begira hasiko zarete lanean?

2007tik lehen-lehen lana komunitatea artikulatzea izan da eta, batez ere, Fundazioaren baitan ordezkaritza zabala lortzea bilatu da elkarte handi eta txikiak, hemengoekin, diasporakoekin... Horrekin bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren plangintza idatzi behar izan dugu.

Webguneek domeinua aldatzea da bilatzen dena?

Ez, izendapen berria ez da eta baztertzaila. Webgune berak '.com' ala '.org' bat '.eus' batekin batera izan dezake. Hala gomentatzen dugu guk, gainera, epe baterako. Eskatzen duguna da bistaratuko dugun hori '.eus' izendapena duena izatea.



Iratxe Esnaola. | J.B.

Aitzindari talde bati emango zaio lehenik aukera, zergatik? Edozein izan daiteke lehen 90 horietako bat eta abenduaren 3ra arte, Euskararen Nazioarteko Egunera arte, izango dute aktibo eurek bakarrik. Gure aldetik proiektuaren promozioan bultzada eta ekarpen ekonomiko eskatuko dugu.

Eta, ostean, abenduan abiarazte orokorra etorriko litzateke.

Hortik aurrera eta urtebetean espero dugu '.eus'-ekin abiatuko diren webgune guztien %60-a jasotzea. '.cat'-ekin gertatu zena hartu dugu erreferentzia bezala. Fase horretan erakunde publiko ala enpresek eskaera egin eta publiko orokorrera irekin baino lehenago babestua izango dute euren izena. Abendura arte egin ahal izango da hau eta hilaren 3an aitzindariekin batera '.eus' batekin egongo dira. Fase irekian eskatzen dutenek domeinuak ematen dituzten enpresa baimenduen bidez egin beharko dute.

Zergatik du garrantzia '.eus' domeinua izatea webgune batentzat?

Euskal komunitateari izena ematen diolako. Munduak komunitate bezala ikusten zaitu eta komunitate horrek dituen baloreekin batzen duzu zure webgunea. Agerikoagoa zara komunitate baten barruan kokatzen zarelako eta zure burua ere horren baitan ikusten duzu. Gauza handia dela ikusten dugu.

Informazio gehiago:

eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Kontsola gehiago eta smartphone-entzako zerbitzuak, Nintendok

Konpainia suspertzeko iragarpen zerrenda luzea egin berri du konpainia japoniarra

J.B. | ARRASATE

Merkatu estrategia aldatu eta gorabidean diren herrialdeetan sakonago txertatu gura dute Nintendo. Satoru Iwata presidentea aurkeztu berri dituen asmoen barruan ere sartzen da mugikorretarako zerbitzu berria eta baita ere askotariko gailuekin NFC bidez konektatzen diren jostailu eta figuratxoak.

Produktu berriak

Azken bost urteetako emaitza ekonomiko apalen aurkezpenaren ostean eman ditu jakitera Nintendok asmo berriak. Presidenteak berak eginiko adierazpenetan azaltzen da zelan "gauza berriak asmatu" gura dituzten eta helburua ez dela

dagoeneko dituzten produktuen bertsio ekonomikoagoak sortzea. Gorabidean diren herrialdeetako merkatuetarako produktu espezifikoa aterako ei dituzte, hain zuzen.

Zerbitzuen berrikuntzatik joko dute Nintendon aurrerantzean eta, hasteko, Mario Kart jolasarekin lotutako mugikorretarako garapen bat merkaturatuko dute, kontsola abiatu barik *ranking*-a eta beste jokalarien posizioak kontsultatu ahal izateko. Jostailu berriak asmatu eta merkaturatuko dituzte aurki. Jostailu horiekin NFC teknologiaren bitartez kontsolarekin eta bestelako gailuekin interaktuatzeko moduak ipini gura dituzte.



Satoru Iwata, aurkezpenean. | ALTT040

Foursquare bitan banatu eta Swarm abiatuko dute

'Check-in'-ak eta lagunen kokapena 'app' nagusitik aplikazio berrira aldatuko dituzte

J.B. | ARRASATE

Swarm (*saldoa*) delako aplikazioa aurkeztu berri du Foursquare-ek, geolokalizazioaren aspektu sozialetan sakondu ahal izateko. Aurki ipiniko omen dute eskuragarri iOS eta Android-entzat. Mezularitza eta geolokalizazioa batuko ditu aplikazioak, sistemak txatean fisikoki eremu baten barruan hurbil dauzkagun kontaktuak erakutsiko baitizkigu eta bilera eta hitzorduak antolatzeko tresnak emango ditu. Foursquare-etik hain ezagun bilakatu ziren *check-in*-ak ere kendu egingo dituzte eta aplikazio berrira pasatuko dituzte. Horrela, Foursquare gehiago lagako dute lekuen bilaketa eta esploraziorako tresna moduan eta emaitza pertsonalizatuak ematen jarraituko du aplikazio ezagunak. Hala ere, bi aplikazioen artean datuen truketzea egongo da, gomendio pertsonalak proposatu ahal izateko.

Check-in-en gainbehera Aspalditik gainbeheran joan da Foursquare aplikazioan egindako check-in kopurua, azken finean, erabilera praktikoa argirik ez zuten-eta, bisiten erregistroa egiteaz harago. Lokalizazioa eta kontaktuekin harremana orain Swarm-en geratzen da eta lekuen bilaketa eta gomendioak Foursquare-en esku jarraitzen du. Swarm-en orain *check-in*-arekin batera inguruan dauden kontaktuak erakutsiko ditu, ekintzak banatuz.



AMAZON

Amazonen smartphone-a

Amazonen publizitatea jasotzearen truke doan emateko asmoa duen smartphone-aren lehen irudiak azaleratu dira jada. Irudiek ohikoa baino mugikor sendagoa erakusten dute eta gutxienez 5 hazbeteko pantaila. Aurkezpenarako datarik ez dute zehaztu Amazon-etik baina aurreikuspena da urtearen amaierarako merkaturatuko dela.

Pribatutasun politika aldatuko du Apple-ek NSA aferaren ondorioz

NSA agentziaren zelataritza eskandaluaren ostean tirabira handiak egon dira konpainiaren eta Estatu Batuetako gobernuaren artean eta Apple-ek bere pribatutasun politikak aldatuko dituela iragarri du jada. Azaldu dutenez, Gobernuak ala bestelako erakunde bat erabiltzailearen datuen eske datorenean, hari jakinaraziko zaiola, "erabiltzailearenganako errespetu neurri" bezala, agertu dutenez. Gobernuaren eskaera bat jasotzen dutenean erabiltzaileari ohartaraziko zaio baldin eta sekretutasunarekin lotutako epai-agindu bat tarteko ez bada. The Washington Post egunkarian argitaratutako albiste baten bitartez jakin da Apple-en asmoen berri eta aurreratzen denez hile honen amaieran egingo dute publiko. Bestelako zehaztapenik ez da luzatu eta ikuskizun dago neurriaren hedapena.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



Makillaje apur bat!

The show must go on! zihoen abesti ezagunak, eta badirudi komunikabideak izan ohi diren *show* horretan, abesti hori nahitazko jarraibidea dela. Publizitateak, aurrekontuak, soldatak... zuzendaritzako karguak eta EREak izan ezik, guztiak behera egin duen testuinguruan ikuskizunak aurrera egin behar du.

Pasa den astean TDT zirkoko kate batzuei agur esan ostean, errepikapenak murriztu eta aurrera! Kontua egotea da, orduak betetzea, eta ikuslearen neuronak are gehiago moteltzea. Horretarako baina, kate gutxiago daudenez, murrizketak gutxitu beharko dituzte. Hutsuneak makillaje apur batekin ezkutatu, eta aurrera!

Eitb taldeak ere, bere eta gure aurpegi onena erakusteko, makillajearen aldeko apustua egin du. Laster *Itxuroso* programa estreinatuko dute eta, herritarren itxura hobetze aldera, *look* aldaketak proposatuko dizkiete parte hartzaileei. Beldurgarria!

Nire ustez, *8 apellidos vascos*-etik lortutako dirutza makillajetan xahutu beharrean, irratiko EREa murrizteko erabili beharko lukete, baina, horrek ez ditu ikusleak edertuko, hortaz...

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 12



'Harmailatik'

Zapatuan jokatu zen Gorlako lgoeran gertatutakoak jasoko ditugu, besteak beste, *Harmailatik*-en. | 19:30

12:00 Debagoiena zuzenean
13:00 Ikusmira
13:30 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Tertulia
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Kantari
17:30 Ibilean
18:00 Ikusmira
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Amaia DJ
19:30 Harmailatik
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harmailatik
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Debagoiena zuzenean
00:20 Harmailatik

MARTITZENA, 13



Azula auzoa

Elgetako Azula auzoa ezagutuko dugu *Debagoiena zuzenean* saioan, Mireia Bikuñaren eskutik. | 20:00

12:00 Harmailatik
12:30 Tripa-zorri
13:00 Ibilean
13:25 Amaia DJ
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harmailatik
15:30 Onein
15:55 Zorion Agurrak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
16:55 Ikusmira
17:20 Ibilean
17:45 Ikusi irratia
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 7 akorde
19:30 Kantari
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harira
22:30 Berriak
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Debagoiena zuzenean
00:20 Harira

EGUAZTENA, 14



Albistegia

Debagoienean egunean zehar izan diren albiste nagusiak jasoko ditugu *Berriak* saioan. | 14:30

12:00 Tripa-zorri
12:30 Erreportajea
13:15 Zorion Agurrak
13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harira
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Kantari
17:30 Dantzari Eguna
18:30 Berriak
19:00 Harira
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 7 akorde
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Debagoiena zuzenean
00:20 7 akorde

EGUENA, 15



'Amaia DJ'

Gaztetxoek eskatutako musika dantzagarrien bideklipak ikusi ahal izango dituzue saioan. | 19:30

12:00 Ikusmira
12:30 Ibilean
12:55 Erreportajea
13:40 Ur eta lur
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 7 akorde
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Ur eta lur
17:30 Tertulia
18:30 Berriak
19:00 7 akorde
19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Amaia DJ
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Debagoiena zuzenean
00:20 Amaia DJ

EGUBAKOITZA, 16



'Tertulia'

Egubakoitzero egiten dugun moduan, astean ere Larraitx Zeberio aurkeztutako tertulia izango dugu. | 19:00

12:00 Ibilean
13:15 Zorion Agurrak
13:30 Erreportajea
13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Klaketa
17:45 Ur eta lur
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Tertulia
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Tertulia
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Debagoiena zuzenean
00:20 Tertulia

ARRASATE IRRATIA

Willis Drummond taldearen kontzerturako sarrerak

Kooltur ostegunak egitasmoaren baitan, gaztetxean egingo den ikasturteko azken kontzertua emango du egunean Willis Drummond taldeak. Bertara joateko sarrerak lortu nahi izanez gero, deitu 943 25 05 05era edo idatzi *irratia@goiena.com*-era eta hartu parte zozketan. Zorte on!

Gazte informazioa jaso ahal izango dugu gaur, astelehena, 11:00etan

Arrasate Irratiko *Igo Autobusera!* irratisaioan sarri jotzen dugu gazte bulegora informazio bila. Normalean martitzetaren egiten dugu bertara bisita, baina astean, gaur, astelehena, egin dugu hitzordua Gazte Bulegoko Dorleta Kortazarrekin. Informazio guztia, 11:00etan 107.7an.

Zapatuko baseritarren azokaren berri jaso ahal izango duzue

Zapatuan egingo den baseritarren azoka berezia izango da bidezko merkataritzari lotutakoa izango delako. Azokaren nondik norakoen berri emango digute irratian bihar, martitzena, Marga Garmendiak, Enplegu eta Garapen Agentziako teknikariak, eta Gorka Martinezek, Harreman dendako arduradunak.

TELE-ALBISTEAK

'7 akorde' saioan Lain taldea ezagutuko dugu, eguaztenean 22:00etatik aurrera

Huheziko Ikus-Entzunezko Komunikazioko ikasleek ekoiztutako saioa da

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Joan zen asteko eguaztenean estreinatu genuen Goiena telebistan Huheziko Ikus-Entzunezko Komunikazioko ikasleek ekoiztutako *7 akorde* izeneko saioa. Bada, aste honetan saio horren bigarren atala ikusteko aukera izango dugu. Batetik, Lain taldeko bi abeslariak izango ditugu platoan, eta bestetik, Arrutiko Intxaurrak izena daukan Ane Arruti Zarauzko bakarlariak egiten duen musika ere ezagutu ahal izango dugu erreportaje baten bitartez.

Lain taldea, platoan

2007an Youtube sare sozialean zabaldutako bideo bati esker hasi zen ezagun egiten Lain taldea. Gaur egun seikotea diren arren,



Lain taldeko abeslariak zuzeneko akustikoa eskainiko dute saioan. | GOIENA

bideo horretan Leire Berasaluze eta Kristina Arantxabek Lor taldearen *Zure doinua* abestia interpretatuz eman zituen Lain taldeak

bere lehenengo pausuak. Eta hain justu, bi abeslari horiek izango ditugu *7 akorde* saioiko platoan, Goiena telebistan.

Leintz Gatzagako alkatea izango da bihar 'Harira' saioan, 22:00etan

Herritarrek galderak bidali ahal izango dizkiote alkateari, eta zuzenean erantzungo die saioan

A.T. | ARRASATE

Goiena telebistako *Harira* saioetik pasa dira dagoeneko Debagoieneko zortzi herritako alkateak. Aste honetan, Leintz Gatzagako alkate den Eugenio Otsoa izango dugu saioan, eta horrenbestez, alkateen lehen erronda amaituta geldituko da.

Bihar, martitzena, 22:00etan izango du hitzordua Goienako platoan Eugenio Otsoak eta Eneko Azkarate aurkezleak egindako galderei erantzun beharko die alkateak.

Herrian gori-gori dauden gaiak izango ditu hizpide Otsoak eta mahai gainean dauden proiektuak, inbertsioak eta beste hainbat gauza izango dituzte berba ordu bete iraungo duen saioan.




Eugenio Otsoa. | GOIENA


Bidali zure galdera alkateari

Herritarren galderei ere erantzungo die alkateak. Halakoak helarazteko bideak dira: *harira@goiena.com*; Whatsapp, Telegram edo erantzungailu automatikoa: 688 69 00 17.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Joanes Osés Egaña
Maiatzaren 17an, 7 urte.
Zorionak, pelotari! Muxu potolo bana Uxueren, Keparen, aitatxoren eta amatxoren partetik. Ondo pasatu.



ARRASATE
Sergio Canales
Maiatzaren 16an, 35 urte. Zorionak, aitatxo! Musu handi bat Aitorren, Alazneren eta amatxoren partetik. Munduko aitatxorik onena zarelako!



BERGARA
Harkaitz Ilarduia
Arteaga
Maiatzaren 14an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Lau urterekin hain azkarra izanda, bostekin amatxori irabazi baietz! Patxo goxo pila bat, maitxia!



ARRASATE
Aitor Auzmendi Berezibar
Maiatzaren 14an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Belarrixetatik lau tirakada etxeko guztien partetik! Ondo pasatu zure urtebetetze egune!



OÑATI
Lur Biain
Aranburuzabala
Maiatzaren 14an, 6 urte. Zorionak printzesa! Patxo pila bat eta besarkada goxo bat etxeko partetik. Ondo ondo pasatu zure eguna eta horrelaxe jarraitu!



ARRASATE
Boni Ferreira
Maiatzaren 13an, 32 urte. Zorionak, aitatxo! Oso ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat Ionon eta Itxasoren partetik.



ESKORIATZA
Irati Gorosarri
Zuazubiskar
Maiatzaren 12an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat eta besarkada potolo bat aitatxoren, amatxoren eta Dihanereren partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze egunean.



BERGARA
Ion Agiriano Larrion
Maiatzaren 11n, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure eguna, etxeko guztien partetik eta bereziki Maitanek.



ARETXABALETA
Laida Eraña Larrea
Maiatzaren 11n, 3 urte. Zorionak, Laida! Ondo pasatu zure urtebetetze egunien eta patxo handi bat etxeko danon partetik.




OÑATI
Tarsicio Osés Otxandorena
Maiatzaren 11n, 47 urte. Zorionak, aitatxo! Eta urte askotarako. Hiru patxo handi Uxueren, Joanesen eta Keparen partetik, eta beste bat maitasunez, amatxoren partetik. Ondo pasatu.



ARETXABALETA
Anje Lagunilla Urzelai
Maiatzaren 10ean, 3 urte. Zorionak, Anje! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta muxu potolo bat danon partetik.



ARRASATE
Julen Bermejo Lage
Maiatzaren 10ean, 7 urte. Zorionak, guapo! Etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Martin Bereziartua
Maiatzaren 10ean, 6 urte. Zorionak, pirata! Patxo handi-handi bat etxeko guztien partetik.




ARETXABALETA
Peru Zubiria Zubeldia
Maiatzaren 10ean, 2 urte. Zorionak, txiki! Bi patxo potolo etxeko guztien partetik!



OÑATI
Aimar Erostarbe
Maiatzaren 9an, 11 urte. Aupa, Aimar! Zorionak, txapeldun!



BERGARA
Eder Elkorobereziabar Rivas
Maiatzaren 9an, 11 urte. Zorionak etxeko guztien partetik, bereziki Anetxo.



BERGARA
Erik Gartzia Perez
Maiatzaren 8an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Egun polita pasatu eta belarritik hiru tirakada familia guztiaren eta bereziki Noraren, Eleneren, Jurgiren, Aneren eta Anderren partetik.




OÑATI
Irati Delgado Agiriano
Maiatzaren 8an, 8 urte. Azkenean heldu da zortzi kandlei putz egiteko eguna! Ondo pasatu zure urtebetetzea, etxeko guztien partetik.



BERGARA
Rosemarie Elizabeth Meza Ledesma
Maiatzaren 8an, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako.




OÑATI
Niko Perosterena Galdos
Maiatzaren 7an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egunian eta patxo handi-handi bat etxeko danon partetik.



DEBAGOIENA
Ane Bretaña Ugalde
Maiatzaren 7an, 11 urte. Gure Realzaleari zorionak etxeko guztien partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze egunean!



DEBAGOIENA
Aimar Ferreiro Garcia
Maiatzaren 6an, 2 urte. Zorionak, prexioxo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxeko partetik. Bereziki aitatxoren eta amatxoren partetik!




ARRASATE
Ibai eta Haizea Murgia
Ibai maiatzaren 1ean, 8 urte eta Haizea maiatzaren 6an, 5 urte. Zorionak, bikote, eta besarkada erraldoi bat familia guztiaren partetik!



ARRASATE
Haizea Zabala
Muruamendiaraz
Maiatzaren 3an, 8 urte. Zorionak! Zortzi patxo handi zuretzat. Disfruta ezazu izugarri zuretzat hain berezia den egun hau! Danel, aitatxo eta amatxo.




ESKORIATZA
Ilargi Legorburu
Maiatzaren 3an, 9 urte. Zorionak, guapisima! Ondion "novenan" gaz. Oso ongi pasatu geuen zure urtebetetzean. Datorren urtien berriz. Amama Garbiñe, Ekaitz eta Zuhaitz.



DEBAGOIENA
Danel Gonzalez
Maiatzaren 7an, 2 urte. Zorionak, guapo, familiakoen partetik! Bereziki Luciaren, Hugoren eta Jonen partetik! Oso-oso ondo pasatu eguna! Muxu potolo bat! Aupa Reala!



ARAMAIO
Aitor eta Uxue Arana
Zorionak, bikote! Uxuek 8 urte bete zituen apirilaren 29an eta Aitorrek maiatzaren 2an. Muxu handi bat etxeko danen partetik eta ondo pasatu zuen urtebetetze egunak!



ANTZUOLA
Enaitz Irizar Izueta
Maiatzaren 2an, 3 urte. Urte askotarako, pitxin! Ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat etxeko partetik!

Urte askotarako!

Zorion zitazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzen batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Anje Leibar Belinchon

Arrasate 4,140 Kilo. Maiatzaren 5a. Gurasoak: Segriz eta Iker. Argazkian, Anje amama Auroraren besoetan.



Ilargi Irazabalbeitia San Andres

Bergara 3,210 Kilo. Maiatzaren 6a. Gurasoak: Enara eta Aritz. Argazkian, Ilargi jaioberria.



Erik Beistegi Alvarez

Bergara 3,260 Kilo. Maiatzaren 7a. Gurasoak: Maite eta Aritz. Argazkian, Erik jaioberri sehaskan.



Hodei Bolibar Sanchez

Bergara 3,100 Kilo. Maiatzaren 3a. Gurasoak: Naiara eta Gorka. Argazkian, Hodei jaioberria sehaskan lo.



Malen eta Ekain Ortiz Landa

Eskoriatza 2,410 eta 2,630 Kilo. Apirilaren 28a. Gurasoak: Maider eta Endika. Argazkian, Malen eta Ekain sehaskan lo.

Jaio da!



Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik,

zorionak!

Eroskik zuen lehen beharretarako, **OPARIA*** egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Goizeko otordua	Erusiako errepublika	Jateko
	Kolonbiako hiriburua	Erakuntzarako makina	Txirrinak
	Garratz		
	... egin, porrot egin		
* Elgetako auzoa	Txori mota		
Irudia	Bih, ale		
		Bromoa	
		Ekintza gaitzesgarri	
Zarata			
Gortasun arin			
			Hizki grekoa
Zelai		Aiako	
Gau egin, ilundu		Uranioa	
		Nafarroako udalerria	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

O	K	O	U	T	U	G	A	V	A
K	A	V	A	L	A	L	A	V	A
E	Z	A	I	R	A	G	O	R	A
R	I	B	A	R	I	X	A	R	I
B	R	A	V	A	R	F	I	G	U
A	N	A	A	T	A	R	I	N	A
A	N	A	A	S	A	M	I	N	A
A	N	A	A	B	O	G	O	T	A
J	K	K	K	K	K	K	K	K	J

A	U	N	A	M	E	N	D	A	
B	E	T	O	D	I	P	E	H	
W	U	S	P	E	A	O	L	R	
E	H	I	T	A	N	E	T	O	
I	G	O	A	E	L	I	X	E	
U	V	I	S	A	U	R	I	N	
B	A	L	A	I	T	U	S	U	
I	L	L	O	A	E	R	S	I	
A	U	Ñ	A	M	E	N	D	I	

4	1	7	8	5	6	2	3		
5	3	7	6	2	9	4	8	1	
6	8	2	3	1	4	7	5	9	
3	4	8	5	9	7	1	6	2	
7	5	1	6	2	3	4	8		
1	2	6	8	4	3	5	9	7	
8	5	4	9	3	1	2	7	6	
9	7	1	2	5	6	8	3	4	
2	6	3	4	7	8	9	1	5	



Ezetz igarri: Erlea.

SUDOKUA

	6	3							
			2						
		4		3		2	7		
		6				5	9	7	
7	9	5	1	6		3	4		
3				9					
6	8	2	3		4				
						4			
				8	5				3

HIZKI SALDA

Topa itzazu Pirinioetako bost gailur

I	L	L	O	A	E	R	S	I
B	A	L	A	I	T	U	S	U
E	Z	P	I	L	R	E	A	K
U	V	I	S	A	U	R	I	N
I	G	O	A	E	L	I	X	E
E	H	I	T	A	N	E	T	O
W	U	S	P	E	A	O	L	R
B	E	T	O	D	I	P	E	H
A	U	Ñ	A	M	E	N	D	I

EZETZ IGARRI!

Zigor-gelatik zigor-gelara noa baina ez nago preso?

AI, ENE!

Tronuan ez aspertzeko aukera orijinala

Liburuak, denbora-pasak, mugikorreko jolasak... Arrantzan egitea izan daiteke komunean luze eser-tzen direnenendako alternatiba. www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Gizonak, lehen, mozkortu eta emaztea jotzen zuen, baina ez zuen hiltzen"

PEDRO RUIZ | CANENAKO PARROKOA

Canenako parrokoaren ustez egun zentzu moralaren eta printzipio kristauen falta dago, eta horren adibide moduan bota zuen ondoko esaldia Lehenengo Jaunartzea ospatzeko mezaren sermoian. Sortu den polemika ikusita, barkamena eskatu behar izan du. www.europapress.es

EGURALDIA



Max. 16°

Min. 7°

Giro fresko eta aldakorrekin jarraituko dugu. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2014-05-12

HAMARREKOA

Zuriñe Hidalgo Musika zainetan daramala dio disko berria prestatzen dabilen Hesian taldeko abeslariak, eta gaztetxotatik jarraitu duen ibilbidea ikusi besterik ez dago egia dioela konturatzeko | TXOMIN MADINA

"Gaur naizen pertsona izateko asko balio izan zidan 'Betizu'-k"

1. Nola doaz seigarren lana izango denaren prestaketak?

Primeran! Abestiak dagoeneko eginak ditugu eta orain azken ukituekin gabiltza: behin eta berriz lokalean egindako grabazioak entzuten eta behar denean, moldaketak egiten.

2. Zein osagai izango ditu plater berriak? Aurrekoen antzerakoak ala berriak?

Taldearen berezko esentzia ez da galduko, baina musikalki, nahiko disko ezberdina izango da. Pauso bat aurrera egin dugu.

3. Aldarrikapenek beti izan dute lekua Hesianen letretan.

Eta izaten jarraituko dute. Oraingoan ere aldarrikapen sozial, politiko zein pertsonalek lekua izango dute.

4. Taldea martxan zegoela heldu zinen zu. Taldeko hasiberria izaten jarraitzen al duzu?

Ez, izan ere, ni sartu nintzenetik gaur egun arte aldaketa gehiago egon dira talde barruan, eta aspaldi kendu zidaten tokia!

5. Diskoaren grabazioa dela-eta, kontzertu gutxiago emango dituzue aurtengo udan. Behingoagatik atsedean hartzeko aukera?

Bai: atsedena bai guretzat, eta baita publikoarentzat ere, bestela gutaz kokoteraino amaituko dute, kar, kar, kar! Oraingo diskoan %100ean egon nahi dugu, eta horren ondorioa da kontzertu kopuru mugatuena.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Munduari buelta emango nioke, ia gaur egungo egoera zeozer behintzat hobetzen dudan!"

AGM

6. Zerekin alderatu daitezke kontzertu baten abesten ari zarela ehunka lagun zuri begira egotea? Garrantzitsuena da hor daudenak ehun, mila ala bost lagun izan, aktibo egotea da, parte hartzen; bestela, *subidoia* ez da berdina...

Eta zerbaitekin alderatuzkotan, terapia askatzaile bat bezalakoa dela esan daitezke.

7. Lehen urratsak, *Betizu*-n eman zenituen. Zer geratzen zaizu esperientzia hartatik?

Gaur naizen pertsona izateko asko balio izan zidan. Pila bat ikasi nuen, bai musikalki eta baita pertsonalki ere: pertsona bezala hazteko eta nire buruarengan konfiantza izateko asko balio izan.

8. Milaka jarraitzaile dituzue, baina oker ez bagaude, denetan sutsuena etxean duzu: amona.

Nire bi amonak, bai! Momentu honetan, adina dela eta, ezin dira kontzertuetara etorri, baina gogorik ez zaie falta!

9. Abeslaria eta irakaslea zaitugu orain; eta hamost urte barru?

Garai horretan amatxo izatea espero dut; eta nola ez, era batera edo bestera musikak oraindik ere nire bizitzan jarraitzea.

10. Zer behar du Zuriñe Hidalgo zorian izateko?

Egiten dudanarekin pozik eta aseta sentitzea, eta baita maite ditudan pertsonak nire ondoan izatea ere.

BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



Gure-esku-bidean

Gazteluak, gotorleku izan dira beti; jauntxoek bizileku; boterearen gordailu; baina duela aste batzuta Arrasateko plazan izan genituen anaia katalanek erakutsi ziguten, elkartasunaren bidez, nola lor daitezkeen gaztelu (castell) bat elkartasunaren sinbolo bihurtzea.

Denon eskuhartzearekin, denok aletxo bat ipiniz, denok batera jokatu, giza-gaztelu bat osatu genuen. Tramankulu ikusgarririk gabe, gorputza gorputzarekin batuz. Datorren ekainaren 8an giza kate erraldoi bat osatuko dugu Iruñea eta Durango artean; eta egun horretan ere lotzen gaituzten kateak haustea izango dugu helburu; hain zuzen ere lotzeko tresna moduan erabiltzen den katea, giza-kate bihurtuz, eskutik eskura elkartasuna pasatuz, eskubidea gauzatzea. Posible den ala ez? Erantzuna bai da. Eskutik jokatu behar dugu. Esloganak berak dioen bezala: GURE ESKU DAGO.

Eta eskuhartzea gaitzat hartuta, hilaren 25ean dugu hitzordua; Europar Parlamenturako bozkak. Bai; ez da gure gustuko Europa; urrutik geratzen zaigu; kapitalisten Europa da; baina inoiz Herrien Europa izan dadin nahi badugu eta EH, lehen moduan, Europako berriak herri izan dadin nahi badugu, ezin gara gelditu besoak gurutzatuta; gure estatu propioa berreskuratu behar dugu; Eta hau ere GURE ESKU DAGO.

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI
zurekin



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



Zukutarako laranja, 2 kiloko poltsa

1€

Kiloa:

0,50€

Eskaintza baliagarria

**GAURKO
BAKARRIK,
astelehena**